


HELDUEN EUSKALDUNTZEAREN
OINARRIZKO KURRIKULUA
(HEOK)

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea
Erakunde Autonomiaduna



Donostia, 1999

Proiektuaren zuzendaritza : **HABEren Hizkuntzaren Didaktika Zerbitzua**

Partehartzaileak: HABEko teknikariak:
Joanba Bergara
Juxto Egaña
Lourdes Elozegi
Pello Esnal
Eskarne Lopetegi
Josu Perales

Argitalpena: 1999ko uztaila
Ale-kopurua: 800 ale
Salneurria: 1.000 pta. BEZ barne
© HABE; Eusko Jaurlaritzako Erakunde Autonomiaduna
Argitaratzailea: HABE
 Vitoria-Gasteiz, 3
 20018 Donostia
 Tel.: 943 022600 Fax: 943 022601
 e-mail: habe@ej-gv.es
ISBN: 84-86968-94-1
L.G.: SS-756/99
Inprimategia: GERTU, Oñati.

Pozarren ematen diot ongi etorria Helduen Euskalduntzerako Kurrikulu berriari. Euskara Biziberitzeko Plan Nagusiak aitortzen duenez, helduen euskalduntze-alfabetatzea izan da, euskal irakaskuntzarekin batera, euskararen berreskurapenerako ekinbiderik eta mugimendurik garrantzitsuenetarikoa azken hogeita hamar urte hauetan. Eta aurrera egingo badu, behar berriei aurre egin beharko die eta ikas/irakaskuntzaren ikerkuntzan egin diren aurrerapausoak bereganatu, eskuartean ditugun baliabideei ahalik eta etekinik onena atera ahal izateko.

Hain zuzen, erronka berriari aurre egiteko asmoz plazaratzen da Kurrikulua, HABE eta euskalduntze-alfabetatzen dihaduten euskaltegien ekimenari esker. Bihoakie, bada, gure eskerrik beroenak egitasmo honetan parte hartu eta lan hau burutzen lagundu duten guztiei; hasteko, Kurrikuluaren diseinuan parte hartu duten HABEko teknikariei, baita lehen esperimantazio-fasean beren ahalegina eta saiakera egin duten saio-euskaltegiei ere; eta, oro har, euskaltegi guztiei, aldaketarako eta berrikuntzarako gogoaz azaldu dutelako eta proiektu honetan sinistu dutelako.

Espero dut orain piztu den berrikuntzarako itxaropen eta ilusio honek emaitza oparoak eskainiko dituela helduen euskalduntze-alfabetatze gintzan.

M. Carmen Garmendia Lasa

Kultura sailburua

HABE 1994an hasi zen helduen euskalduntzearen kurrikulu berria diseinatzen, aurretik egindakoa oinarritzat hartu eta helduen euskara-irakaskuntza hobetu nahian. Ordutik hona hainbat saio egin da zenbait euskaltegitan, eta dokumentua bera ere osatzen eta berridazten joan da. Urte horietako eskarmentua bilduz helduen euskalduntze-lanetan dihardutenen eskura jartzen dugu Kurrikulu proposamen hau. Halaber, dokumentu hau kurrikulugintzaren atal bat besterik ez da non eta kurrikuluaren oinarriak, helburuak, edukiak, oinarri metodologikoak eta ebaluazio-irizpideak aurkezten diren. Kurrikulua proiektu zabalagoa da; kurrikuluak eskatzen du, besteak beste, irakasleen prestakuntza areagotzea, kurrikulu-langaiak plazaratzea, euskaltegien autonomia garatzea eta, azken batean, euskararen ikaskuntza eta irakaskuntza eraberritzea eta indarberitzea. Horren guztiaren erreferente nagusi izango da honako Kurrikuluaren oinarrizko dokumentu hau. Horretatik abiatuz euskaltegi eta irakasleen lana izango da plangintza kurrikularra egokitzea zentruaren eta ikasleen behar eta berezitasunei erantzunez.

Ohartuko zarenez, dokumentu honetan hiru maila garatu dira, EGA bitartekoak; laugarrenaren garapena datorren ikasturterako (2000-2001) aurreikusten da.

Jokin Azkue Arrastoa

HABEren zuzendari nagusia

AURKIBIDEA

SARRERA	11
OINARRIAK	15
HIZKUNTZA	17
ALDERDI PSIKOPEDAGOGIKOA	21
ALDERDI SOZIOKULTURALA	27
HELBURUAK ETA EDUKIAK MAILAZ MAILA	31
1. MAILA	41
2. MAILA	53
3. MAILA	65
4. MAILA	77
METODOLOGIA	81
EBALUAZIOA	91
EBALUAZIO-IRIZPIDEAK	95
ERANSKINAK	117
1. BALIABIDE TESTUALAK	119
2. ADIERAZPIDE LINGUISTIKOAK 1	120
3. ADIERAZPIDE LINGUISTIKOAK 2	123
4. ADIERAZPIDE LINGUISTIKOAK 3	127
5. ADIERAZPIDE TESTUALAK ETA PRAGMATIKOAK	132
6. ESTRATEGIAK	136
BIBLIOGRAFIA	139

SARRERA

Besteak beste, helduen euskalduntzea suspertzea eta bideratzea da HABEren zeregina. Horretarako sortu zuen Eusko Jaurlaritzak 1981ean, eta horrexetarako legez Erakunde Autonomo bihurtu Eusko Legebiltzarrak 1983an.

Zeregin hori betetzeko, hasiera-hasieratik garrantzi handiko tresnatzat jo zuen HABEk programa didaktikoa. Programa horixe lantzen hasi zen eratu orduko, eta 1981ean bertan argitaratu zuen lehenengoa: "Helduen euskalduntzerako programazioa" (HABE 1981). Helduen euskara-irakaskuntzaren programa zuen liburuak eduki nagusi eta ondorengo hainbat lanen oinarri izango zen.

Lehenengo programa haren ondoren eta euskararen irakaskuntzan egindako aurrerabidearen ondorioz etorri ziren gero beste hiru programa: "Helduen euskalduntzea programatzen-84" (HABE 1983), "Euskalduntzearen lehen zortzi urratsetako edukia eta ebaluaketarako oinarrizko erizpideak" (ZUTABE 1987) eta "Euskalduntzeko programa" (HABE 1989). Eta aurrerabide beraren harian dator, hain zuzen, honako "Helduen euskalduntzearen oinarrizko kurrikulua" ere.

Bide luzea egin du helduen euskalduntzeak. Bide horren mugari dira lehen lau programak, bakoitza bere bereizgarriekin, izenez eta edukiez desberdin, egindako aurrerabidearen lekuko eta, aldi berean, eginkizun zegoenaren gidari. Eta lau programa horien ildotik dator kurrikulu berria ere, mugari berria ezartzera, egungo beharren arabera.

Baina kurrikulu berria aurkeztu aurretik, ikus ditzagun lehen lau programen zer-nolakoak. Hobeto ulertuko dugu horrela, noski, honako honen edukia.

1. Asmo bera dago lau programa horien oinarrian: helduen euskara-irakaskuntza eratzea, bi printzipio uztartuz.

Batetik, lekuan lekuko premiei erantzunez eta, bestetik, ikuspegi orokorra galdu gabe. Izan ere, ikuspegi orokorrean jardun beharra dago helduak euskalduntzen; ezinbestez jokatu beharko dute euskaltegi guztiek bateratsu zenbait arlo funtsezkotan: ikas-prozesuaren mailaketan, maila bakoitzari dagokion gaitasun eta edukietan... Baina, aldi berean, ezinbestekoa zaio euskaltegi bakoitzari, jakina, tokian tokiko premiak kontuan izan eta haien arabera zerbitzua eskaintzea ere.

Bi printzipio horien uztardurari dagokionez, bestalde, lerratze bat gertatu da lehen lau programetan, izenean ere islatzen dena. Programazioa izan zen lehenengoa; eta karga gehiago jarri zuen batera jokatu behar horretan, euskaltegi bakoitzak bere inguruko premiei erantzun beharrean baino. Hurrengo programetan, ordea, gero eta karga handiagoa hartuz joan da beste printzipioa, euskaltegi bakoitzaren autonomiaren mesedetan.

2. Programa huts baino gehiago izan dira lau programak, batzuetan argiago eta besteetan ezkutuago, zenbait jokabide metodologiko eta ebaluazio-irizpide orokor ere azaltzen dituzten neurrian. "Kontuan hartu behar dugu ikasleari euskaraz komunikatzeko bideak ahal den azkarren zabaldu behar zaizkiola; hori da oraingoz gure helburua" dio lehenengo programak (1981, 63. or.); eta irizpide bera dago beste programen oinarri-oinarrian ere. Eta horren ondorio besterik ez dira, jakina, programa desberdinetako hizkuntz edukien mailaketak, urratsez urrats lortu beharreko gaitasun-mailak eta ebaluaziorako irizpideak.

Irizpide eta jokabide horien oinarrian, bestalde, hainbat ikuspegi nabari da, nahiz eta ez diren zehazten: hizkuntzari buruzkoa (ZER ikasi behar den), ikasketari buruzkoa (NOLA ikasten duten helduek bigarren hizkuntza) eta ingurune soziokulturalari buruzkoa (NON, NORAKO eta ZERTARAKO ikasi nahi duten helduek euskara).

3. Lau programek badute besterik ere batera: egoera jakin batean sortu ziren, orduko premiei erantzun asmoz. Programarik ezari erantzun zion lehenengo programak, eta orduko baliabideak biltzeko lehen oinarriak jarri zituen. Urte haietan aldaketa handiak gertatu ziren denbora gutxian helduen euskalduntzearen eremuan: EGA agiria sortu zuen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 1982an; asko ugaldtu ziren ikastaro trinkoak; "hur-bilketa komunikatiboa" eta "atalase maila" kontzeptuak iritsi ziren gugana... Aldaketa horiei erantzun nahian moldatu zuen HABEk bigarren programa, baina ez erabat; askoz ere zehatzagoa eta osoagoa zen lehen mailatan azkenekoetan baino. Besteak beste, bigarren programaren hutsune horiek betetzera etorri zen hirugarrena, baina euskalduntzearen lehen zortzi urratsetara mugatu zen. Laugarren programak zedarritu zuen helduen euskalduntzea, hain zuzen, zortzigarren urratsetik EGAK eskatutako gaitasun-mailaraino ere. Horrela amaitu zen, neurri batean, zortzi urte lehenago hasitako programagintza.

Mugak muga eta zalantzak zalantza, aldi bat burutu zuten lau programa horiek helduen euskalduntzean: mailakatu geratu zen EGA bitarteko ikas-prozesua, eta langaiez eta ebaluaziorako irizpidez hornitua.

Baina ez zegoen dena egina. Batetik, programaren hizkuntz edukiak eta urrats bakoitzeko gaitasun-mailak adieraztera mugatzen da laugarren programa, nahiz eta testuinguru zabalagoa eskaini aurkezpenean; gainera, lehen zortzi urratsetan gainditu gabeko hainbat arazoren konponbide-itxura dute, neurri batean, azken lau urratsek. Horrek, bestetik, programaren oinarrietara begira jartzen gaitu, eta horiek irakaskuntzan nola hezurramitzen diren aztertzeraz bultzatzen. Baina bada arazo larriagorik ere, nahiz eta lotura hain zuzenik ez izan programarekin berarekin: hor daude ikas-prozesua utzi eta amaitzen ez duten ikasleak; eta hor daude, era berean, euskara bera ikasi bai baina erabiltzen ez dakitenak eta erabiltzen ikasi bai baina desegoki erabiltzen dutenak ere. Baina bada besterik: askok ez dute nahikotzat jotzen EGARI dagokion gaitasun-maila lortzea, eta euskal gizartea ere gaitasun handiagoko euskaldunen beharrean da.

Aldi berean, premia berriak sortu dira azken urteotan helduen euskalduntzearen eremuan. Eta ez dira txikiak, noski, administrazioa euskalduntzeko plangintzak eragindakoak, irakaslearen euskalduntzea, enpresetako euskalduntze-prozesuak...

Horiek horrela izaki, beharrezkoa ikusi du HABEk gaurdainokoa aztertu eta euskalduntzearen programa berri bat egitea: esku artean dugun hau. Programa berri honek, jakina, arestian aipatutako hutsuneak, arazoak eta premiak izan ditu kontuan, eta horiei erantzuteko bideak moldatzea xede. Horretarako, orain artekoak baliatu da HABE, bai euskalduntzearen eremuan egindakoaz, bai beste hizkuntzen irakaskuntzan egindakoaz; eta aintzakotzat hartu ditu, gainera, programagintzaren inguruko hainbat ekarpen teoriko berri ere.

Horrela sortutako programa berrian, agerikoak dira orain arteko bidearen aztarnak eta nabarmenak berrikuntzak. Baina oraingo hau ez da, hala ere, aurrekoen jarraipen soila, zenbait berrikuntzaz hornitua. Gehiago ere izan nahi du: helduen euskalduntzean jauzi garrantzizkoa ematen lagunduko digun baliabide anitz eta eraginkorra.

Izan ere, jauzi garrantzizko baten beharrean da helduen euskalduntzea. Alde asko dituen jauzia da eta alor askotan eragingo duena: zenbait programaren berrimoldatze eta uztarketan, euskaltegien eraketa eta autonomian, irakaslearen prestaketan eta autonomian, euskaltegi eta irakasle bakoitzaren programazioetan, ikaslearen partaidetza eta autonomian, ikas-prozesuen mailaketan eta luze-laburrean, metodologian, ebaluaziorikuntzan... Oro har, helduen euskara-irakaskuntza indarberritzea eta areagotzea du HABEk egitasmo, eta helduen eta gizartearen euskalduntzeari eragitea xede.

Eta egitasmo hori oinarri eta ardatz, honako baliabide anitz eta eraginkor hau eratu du HABE: Helduen euskalduntzearen oinarritzko kurrikulua. Eta horixe da lehenengo eta behin kurrikulua: egitasmo baten zerbitzurako sortutako baliabidea. Irakaskuntzan txertatzen da kurrikulua, eta sistema osoaren atal da. Oinarritzko kurrikulu izaki, gaine-

ra, zehaztapen-maila orokorraz dihardu eta zehaztapen-maila xeheagoen beharrean da. Eta kurrikulu izaki, azkenik, programa bat baino gehiago da (horrexegatik, programaz ez baina, kurrikuluz hitz egingo dugu aurrerantzean).

Lau bereizgarri nagusi ditu, beraz, eskuetan dugun oinarriko kurrikuluak. Azal ditzagun banan-banan zehatzago.

- 1 Egitasmo zabal baten baitan kokatzen da kurrikulua, eta egitasmo zabal horren zerbitzuan dago. Kurrikulua ez da ezer, egitasmo horren baitan ez bada. Egitasmoaren helburuak gauzatzeko baliabide den neurrian, beteko du kurrikuluak bere zeregina.

Egitasmoa zabala da: helduen euskara-irakaskuntza berritzea du helburu; are gehiago, etengabeko berrikuntza eragilea martxan jartzea. Egitasmoa ez da amaitzen dokumentu hau argitaratzean. Etengabe berritzen eta aldatzen ari den sistemari erantzun nahi baitio.

2. Sistema osoa da irakaskuntza, eta sistema oso horren atal da kurrikulua. Sistema osoan du eragina kurrikuluak, eta sistema osoak du eragina kurrikuluan. Sistema osoari eragiteko sortzen da kurrikulua; eta malgua izaki, zabalik dago sistema horren eragina bereganatzeko. Beraz, prozesu baten atal ere bada kurrikulua: etengabe aldatzen eta berritzen ari den prozesu baten aldagai eragile.

Sistema horren bihotzean dago irakaslea. Irakaslearen etengabeko berrikuntzak bermatuko du, azken batean, irakas-sistema osoaren berrikuntza.

Eta ikaslea du sistemak ardatz. Irakaslearen premiek agintzen dute irakaskuntzan. Ikasleak ikasten du, azken batean, hizkuntza. Eta hori beti horrela bada, are gehiago da, ikaslea heldua denean. Beraz, ez dago euskararen irakaskuntza berritzerik, ikaslearen heldutasuna eta autonomia landu gabe, ikaslea bere ikastearen lehen egile eta erantzule ez bada.

3. Oinarrikoa da honako kurrikulu hau; oinarrikoa, orokorra eta zabala: euskaltegi bakoitzari dagokio moldatu eta zehaztea, eta irakasle eta ikasle bakoitzari hezurmamitzea.

Ikuspegi horren arabera, prozesu baten lehen urratsa da kurrikulu hau, proiektu baten lehen agiria. Kurrikulua osatu eta zehaztu ahalean joango da prozesua burutuz eta proiektua gauzatuz.

Horrek, jakina, proiektua moldatzea eta ñabarduraz hornitzea dakar berekin; are gehiago, hainbat erabaki hartzea, zenbait aukera hobetsiz eta beste batzuk bigarren mailan utziz. Izan ere, ingurune soziokultural bakoitzak ditu bere bereizgarriak eta beharrak, eta bereizgarritasun eta behar horietara moldatuko da euskaltegi bakoitza, eta horrela eginez gauzatuko du proiektua. Hizkuntza ez baitago irakasterik tokian tokiko aldagaiak kontuan izan gabe.

Bestela esanda, euskaltegi bakoitzak bere autonomia garatu eta bere eskaintza zehazten duen neurrian joango da hezurmamituz, pixkana-pixkana, kurrikulu hau argitaratuz hasitako proiektu eta prozesua. Euskaltegi bakoitzaren egitasmoa eta programazioa izango dira, besteak beste, hezurmamitze horren emaitza.

4. Prozesuaz gain, produktu ere bada kurrikulua: dokumentu bat. Programa baino zabalagoa den dokumentua, hain zuzen. Programaz gain, beraren oinarriak ere azaltzen dituena.

Bi atal nagusi ditu honako kurrikulu honek. Oinarrien berri ematen du lehenengoak. Hiru dira oinarri horiek: ZER ikasten den hizkuntza ikastean, NOLA ikasten duen helduak bigarren hizkuntza eta zer ingurune soziokulturetan (NON, NORAKO eta ZERTARAKO) ikasiko duen. Kurrikuluaren osagai nagusiek osatzen dute bigarren atala. Lau dira osagai horiek: helburuak, edukiak, metodologia eta ebaluazioa.

Horiek horrela, hona hemen "Helduen euskalduntzearen oinarriko kurrikulua", bi ataletan emana, arestian esan bezala.

HIZKUNTZA

Kurrikuluaren oinarrietako bat hizkuntzari berari dagokio. Zer ikasten du bigarren hizkuntzaren jabe egin nahi duen ikasle helduak? Zer da hizkuntza? Abiapuntu modura honela defini daiteke: "Hizkuntza hautazko zeinuen sistema da, giza komunikabiderako erabilia". Definizio honetan bi puntu nagusi bereiz daitezke: sistemarena bata, komunikazioarena bestea.

Hizkuntza sistema bat dela esateak honen alderdi estrukturala azpimarratzen du. Hain zuzen, sistema elementuz osaturik dago; elementu hauek elkarloturik daude, eta osotasunari erreferentzia egiten dioten neurrian lortzen dute beren zentzu eta balio osoa. Hizkuntzaren barruan hainbat sistema edo, hobeto esan, azpisistema aurki daitezke: sistema fonologikoa, morfosintaktikoa, semantikoa...

Baina hizkuntz sistemaren unitate komunikatiboa ez da ez hitza, ezta esaldia ere, diskurtsoa baizik, testuetan gauzatzen dena. Testuek, berriz, bere osotasuna lortuko dute, bere arau propioez gainera, azpisistema fonologiko, morfosintaktiko eta semantikoaren arauak ere betetzen badituzte, beti ere komunikazioa gertatzen den xedeari eta egoerari, kontestuari alegia, egokituz.

Hizkuntz arauen, hiztegiaren eta egituren ezagutza, beraz, beharrezko baldintza da komunikaziorako; baina ez nahikoa. Komunikazioa eraginkorra izan dadin, beharrezkoa da hizkuntz erabilerarako arauak ere ezagutzea; zenbait forma linguistiko halako egoeretan, halako pertsonekin eta komunikazio-xedea kontuan izanik erabiltzen jakitea. Bestela esanda, benetako komunikazioa egoerari eta xedeari egokitu behar zaie.

Hizkuntzaren baitan alde batetik sistema eta bestetik komunikazioa bereiztean, pentsa daiteke komunikazioan erabiltzen den halako entitate bat dela hizkuntza, eta gauza bat dela hizkuntza (sistema) eta bestea erabilera. Erabilera deitzen diogunaren eremu handi bat, ordea, hizkuntza beraren zati da, hautazko zeinuen sistemaren zati. Bi elementuak elkarloturik daude, beraz, eta hizkuntza komunikaziorako sistema dela esan daiteke; zehazkiago, kontestu sozialetan komunikaziorako erabiltzen den sistema.

Hizkuntzaren ikuspegi hori planteamendu komunikatiboaren barruan kokatzen da. Mugimendu hau azken urteotan hizkuntzalaritzan eman den fenomeno unibertsala da. Jakintza-mota askotariko emaitza teoriko eta praktikoen biltzura izaki, ez dago halako metodo zehatz bati lotua. Zabala da planteamendu komunikatiboaren kontzeptua. Izan ere, bere baitara biltzen ditu, irakaskuntza-estrategia jakin bat ez ezik, helburu-multzoa, hainbat metodologi printzipio, irakaskuntza-teknika tipiko batzuen deskribapen xehea, eta abarrak.

Planteamendu komunikatiboaren ikuspegi berriak ez du aurrekoa ukatzen; osatu baizik. Eta bi ikuspegiaren arteko lotura azaltzeko, egokia dugu, lehen momentuan, "continuum"-aren irudia erabiltzea. Hala, lehen puntu batez irudikatzen zena orain lerro batez adieraziko da. Eta ikaskuntza eta irakaskuntza, esaterako, lerro horretan zehar mugituko dira, batzuetan mutur batetik hurbilago eta besteetan urrunago, baina beti biak erreferente izanik. Bigarren momentuan, berriz, harreman dialektikoan ipini beharko ditugu, sintesi berri eta dinamiko bat helburu, berez kontrajarriak diruditen osagaiak (tesia eta antitesia): ezagutza eta erabilera, ezagutza formala eta ezagutza instrumentala, emaitza eta prozesua...

EZAGUTZATIK ERABILERARA

Irakaskuntzaren praktikan, nahiz eta agian teorian ez, nahikotzat jo da hizkuntza ezagutzea, hizkuntza hori komunikazio-egoeretan erabiltzeko. Honelako planteamenduaren jarraitzaileek oso gogoko dituzte ariketa kontrolatuak eta arauen azalpenak. Baina ez dirudi hori aski duenik ikasleak hizkuntza egoera errealean ongi erabili ahal izateko. Ikasleari ez baitaia eskaintzen komunikazio-egoera errealez baliatzeko aukerarik eta, ondorioz, ez zaio behar bezala

HADE

oinarriak

WEEK

Kurrikulu guztiek dituzte beren oinarriak, batzuetan agirian eta bestetan ezkutuan. Kurrikulu guztien baitan daude oinarrizko zenbait galdera eta oinarrizko hainbat erantzun. Nolakoak diren galderak eta erantzunak, halakoa izango da kurrikulua ere.

Euskara irakasten eta ikasten ari diren helduentzat egindako kurrikulu honen oinarrian ere badaude oinarrizko zenbait galdera eta erantzun. Eta horien berri ere eman nahi dugu ondoren. Hala, ikuspegi zabalagoz eta osatuagoz jarduteko aukera izango dugu irakasleek, ikasleek eta helduen euskara-irakaskuntzan partaide garen guztiok.

Hiru oinarrizko galdera daude funtsean kurrikulu honen iturburuan: ZER ikasten da hizkuntza ikastean?; NOLA ikasten du helduak hizkuntza hori?; NON, ZEIN KULTURAREN baitan, ZERTARAKO ikasten da?

Hona hemen banan-banan.

laguntzen ezagutzak erabiltzeko trebetasunak lantzen. Dena den, aski ez izateak ez du esan nahi hizkuntz ariketak baztertu behar direnik. Bi osagaiak hartu behar dira kontuan. Hala, lehen batik bat ezagutzaz hitz egiten bazen, orain erabileraz ere hitz egin beharko da; lehen ezagutza formala bazen nagusi, orain ezagutza instrumentala ere hartu beharko da kontuan.

SISTEMA LINGUISTIKO SINTETIKOTIK ANALITIKORA

Ikuspegi sintetikoaren arabera, unitate linguistikoz osaturiko corpus bat litzateke hizkuntza. Elementuz elementu sistema osoa sintetizatzen behartua legoke, osagarriak edota erregelak metatuz, egunen batean benetako hizkuntzaren ezagutzaraino helduko delakoan.

Sistema linguistikoa prozesatzeko bide analitikoaren arabera, ikasleari bloke naturalak eskaintzen zaizkio (funtzioak, testuak...). Horietan islatuko lirateke forma linguistikoen erabilera erreala. Ikaslearen zeregina bloke horien osagai semantikoak eta gramatikak analizatzea litzateke. Prozesu honetan, hizkuntzaren analisi-mota bat burutu beharko du ikasleak, kontzienteki zein oharkabeaz; ez aurretik emandako erregela batzuen sintesia.

Planteamendu komunikatiboak bide analitikoaren aldeko apustua egin du. Badago, ordea, arriskurik. Izan ere, gerta daiteke "bloke naturalak" deitu ditugun horiek, komunikazioaren azken helburu izan ordez, edukiei begira planteatzea, eta hauek gertatzea azken batean ikaskuntzaren helburu, bide sintetikoari egozten zitzaion akats berean eroriz. Irtenbide posible bat ikaskuntzaren bi alderdiak kontuan hartzea da: bata komunikazioari dagokiona (informazioaren elkartrukea, hizkuntza komunikazio-egoera errealean erabiltzea...) eta bestea hizkuntz sistema eskuratzeara (jardura komunikatiboak bete ahal izateko sortzen diren hutsuneak gainditzeko sistema linguistikokoaren zatiak aztertzea).

PRODUKTUTIK PROZESURA

Hizkuntzen irakaskuntzan ohikoa izan da produktuari erreparatzeko joera. Ikasleek bukatu eta osatu duten ekoizpenari begiratu izan zaio, idazlanak zuzenduz, ariketei nota jarritz, ahoskera zainduz... Eta bigarren mailan geratu izan ohi da ikasleek ekoizpen horretara iristeko egin behar izan duten bidea.

Ikuspegi berriaren arabera, ordea, funtsezkoa da ikas-prozesua ere aintzat hartzea. Helmugak adinako garrantzia du bideak berak. Eta bidegintza horretan ezinbestekoa da ikaslearen partehartze eta protagonismoa. Hala, ikasleari begira planteatzen da irakaskuntza, psikologia kognitiboaren emaitzak kontuan hartuz, ikasleak hizkuntza bereganatzeko eta erabiltzeko estrategia egokiak eskura ditzan.

ESALDITIK TESTURA ETA PRAGMATIKARA

Gramatika tradizionala hitzaren hizkuntzalaritza izan zen; ondorengo korranteak, aldiz, esaldian oinarritu dira. Planteamendu komunikatiboaren barruan ere, kontzienteki batzuetan, oharkabeaz bestetan, esaldia izan da hizkuntz unitate.

Baina gero eta gehiago ari dira zabaltzen, ordea, esaldiaren hizkuntzalaritzaren mugak. Izan ere, batetik, hizkuntzaren zenbait elementu gainditu egiten dute esaldiaren barrutia; esaterako, izenorde anaforikoek, lokailuek, testu-antolatzaileek, aurrerabide tematikoak... eta, bestetik, testuaren ezaugarri pragmatikoek ere esaldiaren ikuspegi gainditzan dute. Horrela, bada, bi ideia joan dira nagusitzen: a) badira zenbait hizkuntz fenomeno gramatikaren kontzeptiotik esplikaziorik ez dutenak (testualitatea) eta b) gaur egun ezin da mugatu gaitasun linguistikokoaren azter-

ketara, baizik eta eguneroko komunikazioan erabiltzen den hizkuntzara jaitxi behar da (pragmatika).

Kohesioa eta koherentzia dira testuaren eta testualitatearen osagai nagusiak. Kohesioak testuari barne-lotura ematen dio, honako hauek baliatuz: erreferentzia (anafora, katafora), ordezkapen lexikala (sinonimoak, antonimoak), lokailuak, elipsia eta errepikapena... Koherentziak testuari barruko batasuna ematen dio, horretarako erabiliz edukiaren eta helburuaren adierazpen eta interpretazio antolatua (edukiaren eskemak), aurrerabide tematikoa (mintzagaia eta iruzkina), informazio zahar eta berriaren antolamendua, informazioaren pertinentzia...

Pragmatikak hizkuntzaren erabilera du bere esparrua. Kontestu jakin batean hizkuntza nola sortu eta ulertzen den aztertzen du. Bi alderdi nagusi ditu pragmatikak; bata, hizkuntzarekin lotua (pragmalinguistika eta pragmatika testuala) eta bestea ingurunearekin lotua (soziopragmatika). Lehenengoa diskurtsoaren eta testuaren analisiarekin loturik dago eta bere esparrukoak dira hizketako egintzak (lokuziozkoak: zer esaten den; ilokuziozkoak: zerbait esatean zer egiten den; perlokuziozkoa: zer lortzen den), inplikatura (enuntziatuaren esanahi testuala ulertu eta kontestuaren bidez zentzua inferitzea), kooperazio-printzipioa, funtzioak... Soziopragmatika soziolinguistikarekin dago erlazionatua eta bere eremua zabala, konplexua eta ugaria da oso. Bere edukia adieraztea ez da erraza. Dena dela, lau faktore soziokultural bereiz daitezke, oro har: 1) sozio-kontestualak, 2) egokitasun estilistikoari dagozkionak, 3) kulturalak eta 4) hitzezkoa ez den komunikazioari buruzkoak.

Horiek guztiak kontuan hartuta, kurrikulu-dokumentu honetan bitan banatuta datoz eduki pragmatikoak: 1) testu-motei dagozkienak (testua) eta 2) testuinguruari dagozkionak (kontestua). Eta lehenengoetan, testu-erak (generoak) eta horien ezaugarriak bereizten ditu; eta bigarrenetan, berriz, komunikazioaren xedea, formaltasun-maila, komunikazio-era, komunikazio-egoera, hizkera...

ZUZENTASUNETIK EGOKITASUNERA

Hizkuntz komunikazioak hiru osagai horiek izaki (esaldia, testua eta testuinguru), hiru baldintza bete beharko ditu hizkuntzaren erabilera egokiak: zuzena izan beharko du (esaldiaren gramatikari dagokiona), testuala (testualitateari dagokion modukoa) eta pragmatikoa (testuinguruari dagokiona). Hiru tasun horiek ez dira elkarren aurkako; elkarren osagarri baizik. Horrela, planteamendu komunikatiboaren arabera, zuzentasunaren ikuspegi hertsia zabaldu egiten da eta beste dimentsio bat hartzen du, osoagoa eta globalagoa: egokitasunarena.

GAITASUN LINGUISTIKOTIK GAITASUN KOMUNIKATIBORA

Chomsky-k "gaitasuna" eta "performantzia" kontzeptuak bereizi zituen. Jatorrizko hitzunik duen ezagutzari "kompetentzia" edo "gaitasuna" deitu zion; eta hitzun bakoitzak gaitasun horretaz baliatzeari, "performantzia". Performantzia gaitasuna praktikan jartzea da, eta hainbat faktore sartzen da bere esparruan: psikologiko, sozial, kultural, etab.

Gaitasun linguistikoa eta hizkuntzaren ezagutza berdintzea izango litzateke, hain zuzen, hemendik hizkuntz irakaskuntzarako ateratzen den ondorioz garrantzitsuena. Hots, ikasle batek hizkuntza menderatzen duela esan ahal izateko, nahikoa da hizkuntza horren sistema gramatikalaren ezagutza izatea.

Chomsky-k kritika gogorak jasan zituen, hizkuntzaren erabilpenari dagozkion zenbait faktore gaitasun kontzeptuan sartu ez zituelako.

Horien ustez, hizkuntza ikastea ez da bakarrik esaldi zuzenak sortzen jakitea; hori ez ezik, esaldi horiek komunikazio-egintzetan nola erabili jakitea ere bada. Horrela, gaitasun linguistikorekin ordez, gaitasun komunikatiboaren kontzeptura jotzen da.

Canale eta Swain izan dira kontzeptu hori garatu duten autore klasikoak. Horien ereduaren arabera, lau azpigai-

tasun hartzen ditu gaitasun komunikatiboak:

- ⇒ Gaitasun linguistikoa: hizkuntza baten arauei jarraituz osa daitezkeen eta beren esanahi konbentzionala duten adierazpen egokiak sortu eta interpretatzeko gaitasuna.
- ⇒ Gaitasun soziolinguistikoa: komunikazio-egoerari egokitzeko abilezia.
- ⇒ Gaitasun diskurtsiboa: testuak taxutzen eta interpretatzen estrategia egokiak erabiltzeko gaitasuna.
- ⇒ Gaitasun estrategikoa: hizkuntzaren erabiltzailearen kode-ezagutzan egon daitezkeen hutsuneak edo beste arrazoi batzuk direla eta gerta daitekeen komunikazioaren etena konpontzeko, hitzezko eta hitzik gabeko komunikazio-estrategiak erabiltzea.

Honako kurrikulu honek ere, eredu horretan oinarritu eta zertxobait egokitu eta osatuz, lau gaitasun hartu ditu kontuan: 1) gaitasun linguistikoa, 2) gaitasun testuala, 3) gaitasun soziopragmatikoa eta 4) gaitasun estrategikoa. Eta lau gaitasun hauen arabera moldatu ditu, mailaz maila, programaren hiru atal: 1) helburuena, 2) edukiena eta 3) ebaluazio-irizpideena.

Hala, lehenik, gaitasun komunikatiboaren helburuak zedarritu ditu oro har; eta ondoren, azpigaitasun bakoitzarekin. Edukietan, berriz, hiru eduki-mota bereizten ditu: 1) eduki pragmatikoak (testua eta kontestua), 2) eduki formak (adierazpide linguistikoak, adierazpide testualak eta adierazpide pragmatikoak) eta 3) eduki psikolinguistikoak (azpitrebetasunak eta estrategiak). Eta ebaluazio-irizpideetan, hiru sail hartzen ditu kontuan: 1) gaitasun linguistikoa-ri dagokiona: zuzentasuna, 2) gaitasun testualari dagokiona: diskurtsoaren antolaketa eta 3) gaitasun soziopragmatikoari dagozkionak (egokitasuna, aberastasuna eta jarioitasuna). Ebaluazio-irizpideetan ez ditu gaitasun estrategikoari dagozkienak kontuan hartzen, horiek maila bakoitzeko ikasprozesuaren amaierakoak direlako. Esan gabe doa, noski, gaitasun horri dagozkion irizpideak ere kontuan hartu beharko direla ikasprozesuaren joanean.

ALDERDI PSIKOPEDAGOGIKOA

NOLA ikasten du helduak bigarren hizkuntza? Nola egiten da hizkuntza horren ezagutzaren jabe (erabiltzaile)? Nola lortzen du bigarren hizkuntza horretan komunikatzea? Galdera horiek eta galdera horiei emandako erantzunak ere euskalduntzearen kurrikuluaren oinarri-oinarrian daude. Horien berri ematera goaz labur-labur.

Hezkuntza psikologiaren ekarpenek azaltzen dute ikaskuntza nola gertatzen den eta zein diren berau ahalbidetuz duten baldintzak. Oinarri psikopedagogikoz arituko gara. Izan ere, ikaskuntza nola gertatzen den argituko digute alde batetik (psikologia beraren eremua), eta irakaslearen zeregina edo eskuhartzea zein irizpidetan oinarritu behar den azalduko (pedagogia eta didaktikaren eremua) bestetik.

IKUSPEGI KONSTRUKTIBISTA

Ikaskuntzaren ikuspegi konstruktibistak argi diezaguke nola ikasten duen helduak bigarren hizkuntza eta nolakoa beharko lukeen izan irakaslearen zereginak.

Ikaskuntza eraikitze-prozesu bat da. Are gehiago, barne-prozesu bat, edukiak edota informazioa jasotzerakoan martxan jartzen den barne-prozesu bat. Honen arabera, hizkuntza ikasteak ez du edukien metatzea esan nahi, hau da, edukiak bata bestearen ondoren pilotzea eta biltzea. Izan ere, jasotzen den informazio berri bakoitzak alde aurretik eraikia dagoen eskema linguistikoa aldatu egingo du, berri bat sortuz edo berreraikiz.

Ikaskuntzaren ikuspegi horrek eskema-eraikuntza du ardatz eta, berorren arabera, oinarritzko eskema psikologikoa honela laburbil daiteke: hasierako oreka - desoreka - oreka berria.

Pertsona orok ditu munduari buruzko ezagutza jakin batzuk, osoak zein zatikatuak, eta batzuetan ere faltsuak izan daitezkeenak; baina nola-halako "ziurtasun kognitiboa" ematen diotenak. Ezagutza berriak eskuratuko baditu, ezinbestekoa izango du alde aurretikako horiek ordezkatu, berri zein osatzea. Hau da, aldatzea; ikasketa esanahidunak, ikasketa errepikakor edo mekanikoarekin alderatuz, aldaketa dagoela suposatu beharko baitu. Eta aldaketa hori gerta dadin, beharrezko du norbanakoak "ziurtasun kognitibo" hori galtzea, dituen ezagutzak kolokan jartzea eta, ondorioz, desoreka sentitzea. Baina ez da nahikoa. Guztiz beharrezkoa du, ondoren oreka berri batera iristeko, ziurtasun kognitibo berri batera heltzea, ezagutza berriak eskuratuz.

Ikuspegi honek azaltzen du, besteak beste, ezagutzen eskurapena edo ikaskuntza eduki berriari esanahia lotzen zaionean gauzatzen dela. Eta hori hiru baldintza hauek betetzean gertatzen da:

1. Batetik, lotura logikoa izan behar dute bigarren hizkuntzaren edukiek. Barne-egituraren arabera antolatuko dira, ahalik eta argien eta lotuen ikusteko moduan. Lehen baldintza honek, jakina, ondorio batzuk ditu: 1) hizkuntz edukiek multzotan biltzea eskatzen du, 2) multzo bakoitza komunikazio-gai batekin eta eginkizun batekin lotzea eta 3) multzo bakoitzak besteekin lotzeko heldulekurik izatea, langai guztiek elkarrekin uztartzeko modua izan dezaten.
2. Bigarren baldintzak, berriz, eduki berriak zaharrekin lotzeko aukera eman nahi dio ikasleari. Lotura psikologikoa izan behar dute hizkuntz edukiek: ikaslearen aurreko eskema-sareetan txertatzeko modukoak izango dira eduki berriak eta lehendikako ezagutzekin uztartzeko modukoak. Horretarako, beharrezkoa da ondo aukeratzea: ikasleen esperientziaren arabera izan beharko dute komunikazio-gaiek eta horiek erabiltzeko egoerak; aldi berean, berez lotzen zailak diren edukien lotura-modukoak ere izango dira gai eta egoera horiek.
3. Hirugarren baldintzak, azkenik, ikaslearen jarrerarekin du zerikusia. Ikasteak eraikitzea esan nahi badu, ikaslearen eskuhartzea eta protagonismoa berebizikoa da. Eraikitzearen sujetoa ikaslea da, eta irakasleak ez dezake zeregin horretan inolaz ere ordezkari. Beraz, aldeko jarrera izan beharko du ikasleak, ezagutza horiek erai-

kitzeko ahaleaginean. Eduki zaharrak eta berriak elkarrekin lotzeko eta egitura berrietan berreraikitze gogo bizia izan behar du ikasleak. Horretarako, biziki zainduko da ikaslearen partehartzea irakaskuntza moldatzean; haren esperientziez eta beharrez aparte, kontuan hartuko dira haren erabaki, iritzi eta erantzukizuna ere.

Ikuspegi eraikitzailearen haritik, irakaskuntzari eta irakasleari bereziki, eraiketa-prozesuarekin sinkronizaturik aritzea eskatuko zaio. Ikasleak jasoko duen laguntza emankorra eta egokia izatea ezinbestekoa da eta oinarriko baldintza bat bete behar du: egoerara eta ikaslearen adimen-jarduerara egokitzea.

Bestela esanda, hiru ezaugarri nagusi ditu aipatu zeregin horrek:

- a) Aurrezagutzak. Ikas-prozesua martxan jarri aurretik, hau da, eguneroko jardunaren egituraketan, irakasleak kontuan izan behar du zein egoeratan dagoen ikaslea, zer dakien, zein den bere ezagutza-maila; eta ondoren, bertatik abiatu. Kontuan hartuko du gaiaren ezagutza, alde aurretikako eskarmentua, bereganatutako ideiak... eta, besteak beste, jakin beharko du ikasgai berria esanguratsuki integrazeko prestatu dauden ikasleak, eduki berri bat ikasteko baldintza egokienetan aurkitzen diren eta eskema berriak garatzeko une horretan duten ezagutza-maila egokiena den.
- b) Eduki berriak zentzua behar du izan ikaslearentzat eta, halaber, logikoa eta koherentea izan; egoera honek bideratuko baitu ikasgaia esanahiaz bete eta adimen-estrukturan integrazera. Emaitzak, horrela gertatuz gero, espero zitekeenak izango dira eta ezagutza-eskemen gaitasuna areagotu egingo da. Baina ikasgaia arbitrarioa denean, nahasia eta aurrezagutzekiko inolako loturarik gabea, oso zail egiten zaio ikasleari dituen ezagutza-eskemetan integratu eta esanahia ematea. Ondorioz, buruz ikasi beharko du edukia, mekanikoki eta ulertu gabe, eta erabilera txikia izango du, horrexegatik, ondorengo ikasketetan.

Jarduera batek, zentzua izan dezan, behar-beharrezkoa du zenbait baldintza betetzea. Hiru, gutxienez:

- Ikasleari ezinbesteko zaio zer egin behar duen jakitea (zer den, zertara datorren, zerekin jarri harremanetan...); horrela bakarrik jarraituz indarrean gaiarekin bat datozen aurrezagutzak. Horren bitartez argi izan behar du ikasleak zein den lortu nahi den helburua, zein baldintzatan arituko den eta eginkizun horretan zein izango den bere rola, bere egitekoa.
- Eduki baten erakargarritasunak zeresan handia du ikasketa esanahiaz hornitzeko garaian. Ikasgaia erakargarria denean, beharrei erantzungo dielako, ikaslearen interesekin bat datorrelako edota dena delakoagatik, efektu biderkatzaile bilakatzen zaigu ikasprozesuan.

Baina kontuan hartu behar da beharrak, interesak, nahiak eta gabeziak ikas/irakasprozesuan bertan ere sortu, piztu eta eguneratzen direla. Horrek planteamendua areagotzea eskatuko du: ez da nahikoa izango jarduera baten oinarrian dauden asmoak eta helburuak azaldu eta ezagutaraztea; ikasleak bere egin behar du planteamendua, eta ahal den neurrian plangintzan, egituraketan, bilakaeran eta emaitzetan partaide izan.

- Ikaslea lor dezakeenaren aurrean jarri behar da, hau da, lortzeko moduko erronkak eskaini behar zaizkio. Neurria da arazoa: dakienetik edota eman dezakeenetik eskatzen zaionera doana, berriro ere bere interesguneak eta ahalmenak kontuan hartuz. (ZDP edo Garapen Hurbileko Esparrua, Vigotsky)

- c) Ikasketa esanguratsua izan dadin, irakasleak ikaslearen motibazioa lortu eta ziurtatu behar du, aldeko jarrera ikasgai berriak aurrezagutzetan oinarritu eta berregituraketak eraikitzeke.

Ikaslearen esku geratzen da dakienetik abiatuz uztardura hauek egitea eta ikasgai berrien bidez ezagutza—eske- ma berriak garatu eta aberastea.

Baina dena delakoagatik ikasle batek eduki bat buruz ikasi nahiko balu, mekanikoki, alferrikakoak lirateke irakaslearen ahaleginak ikasleak ikas-prozesua esanguratsuki bidera eta gara lezan; ez baitago bere eskuetan prozesua

zein eratan gauzatuko den erabakitzea.

Interesa ez du ikasleak berezkoa, ez dugu bere horretan aurkituko: sortu egin behar da, piztu eta ondoren mantendu: lanketa-prozesu bat eskatzen digu. Bilakaera honetan eskarmentua dugu euskarririk onena: badago ikasterik eta ikasi egiten da. Horrela, ikasi nahi eta ikasi egiten duenean, esperientziak bere buruarekiko irudi baikorra eskaintzen dio eta autoestimua indartu. Egoera honek ikasten jarraitzeko eta erronka berriei aurre egiteko guttiz indartzen du ikaslea.

Beraz, konstruktibismoan oinarrituriko ikaskuntzak ikasleari eskuhartze aktiboa eskatzen dio, etengabe adimen-jarduerak egiten aritzea. Baina zein urrats ematen ditu ikasleak bigarren hizkuntzaren ikas-prozesu horretan?

TARTEKO HIZKUNTZA

Hizkuntzaren ikaskuntzan bi ezagutza-mota eskuratzen dira: instrumentala eta formala. Bi ezagutzak uztartzearen aldeko apustua dago honako kurrikulu honen oinarrian. Apustu hori egitera bultzatzen gaituzte, batetik, helduak euskalduntzean ematen ari den jardunak eta, bestetik, hizkuntzen irakaskuntzan gaur egun osatzen ari diren teoriarik sendoenek.

Ezagutza instrumentala eta formala "continuum" bateko bi mutur dira. Bi mutur horien artean kokatzen da hizkuntzaren ezagutza eraikitze modua, batzuetan mutur batetik gertuago, besteetan urrunago, hainbat aldagairen arabera, baina beti ere etengabeko elkarreraginean.

Hizkuntzaren ezagutza instrumentala estu lotua dago, ezinbestez, ikaslearen eta inguruko solaskideen arteko harremanekin. Gizarte-egoera batean hezurramitzen dira harreman horiek; eta gizarte-harreman horien baitan jarduten du ikasleak bigarren hizkuntzan, esanahiak negoziatuz komunikazio-lanak burutzen.

Jakina da, bestalde, nola jokutzen duen ikasleak komunikazio-egoera horietan. Batetik, solaskidearen laguntza behar izaten du, zenbait mezu ilun edo ezezagun ulertzeko; eta halaxe egiten du, besteak beste, ulertu ez duena errepikatuz edo zuzenean argibideak eskatuz. Berak erabilitako hizkera zenbateraino den ulergarri eta eraginkor ere jakin nahi izaten du ikasleak; eta jakin nahi horren arabera izango da bere hizketa ere, askotan galderaz betea ("ulertzen?"). Azkenik, solaskidea ere ikaslearen egoerara moldatzen da, bigarren hizkuntza erraztuz, aldatuz eta hizketa berezia erabiliz; eginahal horren ondorio dira esaldi laburragoak, hiztegi aukeratua, ahoskera garbiagoa, hizketa pausatua, sinonimoen errepika...

Hizkuntzaren tratamendu formala ere beharrezkoa da bigarren hizkuntzaren ikaskuntzan. Hizkuntzaren ezagutza formala lantzeak, berriz, berekin dakar prozesu kognitiboak bultzatzea eta bigarren hizkuntzaren alderdi formalen ezagutza-eskemak eraikitzen laguntzea; era berean, eskema horien etengabeko berreraikitzearen aurrean jartzen gaitu; berreraikitze horiei esker joango da ikaslea, hain zuzen, han-hemenka eta loturarik gabe ikasitakoa eratuz eta uztartuz.

Hizkuntzaren bi ezagutza hauen eskuratze- edo berreraikitze-prozesu horretan ikasleak egiten dituen urratsen adierazle tarteko hizkuntza dugu. Azken produktura heldu bitarteko uneek osatzen dute, tarteko pausoak, hain zuzen ere. Selinker-ek eta Corder-ek 60 eta 70eko hamarkadetan taxututako kontzeptu hauek argi dezakete nola eraikitzen duen hizkuntz ikasle batek ezagutza berria; hizkuntza berria, alegia.

Honela definitzen da tarteko hizkuntza: "bigarren hizkuntza edo hizkuntza arrotza ikasten ari denak erabiltzen duen hizkuntza da. Ikaslearen lehen hizkuntzaren eta ikasten ari denaren arteko sistema baten itxura du. Tarteko hizkuntza, ikasleak aurreratu ahala, ikasi beharreko hizkuntzaren gero eta antz handiagoko bilakatzen da. Hala ere, ikasleak oraindik ere erabiltzen ditu tarteko hizkuntzaren elementuak, ez lehen hizkuntzarekin, ez ikasten ari denarekin zuzenean loturik daudenak" (UZEI 1987:100).

Tarteko hizkuntzaren ezaugarriak honako hauek dira:

- a. Sinpletasuna. Tarteko hizkuntza sistema sinpletua da xede-hizkuntzaren sistemarekin alderatzen badugu, bai arau morfosintaktikoen eta pragmatikoen konplexutasunari dagokionez, eta baita lexikoaren zehaztasun eta ugaritasunari dagokionean ere. Ikasleek beren jardunean hizkuntz sistema sinpletu, laburtu, murriztu egiten dute, hizkuntzari buruzko beren hipotesiak forma errazetara eta komunikazioa bideratzen dutenengana mugatuz.
- b. Sistematikoa. Tarteko hizkuntzak sistema linguistiko berezkoa osatzen du, osotasuna ematen dioten arauekin eta xede-hizkuntzarenetik bereziak.
- c. Dinamikoa. Ikas-prozesuan aurrera egin ahala eta arau berriak, hitz berriak eta abar bereganatzen dituen neurrian, sistema aldatzen joaten da. Esan daiteke prozesuaren maila bakoitzak bere tarteko hizkuntza duela eta maila guztiek tarteko hizkuntzen continuum bat osatzen dutela.
- d. Fossilizazioa. Tarteko hizkuntza fossiliza daiteke. Ikasleek aipatu continuum horretan geldiuneak izan ditzakete, xede-hizkuntzara iristeko oztopo gertatuz.
- e. Aldakortasuna. Ikasleak beren baliabide linguistikoak egoera eta era askotara erabiltzen ditu. Batzuetan, ataza-motak, solaskideak, egoerak baldintza dezakete ikaslearen ekoizpenean zuzentasun-maila. Beste batzuetan, berriz, araua ikasi bai baina ez bereganatzearen ondorioz izango ditu hutsuneak.

Tarteko hizkuntza eta erroreak

Tarteko hizkuntzaren ildotik ere ikusi eta aztertu behar dira ikasleek egiten dituzten erroreak, xede-hizkuntzaren sistema barneratzen ari diren adierazpen gisa, eta ez ikaskuntza ezaren adierazle.

Erroreen arazoa beti egon da irakasleen kezka nagusien artean. Hala ere, erroreen ikuspegian bada aldaketarik. Erroreak aztertzerakoan bi hizkuntzen konparaziotik abiatu ordez, hau da analisi kontrastibotik* egin ordez, ikasleen ekoizpen erreala dira abiapuntu eta aztergai. Honako urrats hauek burutzen dira erroreen analisia egiteko:

- erroreak beren kontestuan identifikatu;
- sailkatu eta deskribatu;
- aztertu, errore bakoitzaren iturriak, mekanismoak edo estrategia psikolinguistikoak (ama-hizkuntzaren interferentzia beste estrategia bezala kontsideratuz) arakatu;
- erroreen larritasuna neurtu eta neurri zuzentzaileak hartu.

Ikuspegi honek erroreen ikuspegi berri bat dakar berekin: batetik, errorea hizkuntzaren eskurapenera iristeko ezinbesteko pausoa da; eta, bestalde, bide horretan ikasleak daraman prozesuaren adierazle. Hizkuntza ikasteko bidean derrigorrezko pasadizoa izanik, nolabait beldurra galdu zaio erroreari; eta planteamendu komunikatibo ausartenetan, ikaslea ekoizpenera bultzatzen da baliabide urriekin ere.

Dena den, arreta berezia eskaini behar zaio fossilizazioaren fenomenoari. Ikasleek, arestian esan bezala, beren ikas-prozesuan, xede-hizkuntzaren sistema eskuratzera iritsi aurretik, geldiuneak izan ditzakete. Horregatik, fokalizazioaren beharra; horregatik, hizkuntzari erreparatu beharra. Horregatik, baita ere, ikasleari, aurrera egingo badu, bere tarteko hizkuntzatik gertuko inputa eskaini beharra, input ulergarri eta esanguratsua, alegia.

Bukatzeko, aipatuko ditugu irakasleari baliagarri eta lagungarri gerta dakizkiokeen hainbat orientabide, beti ere kontuan harturik irakaslea dela ikasleari ezagutza eraikitzen lagunduko dion elementu garrantzikoetako bat. Orientabide horiek ikaskuntzaren eta eskuhartze didaktikoaren ikuspegi berreraikitzailearen eta helduen euskalduntzearen kurrikulu honen beste oinarri ere erreparatuz zerrendatu dira, eta eguneroko jardunean eragin zuzena izan dezakete.

- Hizkuntza bat ikasteak esperientziako datuen barne-lanketa esan nahi du. Ikasleen arteko barne-lanketa horretako aldeek ikas-estilo desberdinak sortaraziko (ekarriko) dituzte.
- Ikasle guztiak ez dira berdinak.
- Ikaskuntzaren eskema kognitiboak ez dira unibertsalak; eskema hauek heziketa, kultura eta norbanakoaren aldagaien baitan sortzen dira.
- Ikasleak beren buruaren gaineko deskribapen- eta sentimendu-multzo antolatu batekin sartzan dira ikaslanean, eta horrek badu eraginik ikas-prozesuan.
- Hizkuntz ikaslea bere ama-hizkuntzan gaitasun estrategiko baten jabe da, munduarekiko ikuspegi bat dauka eta ezagutza-multzo baten jabe ere bada. Berorietara jotzen du komunikazio-egoera eta ikas-egoera berrietan.
- Ikaslearen iragan esperientziak, aldez bederen, ikasleak bere buruaz duen uste eta estimazioa eratzen eta integratzen du.
- Bere buruaz uste eta iritzi ona duten ikasleek errazago ikasten dute, eta ez dira hain mehatxaturik sentitzen ikas-giroan eta aldaketa-prozesuetan.
- Ikasle helduek eskubidea dute kurrikulari buruzko erabakietan parte hartzeko; esate baterako, edukiak hautatzerakoan edota ikas-jarduera eta atazak aukeratzeko orduan.
- Adimen-estrategia (estrategia kognitibo) multzo bat martxan jartzeak defini ditzake ikas-estiloak. Era berean, begien bistakoa da irakaskuntza-metodoek badutela eragina ikasteko estiloetan; ikasle batek berak hainbat estrategia desberdin jar baitezake martxan, teoriarik ikas-estilo desberdinei dagozkienak.
- Ikasle helduek hobeto ikasten dute edukiak beren esperientzia eta ezagutzekin zerikusia dutenean.
- Ikasle helduek hizkuntzak ikasteari buruzko ideia finko batzuk dituzte, eta ideia horiek gogoan hartu behar dira hizkuntz programak prestatzean.
- Ikasten ikasteko trebetasunak landu dituzten ikasle helduak dira ikaslerik efektiboena.
- Helduek gehiago ikasten dute bizitzan helburu hurbil-hurbilak (edo ez oso urrunak) lortzeko, ikaste hutsagatik baino.
- Ikasle-irakasleen arteko elkarreraginean aintzat hartzekoak dira: a) ikaslearen sentiberatasuna eta emozioak; b) jakin-mina eta informazio-egarria; c) beren autoestimua eta nortasunaren ezaugarri nagusiak.
- Ikaskuntzan autonomia garatzea: horra hizkuntza arrotzaren irakaskuntzako helburu nagusienetako bat.
- Estrategiak erabiltzen ikasteak ikaslea autonomiaren bidean jartzen du.
- Helduek ikasteko estilo eta estrategia desberdinak dituzte, eta horiek denak gogoan hartu behar dira ikas-programak prestatzean.
- Beren burua neurtzeko eta beren burua ebaluatzeko trebetasunak garatu dituzten helduak dira ikaslerik efektiboena.
- Ikasleei ikasten laguntzea informazioa eskaintzea, atazak eragin eta gero zuzentzea baino gehiago da. Laguntzea da ataza egiten ari den ikaslearen ondoan egotea, honek behar duenean; ondorioz, irakaslearen laguntza ikaslearen lanaren osakin bat da, berarekin lankidetzan aritzea eta ikasleek egiten dutenari

*Analisi kontrastiboaren arabera, bigarren hizkuntza ikasterakoan sortzen diren erroreentz iturri nagusia, agian bakarra, ikaslearen ama-hizkuntzak eragindako interferentzia da. Interferentzia edo transferentzia negatibo hau gertatzen da bi hizkuntzen egiturak diferenteak direnean; elkarren antzekoak direnean, aldiz, transferentzia positiboa ematen da, erraztu egiten da. Ikuspegi honetatik erroreak barkaezinak dira; ohitura txarrak eskuratzearen seinale baitira. Beraz, errepikapenaren bidez, errorerik gabeko hizkuntz eskurapenaren alde apustu egiten du.

unean-unean erantzuteko modu bat. Horregatik, bere kabuz egingo lukeenaren mugez harantzago eramatea da ikasleari laguntzea; hau da, elkarrekintzan eta elkarrekiko harremanen bitartez ikasleak bere kasa lortu ezingo lukeena eskuratzea. Hitz batean, Vigotsky-k eta haren jarraitzaileek "garapen hurbileko esparruan" jartzea deitu dutena, alegia.

ALDERDI SOZIOKULTURALA

Hizkuntzaren alderdi soziokulturalean du kurrikulu honek bere oinarrietako bat. Ezinbesteko oinarria da, beste biak bezalaxe.

Hizkuntzaren alderdi soziokulturalaz hitz egitean, bi errealitate ditugu gai, soziokultura hitzak berak aditzera ematen digunez: 1) hizkuntzaren alderdi soziala eta 2) hizkuntzaren dimentsio kulturala.

1. ALDERDI SOZIOLOGIKOA

Gero eta indar handiagoa hartzen ari da soziolinguistika. Eta hizkuntzaren alderdi eta alor asko aztertzen ditu: hizkuntzaren zeregin soziala, eleaniztasuna, diglosia, hizkuntz jarduerak, hizkuntzaren hautaketa, nola aldatzen den hizkuntza bat eta nola irauten duen, hizkuntz planifikazioa eta normalizazioa, zer hizkuntza erabili hezkuntzan... Esparru zabal horretatik, normalizazioa eta motibazioa aipatuko ditugu hemen.

1.1 Normalizazio soziala

Euskal Herriaren egoera soziolinguistikoari gainbegiratu bat ematea aski da euskararen egoeraz jabetzeko. Hiru hizkuntza dituen gizarte bat osatzen du gaur Euskal Herriak. Eta euskara, berezkoa izanik ere, ez da herritarren hizkuntza komuna, frantsesa Iparraldean eta gaztelania Hegoaldean baizik; euskara, berriz, euskal herritarren laurden batek besterik ez du ezagutzen. Aitortu beharrekoak dira, hala ere, euskararen eskurapena eta presentzia areago dadin egindako ahaleginak. Euskara biziberritzeko hizkuntz politikako neurriek ondorio onuragarriak izan dituzte Euskal Autonomia Erkidegoan, eta, neurri txikiagoan bada ere, baita Nafarroan ere. Aitzitik, Ipar Euskal Herrian euskara jasaten ari den etengabeko galera bortitza begien bistakoa da. Egoera honek badu eraginik eta ondorioz euskararen irakaskuntzan eta kurrikulugintzan.

Euskararen erabilera bermatu nahi bada, euskaldun osoak behar dira. Honekin ez dira gaitzetsi nahi euskararen ikas-prozesuaren erdi-bidean gelditzen direnak (aukera hori egin dutelako, porrot edo ezinagatik...); bai, ordea, argi jarri euskalduntzearen azken helburua euskaldun osoak lortzea dela.

Gauza jakina da, gainera, euskaltegiaren zeregina garrantzizkoa dela euskararen eskurapenean, baina ez bakarra. Euskaltegitik kanpoko eguneroko jardunean osatu behar du ikasleak euskaltegiko lana. Giro erdaldunetan, ordea, aukera hori oso murrizta denez, euskaltegiaren esku gelditzen da egoera normal batean nolabait gizaritari edo inguruari dagokion zeregina. Horrela, ahalegin berezia egin beharko dute irakasleak eta euskaltegiak, inguruneak ikasleari eskaintzen ez diona eskaintzen: euskara ikasteko eta erabiltzeko aukera.

1.2 Normalizazio linguistikoa

Ez da berdin, noski, hizkuntza normalizatu bat edo normalizatzen ari den bat ikastea: gure inguruko erdarak ikastea edo euskara ikastea. Lehenengoak, izan ere, 1) ia gizarte-esparru guztietan erabiltzen dira eta 2) ia gizarte-esparru guztietan erabiltzeko aukera ematen dute. Euskarak, berriz, nekezago.

Izan ere, normalizazio linguistikoari dagokionez, ez du burutu euskarak bere bidea. Badira zenbait eremu euskarari arrotz zaizkionak, ongi "landu" gabeak; hor dago, bestalde, euskara idatziaren eta ahozkoaren berezitasunak kon-tuan ez hartzeak sortzen duen tirabira, euskara idatziaren eredia, sarritan itzulpen edo erdal kutsukoa... Dударik gabe, ahalegin berezia egin beharko da irakaskuntzan ahozko erregistro bereziak lantzen eta zenbait euskara-ikaskeraren hizkera artifiziala leuntzen eta gozaten.

Esparru zientifikoari eta espreski didaktikaren arloari erreparatuz, gauza bat da zientzia horren emaitzak euskaraz eman ahal izatea eta beste bat ikerketak euskararen oinarrituak izatea. Halatan, hizkuntzari eta ikas/irakaskuntzari buruzko ikerketak, salbuespen bakanak utzita, ez dira euskararen inguruan sortutakoak, beste hizkuntzen inguruan baizik, eta ingelesarenean gehienbat. Kanpoko emaitzak dira, era berean, kurrikulu honen oinarri teorikoen aurreneko bi ataletan jasotzen diren hainbat printzipio ere. Baliagarri al dira azterketa horien ondorio edo printzipioak edozein hizkuntza eta ikas-egoerarentzat? Esaterako, hizkuntzaren azterketari dagokionez, euskara esaldi mailan aztertu bada ere, testu edo diskurtso mailako azterketak eginkizun dira oraindik. Muga hau ere kontuan hartzekoa da kurrikuluaren diseinua eta bere aplikazioa egiteko orduan.

Euskarak baditu, halaber, bere betiko esparruak: etxea, lagunartea, kalea... Eta horietan, beste edozein erdara bezain "osoa" eta "normaldua" dago euskara. Eta horiei esker iritsi da bizirik gaurdaino. Eta horietan oinarrituz ari da zabaltzen gainerako esparruetara (hezkontza, administrazioa, eremu sozio-ekonomikoa...). Lehen esparru horiek apalagoak dirudite, baina oinarri-oinarrikoak dira. Ia oraintsu arte nahiko izan ditu euskarak, nahiz eta hemendik aurrera hala izan ez. Dena den, nahiz eta hemendik aurrera nahiko izan ez, nahitaezko izango ditu: gaur arte bezain nahitaezko. Euskararen betiko esparru horietan, euskara "asmatua" dago. Irakasleak ez du zertan "asmatzen" ibili.

Oraindik euskarak hain bereak ez dituen esparruetan, eginahal handiagoa egin beharko du ikasleak: euskara-ikasleaz gainera, normalizatzaile ere izango baita. Hori dela eta, irakasleak ongi bereizi beharko du zer gizarte-esparrutako euskara irakasten ari den: noiz ari den esparru "normalduetakoa" eta noiz ez.

1.3 Normalizazioa eta motibazioa

Euskarak gizartean duen rola ere garrantziko eragina du euskara ikasteko motibazioan. Oraintsu arte euskara herri xehearen hizkuntza bezala ikusi izan da, jakitunak erdaraz baliatzen zirelarik. Euskara ikasteak ia balio testimonial hutsa zuen, herriarekiko atxekimenduak sorturiko konpromezuaren fruitu. Badirudi, zorionez, pixkanaka euskara ere gizartean bere lekuaren bila abiatu dela, nolabait prestigioa hartzen ari dela. Elebitasunaren balioa aldarrikatzen da han eta hemen. Bi hizkuntza jakitea ez da bata bestearen kalterako, elkarren aberasgarri baizik. Euskara ikasteak beste euskal hiztunekin harreman sendoagoak izateko bidea eskaintzen du eta horien kulturarekin bat egiteko egokiera ematen. Lanerako, ikasketak burutzeko zenbaitetan premiazko suertatzen da euskara jakitea... Baina oraindik euskal gizartean ez da beharrezko euskara jakitea eta lehen aipatu diren behar horiek maila sinbolikoan geratzeko arriskua dute. Honek guztiak, esan bezala, eragina du ikasteko motibazioan eta, ondorioz, emaitzetan.

2. ALDERDI KULTURALA

Alderdi soziokulturalaren beste osagaia dugu kulturarena. Ez da lan erraza kultura zer den adierazten. Esaterako, Kroeber-ek, 1952an kulturari buruzko 164 definizio ezberdin bildu zituen. Hona hemen, zer dioen UNESCOk:

Kultura, zentzurik zabalenean, gizarte edo gizarte-talde baten ezaugarriek osatzen dute: ezaugarri espiritualetan eta materialek, adimenezkoek eta afektiboek. Bere baitan hartzen ditu, ez soilik arteak eta letrak, baita bizi-modua, gizakiaren oinarriko eskubideak, balore-sistemak, ohiturak eta sineskerak ere. Kulturak ematen dio gizakiari bere buruaz gogoetak egiteko gaitasuna. Berak egiten gaitu gizaki, adimendun, kritiko eta etikoki konprometitu. Berari esker bereizten ditugu baloreak eta gauzatzen aukerak. Berari zor dio gizakiak mintzatzea, bere buruaz jabetzea, bukatu gabeko proiektu dela aitortzea, egiten duena epaitzea, esanahi berrien bila ibiltzea etengabe eta bere burua gaintzen duten lanak sortzea.

Kultura, zentzu zabal honen arabera, giza talde baten ezaugarrien adierazpen da. Bizitzeko era adierazten du. Hizkuntzak, izan ere, funtzio komunikatiboaz gain, badu beste funtzio bat ere: errepresentazioarena, hain zuzen. Honen arabera, hizkuntza bat ikasteak, besteak beste, esan nahi du hizkuntza horren hiztunek duten errealitatearen

ikuspegiarekin bat egitea. Hizkuntza ikastea ez da hizkuntza honen zeinuz jabetzera mugatzen; horiek bere barnean daramatzaten eduki kulturalak ere bereganatzea eskatzen baitu. Kultura ere ikasten da hizkuntza bat ikastea. Kultura ere badelako hizkuntza: errealitatea ikusteko eta erabiltzeko baliabidea. Beraz, euskara irakastea, euskal kultura ere irakasten ari da irakaslea.

Baina horrek ez du esan nahi, noski, irakaslea euskal kultura irakasten ari denean euskara irakasten ari denik. Euskal kultura irakats daiteke euskara irakatsi gabe; era berean, euskararen morfosintaxia, semantika eta abarrak ere. Kontua ez da, beraz, euskal kultura irakastea—kontua ez den bezala, esaterako, euskal gramatika edo euskal filologia irakastea; euskara irakastea baizik.

Kultura ikas daiteke hizkuntza ikasi gabe. Are gehiago: euskal kulturaren jabe izan beharko luke euskal herritar orok, euskaldun izan nahiz erdaldun; bakarra baita errealitatea. Nahiz eta hizkuntza bakoitzak bere ñabarduraz ikusi errealitate hori.

Horiek horrela, ezinbestekoa du euskara-kurrikuluak euskal kultura ere aintzat hartzea. Berezkoa baitu euskarak euskal kultura eta ikuspegia: errealitatea hautemateko era. Baina beti ere kontuan izan beharko da ikasgaia ez dela kultura —gramatika ez den bezala—, baizik eta euskara, alderdi eta izari kulturala barne.

Euskararen kurrikulua egitean, kontuan izango dira euskararen eta erdararen osagai kulturalak: zertan diren berdin eta zertan ezberdin. Irakasleak, euskara bigarren hizkuntza bezala irakastea, kontuan izango du, gainera, ikasleak badakiela erdaraz, eta erdaraz duela errealitatea kodifikatua.

Euskarak, bestalde, badu bere ikuspegi linguistiko kultural berezia. Baditu forma eta molde bere-bereak; eta beste hizkuntzetako ideiak ezin dira zenbaitetan hitzez hitz aldatu. Eta hau, noski, atsotitz eta esamoldeen esparrua baino zabalagoa da.

Beraz, eduki soziokulturalak lantzerakoan hainbat printzipio izango dira kontuan:

- Eduki kulturalak ez dira ikas-materialetatik aldendu behar, ez zaie aparteko tratamendu isolatua eskaini behar; integratua baizik.
- Jarduera didaktikoek elementu kulturez "bustita" egon behar dute. Nolabait esateko, elementu soziokulturek jarduera komunikatiboentzako zinemako oihalaren zeregina betetzen dute eta, filman bezala, oihailean errealitateko eta kontestu soziokultureko alderdiak azaleratuko dira gaiaren, partaideen eta berauen interakzioaren arabera.
- Kulturari buruzko topikoak eta estereotipoak alde batera utzi behar dira eta errealitate sozialera jo.
- Kontuan izan behar da alderdi soziokultureko ikasleen integrazio-maila zein den.
- Ikasleen jatorrizko kultura ez da baztertu behar, bera izango baita gaiak eta atazak aukeratzekoan erreferentzi gune.
- Ikuspegi soziokulturala, hau da, tokian tokiko egoera soziolinguistikoa, normalizazio soziala nahiz linguistikoa, hizkuntzaren funtzio errepresentatiboa, ikasleen motibazioa, gaitasuna eta ikas-estiloa kontuan hartzeak, hain zuzen, ondorio bezala dakar kurrikulu irekia planteatzea. Kurrikulu irekia, batetik, tokian atokiko berezitasunen arabera, batasunaren baitan programazio berezietara heltzeko bidea emango duena. Kurrikulu irekia, bestalde, metodologia malgua bideratuko duena eta, azken batean, ikasleen beharretara ahalik eta gehien hurbildu eta egokituko dena.

HADE

helburuak eta

edukiak

mailaz maila

HE
OK
K

Lau mailatan banatzen da euskalduntze prozesua. Maila bakoitzaren definizioa egiterakoan, alderdi didaktikoa ez ezik, euskararen eta Euskal Herriaren egoera soziolinguistikoa ere kontuan hartu da. Didaktikaren aldetik eta irakaskuntza eratzeari begira, agian luzeegia da mailaketa-sistema hau; lehenengoari dagokionez, bereziki (ikas-prozesuaren ia erdia hartzen baitu). Baina ikuspegi soziolinguistikoak 1. maila altu samar jartzera bultzatu gaitu.

Lehenengo mailak, oinarrizkoa izanik, oinarri sendoak eskatzen dizkio ikasleari. Maila hau gainditzean, ikasleak gai izan beharko baitu eguneroko harremanetan gertatzen diren elkarrizketak nahiko txukun burutzeko, erdarara jo beharrik izan gabe. Testu idatzi laburrak oinarrizko koherentziaz ulertu eta idazteko ere gai izango da.

Bigarren mailan, aurrekoan jasotako trebetasunetan sakontzen eta barneratzen joango da ikaslea, baita hizkuntz ekoizpena areagotzen ere.

Hirugarren maila
EGA agiriak eskatzen duen mailaren parekoa izango da.

Laugarren maila
EGAtik gorakoa da. Arlo profesional, espezializatu eta zientifikoan euskaraz komunikatzeko gaitasuna bermatzen du, eguneroko jardunean behar den freskura eta erraztasuna ahaztu gabe.

Hona hemen, besterik gabe, lehen hiru mailen helburu eta edukiak trebetasunez trebetasun, eta laugarren mailaren helburuak.

EUSKALDUNTZEAREN MAILAKETA	
1. MAILA	Lehenengo maila burutzerakoan, ikaslea gai izango da eguneroko kontestu ezagunetan eta gai orokor eta arruntei buruzko kontaketa eta narrazio sinpleak, instrukzioak, pertsona eta objektuen deskribapen laburrak ulertu eta, ahoz nahiz idatziz, adierazteko. Halaber, eguneroko harreman hurbilen inguruan, solasaldietan parte hartzeko gai izango da. Dena den, testuaren mezu nagusia eta orokorra jaso/adieraziko du; eta zenbaitetan, helburuaren arabera eta testuaren egiturak bideratzen duenean, informazio xehea ere jasoko du.
2. MAILA	Bigarren maila burutzerakoan, ikaslea gai izango da ohiko gai eta egoera ezagunei buruzko solasaldi eta jardunak, narrazioak, deskribapenak, instrukzioak eta azalpen laburrak ulertu eta, ahoz nahiz idatziz, adierazteko. Dena den, zailtasunak izango ditu ñabardurak jaso eta adierazterakoan.
3. MAILA	Hirugarren maila burutzerakoan, ikaslea gai izango da kultura orokorraren mailan edozein euskal hizketa ulertzeko, baita zuzentasunez, egokitasunez eta aberastasunez komunikatzeko ere. Saiakera arruntak, ipuinak, nobelak, etab. ulertuko ditu; gutunak, artikulua laburrak, testu errazak eta antzekoak ere idazteko gai izango da. Hala ere, zailtasunak izango ditu gai espezializatuei eta erregistro bereziei buruzko testuak jaso eta adierazteko.
4. MAILA	Laugarren maila burutzerakoan, ikaslea gai izango da kultura-maila goreneko eta norbere espezialitateko gaien inguruan elkarrizketa mantentzeko eta iritziak eta azalpenak emateko. Halaber, testu espezialduak bere osotasunean jasoko ditu; eta, hizkuntza formalean nahiz informalean egoerari egokitzu eta arrakasta lortzeko moduan, era guztietako testuak zuzen, zehatz eta jator idazteko gai izango da. Euskalkietako berbaldiak eta idatzizko testuak ere ulertzeko gai izango da.

HELBURU OROKORRAK TREBETASUNEZ TREBETASUN

	1. MAILA	2. MAILA
entzumena	<p>Ikaslearen eguneroko kontestu ezagunetan gai orokor eta arruntei buruzko kontaketa edo narrazioak ulertzeko gai izango da, baita instrukzio zuzenak jarraitu eta elkarriketan parte hartzeko ere. Informazio orokorra, alditan xehea, eta zenbait kontestutan (zaratarik eza, abiadura normala, ahoskera garbia, erredundantzia, ikusizko lagungarriak...) ñabardurak jasoko ditu. Hala ere, konpentsazio-estrategietara jotzeko joera izango du.</p>	<p>Ikaslearen eguneroko kontestu ezagunetan ohiko gai buruzko solasaldi eta jardunetan parte hartzeko gai izango da, baita instrukzioak eta narrazioak jarraitu eta gai ezagun baten inguruko azalpenak ulertzeko ere. Informazio orokorra eta xehea jasoko du, baina zenbait kontestutan eta jatorrizko hitzunen hizketa oso kolokialean ñabardurak jasotzeko zailtasunak izango ditu. Hala ere, zailtasun hauek entzumen-estrategiaz baliatuz gaindituko ditu, komunikazioa apurtu gabe.</p>
mintzamina	<p>Ikaslearen eguneroko kontestu ezagunetan eta gai orokor eta arrunten inguruan, ikasleen arteko nahiz jatorrizko hitzunikiko elkarriketetan parte hartzeko gauza izango da. Baita instrukzioak emateko, pertsonak eta objektuak labur deskribatzeko eta narrazio edo kontaketa laburrak antolatzeko ere.</p>	<p>Ikaslearen eguneroko kontestu ezagunetan ohiko gai inguruan ikasleen arteko nahiz jatorrizko hitzunikiko elkarriketetan parte hartzeko gauza izango da. Baita instrukzioak emateko, narrazioak edo kontaketa egiteko eta gai baten inguruan azalpenak egin eta iritziak emateko ere.</p>
irakurmena	<p>Ikaslearen eguneroko kontestu ezagunetan eta gai orokor eta arrunten inguruan idatzizko kronika eta artikulua laburrak, deskribapenak eta argibideak ulertzeko gai izango da. Irakurketa helburuaren arabera eta irakurgaiaren egiturak bideratzen duen neurrian (informazioaren antolaketa, kateamendua, zenbatekoa, elementu ikonikoak, hizkuntzaren aberastasuna...) informazio orokorra edo xehea aurkitzeko gai izango da.</p>	<p>Ikaslearen eguneroko kontestu ezagunetan ohiko gai inguruko idatzizko narrazio, kronika, erreportaje eta artikulua, deskribapenak, ipuinak eta argibideak ulertzeko gai izango da. Irakurketa helburuaren arabera informazio orokorra eta xehea aurkituko du, ia beti. Dena den, irakurgaiaren egituraketak (informazioaren antolaketa, kateamendua, zenbatekoak...) zaildu dezake ulermena.</p>
idazmina	<p>Ikaslearen eguneroko kontestu ezagunetan eta gai orokor eta arrunten inguruan esperientziak deskribatzeko, gertaerak kontatzeko, oharrak idazteko gai izango da.</p>	<p>Ikaslearen eguneroko kontestu ezagunetan ohiko gai inguruan idatziz esperientziak deskribatzeko, ipuinak kontatzeko, oharrak eta gutunak egiteko gai izango da.</p>

HELBURU OROKORRAK TREBETASUNEZ TREBETASUN**3. MAILA**

Kultura orokorraren mailako edozein gai eta egoeratan parte hartzeko gai izango da, baita euskara estandarrean nahiz herri-hizkuntzan edozein euskal hizketa (instrukzio, azalpen, narrazio, argudio, elkarrizketa...) ulertzeko ere. Informazio orokorra eta xehea jasoko du; baina gai espezializatuari buruzko azalpenetan, adibidez, xehetasunak ulertzeko zailtasunak izango ditu.

Kultura orokorraren mailako edozein gai eta egoeraren aurrean ikasleen arteko nahiz jatorrizko hiztunekiko elkarrizketetan, euskara estandarrean gutxienez, parte hartzeko gauza izango da. Instrukzioak eta azalpenak emateko, narrazioak eta kontaketa egiteko, iritziak eta argudioak emateko gai izango da, hauek guztiak egokitasunez, zuzentasunez eta aberastasunez egingo dituelarik.

Kultura orokorraren mailako prosa-testuak, saiakera arruntak, ipuinak, nobelak, erreportaje eta artikulak, deskribapenak, iritzi-artikuluak, etab. ulertzeko gai izango da. Irakurketa helburuaren arabera informazio orokorra eta xehea aurkituko du eta gaiaren konplexutasunak nahiz irakurgaiaren egituraketak sor ditzaketen arazoak irakur-estrategiaz baliatuz gaindituko ditu, irakur helburua lortuz.

Kultura orokorraren mailako gaiari buruz idatziz gutunak, artikulua errazak, ipuinak, azalpenak eta antzekoak egiteko gai izango da, hauek egokitasunez, zuzentasunez eta aberastasunez egingo dituelarik.


4. MAILA

Hizkuntza estandarrean edozein diskurtso (kultur maila zabalekoak, norbere interesekoak edo espezialitatekoak) bere osotasunean ulertzeko gai izango da. Euskalkietako berbaldia ere ez zaio arrotza egingo eta mezua bere funtsean jasoko du.

Kultur maila goreneko eta norbere espezialitateko gaien inguruan elkarrizketa mantentzeko, iritziak emateko edota, beharbada, jendaurrean azalpena egiteko gai izango da.

Batuan zein euskalkitan idatziriko kultur maila goreneko testuak eta testu espezialduak emandako informazioa jasotzeko gai izango da.

Kultur maila orokorreko nahiz goragoko gai sozial ala espezialduen gain, hizkuntza formalean nahiz informalean egoerari egokituz eta arrakasta lortzeko moduan, hainbat motatako testuak zuzen, zehatz eta jator idazteko gai izango da.



EDUKIEN ANTOLAKETA

Helduen euskalduntzearen oinarrizko kurrikuluak, ikuspegi psikopragmatikoari jarraiki, ikaslea H₂aren erabiltzaile izatera eraman nahi duen ikuspegiari jarraiki alegia, eta oinarrietan azaldutakoa kontuan hartuz, edukiak hiru ataletan sailkatu ditu: 1) eduki pragmatikoak (testua eta kontestua); 2) eduki formalak (adierazpide linguistikoak, adierazpide testualak eta adierazpide pragmatikoak) eta 3) eduki psikolinguistikoak (azpitrebetasunak eta estrategiak).

EDUKI PRAGMATIKOAK

HEOKek bi atal bereizten ditu eduki pragmatikoetan: testuari eta kontestuari dagozkionak, hain zuzen.

Euskalduntzearen helburua, azken batean, euskaraz komunikatzeko gaitasuna lortzea da, hau da, eguneroko bizitzan sortzen diren ahozko eta idatzizko testuak ulertzen eta sortzen trebatzea.

Baina zer da testua? Hasteko, esaldia baino gehiago da testua; baina baita esaldi-multzoa baino gehiago ere. Edozein idazki –eta ahozko-jarduera– ez da berez testu. Testu izateko, bi tasun beharko ditu gutxienez: kohesioa eta koherentzia.

Bi tasun horien artean, azken batean, testuingurua (contexto) eta kotestua kontzeptuen arteko alde berbera dago. Hau da, testuinguruarekiko koherentzia azaltzen du batak (koherentzia terminoak) eta kotestuari dagokiona besteak (kohesio terminoak). Horrexegatik, Aznarrek-eta koherentzia kontestuala deitzen diote lehenengoari eta koherentzia kotestuala bigarrenari; baina koherentzi baliabideez ("mecanismos de coherencia", 27. or.) dihardute oro har, bietaz jardutean. Dena den, HEOK dokumentuan, gauzak ez nahastearren, baliabide testual terminoaz izendatzen dira eta 1. eranskinean zerrendatzen, zailak baitira mailakatzeko eta nolabait maila guztiei baitagozkie.

Aznarri-eta (1991, 27-40. orr.) jarraiki, lau "baliabide testual" bereizten ditugu: 1) deiktikoak; 2) errepikapenezkoak: erreferentziak (anafora, katafora), ordezkapen lexikala (sinonimia, antonimia...), elipsia, definizioa; 3) loturazkoak: lokailuak eta testu-antolatzaileak; eta 4) hitzen ordenari dagozkionak: edukiaren eta helburuaren adierazpen eta interpretazio antolatua, aurrerabide tematikoa, informazio zahar eta berriaren antolamendua, egitura proposizionalak eta beroriek antolatze ordenak, eta denbora.

Baliabide testual horiek ematen diote testuari kohesioa eta koherentzia. Baina ez dira bakarrak. Hor daude, izan ere, makroegitura semantikoari dagozkionak ere. HEOK dokumentuak, horietaz ari denean, testu-motak (narraziozkoak, deskribapenezkoak, argudiozkoak, azalpenezkoak...) aipatzen ditu, eta zer ezaugarri dituzten eta zer-nolako testu-eretan gauzatzen diren (ipuin, albiste, iritzi-artikulu, eta abar). Horrela jokatzuz, J.M. Adam-en sailkapenean oinarritzen da, eta sei testu-mota bereizten ditu: narraziozkoa, instrukziozkoa, deskribapenezkoa, elkarriketazkoa/bakarriketazkoa, azalpenezkoa eta argudiozkoa. Testu-mota hauek mailakatuta eta trebetasunka ematen dira, testu-era esanguratsuenak-edo zerrendatuz, eta bakoitzaren ezaugarriak zehaztuz.

Testua egoera edo kontestu jakin batean gauzatzen da. Ikasleak hizkuntzaren erabilera-esparrua hobetuko badu, errealitate estralinguistikoa edo kontestuala landu beharko du.

Testuinguru edo kontestuari dagozkion arloen artean, hauek zehazten dira mailaka eta trebetasunka: komunikazioaren xedea edo hizkuntz funtzioetakoak (harremanezkoak, informaziozkoak, iritziak, sentimenduzkoak, gomen-dio eta aholkuei buruzkoak, arazoaren ingurukoak eta asmoen buruzkoak); komunikazioaren partaideen arteko harremana; komunikazio-era (interakziozkoa, transakzionala); komunikazio-kanala (zuzenekoa, bitartekoak medio...); komunikazio-egoera; gaia eta hizkera.

EDUKI FORMALAK

Hiru eratarazazaltzen dira zehaztuak eduki formalei dagozkien adierazpideak. Alde batetik, esparru testual eta pragmatikoan adierazpide linguistikoen zehaztapena; eta bestetik, eranskinetan, adierazpide linguistikoen (alderdi fonologiko, ortografiko eta morfosintaktikoa) zerrendak, mailaz maila. Beraz, zerrenda bakarra da hiru modutara zehaztua.

Bestalde, eranskinetan (2., 3., 4. eta 5.ean) zerrendatutako adierazpideak hiru mailatan ematen dira, letrakera urdinez zehazten direlarik maila bakoitzari dagozkion eduki berriak.

EDUKI PSIKOLINGUISTIKOAK

Gaitasun komunikatiboa lortzeko, hau da, egoera komunikatibo bati dagokion berbaldi eta testuak sortu eta ulertzeko gai izateko, oinarritzeko lau hizkuntz trebetasunetan (entzumena, mintzamena, irakurmena eta idazmena) hainbat eragiketa psikolinguistiko burutu behar dira (ekoizleak komunikazio-egoera irudikatu, hipotesiak egin, diskurtsoa planifikatu...; hartzaileak, halaber, testua interpretatzeko hipotesiak eta inferentziak egin...). Baina, komunikazioa lortuko bada, prozesu horretan parte hartzen duten eragiketa guztien trebezia lortu behar da.

Aldi berean, tradizionalki edukizat hartu ez badira ere, badira komunikazioa bermatzeko edota ezinak gainditzeko martxan jartzen diren eragiketak; estrategiak, hain zuzen ere.

Funtsean, estrategia hauek ere eragiketa psikolinguistikoak dira, eta horiek guztiak kontuan harturik bi sail nagusitan bereizten ditu HEOKek eduki psikolinguistikoak: azpitrebetasunak eta estrategiak.

Azpitrebetasunak, mailaka eta trebetasunka zehazteaz gain, trebetasun bakoitzaren prozesuari erreparatuz, hau da, prozesu horren urratsei begira, zerrendatu dira. Adibide bat jartzearen, entzumenaren urratsak zehaztuko ditugu:

- berbaldian fonema, hitz eta esaldi esanguratsuak bereizi;
- berbaldiaren mezua norberaren aurretiko ezagutzarekin lotu;
- ahozko testu baten esanahi globala ulertu;
- gai baten inguruan entzundako informazio berezia atera;
- testuinguruan erreferentzia hartuz hitzunen iritzi, asmo, ironia, etab.; interpretatu;
- testuko ideia nagusiei antzeman;

Estrategiak, berriz, bi multzo handitan sailkatu ditugu: ikas-estrategiak eta komunikazio-estrategiak. Biak 6. eranskinean jasorik daude.

Ikas-estrategiak, beti ere psikologia kognitiboaren arabera, honela defini daitezke: ikasten ari denak informazioa eskuratu, jaso, berreskuratu eta erabiltzeko baliatzen dituen prozedura eta eragiketak. Beste hitzetan esanda, ikasleak ikasteko eta bere ikasketa antolatzeke erabiltzen dituen prozedurak dira. Bestalde, hizkuntzen ikaskuntzari dago-kionean, R. Oxford-ek (1990) honela definitu zituen: ikastea errazago, azkarrago, atseginago, eraginkorrago izan dadin ekintza jakin batzuk dira.

HEOKek R. Oxford-en ereduari jarraitzen dio, bi estrategia sail bereiziz. Alde batetik, zeharkakoak, hizkuntza elementuekin lotura zuzena ez dutenak, baina ikas-prozesua gidatu eta bultzatzen dutenak. Beste aldetik, H₂rekin lotura zuzena duten estrategiak, estrategia zuzenak izenekoak, hain zuzen ere.

Zeharkako estrategien artean, estrategia metakognitiboak ditugu, ikasleari ikas-prozesuaz jabetzen laguntzen diotenak; estrategia afektiboak, ikaslearen emozioak, motibazioak eta jarrerak bideratzen dituztenak; eta estrategia sozialak, interakzioaren bidez ikaskuntza errazten dutenak.

Estrategia zuzenen artean, berriz, hiru mota hauek zehazten ditu Oxford-ek: oroimen-estrategiak, informazio berria gordetzen eta berreskuratzen errazten dutenak; estrategia kognitiboak, hizkuntz mezuak ulertzen eta ekoizten laguntzen dutenak; eta konpentsatzeko estrategiak, helburu komunikatibo bat lortzearen hutsuneak edo akatsak konpontzeko erabiltzen direnak (azken hauek komunikazio-estrategien barnean zehaztuko ditugu kurrikulu honetan).

Komunikazio-estrategiak, bestalde, ikasleak erabiltzen dituen eragiketa edo planak dira, helburu komunikatibo bat lortzeko bidean aurki daitezkeen arazoak gainditzeko.

Komunikazio-estrategien artean biltzen dira komunikazioan barrena arazoren bat sortu ostean martxan jartzen diren estrategiak. Adibidez, hiztegi-item bat ez jakitea konpentsatzeko, laguntza-eskeak, etab. Komunikazioaren kanala, komunikazioan arazoak sortzen direnean, irekita edukitzeko bideak dira komunikazio-estrategiak.

Celce-Murciari eta jarraituz, bost multzotan sailkatu ditugu komunikazio-estrategiak: zerbait saihesteko edo murrizteko estrategiak; zerbait lortzeko edo konpentsatzeko estrategiak; zerbait atzeratzeko edo denbora irabazteko estrategiak; automonitoretzeko estrategiak eta interakzio-estrategiak.

EDUKIEN ANTOLAKETA ETA TREBETASUNAK

Aurretik esandakoaren argitara, kurrikulu-dokumentu honetan hiru eratako kategoria nagusien arabera antolatu dira euskararen irakaskuntzarako helburuak eta edukiak. Alde batetik, mailaketa egin da, ikas-prozesua lau mailatan banatuz. Bestalde, hiru kategoria nagusitan banatu dira edukiak: pragmatikoak, formalak eta psikolinguistikoak. Gainera, bai helburuak eta bai edukiak trebetasunez trebetasun sailkatu dira. Zergatik trebetasunak?

Erabileraren ikuspegitik, lau eratarik gauzatzen da hizkuntz komunikazioa. Hitz egitea, entzutea, irakurtzea eta idaztea dira komunikatzen ikasten duen edonork menperatu behar dituen trebetasunak. Ez dago hizkuntza erabiltzeko beste erarik, komunikazioa helburu izanik, behintzat. Hori horrela, bidezko ikusi da edukiak antolatzerakoan trebetasunak kontuan izatea.

Lau trebetasun nagusi horien artean baditugu, batetik, trebetasun sortzaileak (mintzamina eta idazmina) eta hartzaileak, bestetik (entzumena eta irakurmena). Azken hauei trebetasun pasiboak ere deitu izan zaie, oker deitu ere; eta oker hori sor daiteke hitz egitea eta idaztea kanpotik behagarriago diren ekintzak izatetik. Halere, entzutea eta irakurtzea trebetasun aktiboak dira, operazio konplexu ugari eskatzen dute, nahiz eta kanpotik behagarriak ez izan. Trebetasun hartzaileetan hizkuntzaren esparru zabalagoa jasotzen da; sortzerakoan, aldiz, ulertzen dena baino gutxiago erabiltzen da. Lehenago ikasi eta garatzen dira hartzaileak; nekezago sortzaileak, haiek atzetik baitatuz: Ezin da aurretik ulertu ez den ezertaz hitz egin edo idatzi. Bada alderik azpitrebetsunetan ere.

Komunikazioan erabiliko den kanalaren edo kode linguistikoaren ikuspegitik, berriz, trebetasunak ahozkoak izan daitezke edo idatzizkoak. Bada alderik ahozko eta idatzizko komunikazio bidearen artean. Lehenengoek entzuteko bidea dute, ikusizkoa bigarrenengoek. Bat-bateko komunikazioa gertatzen da ahozkoan, landuagoa idatzian. Berehalako komunikazioa da ahozkoa, diferentzia idatzizkoa. Batak ez-hitzeko kodea erabiltzen du asko, ez hainbeste besteak. Elkarreragina badago ahozkoan, ez; ordea, idatzian...

Ahozko/idatzizko eta hartzaile/sortzaile bikote hauek trebetasunen arteko antzekotasun eta alde nabarmenak markatzen dituzte, komunikazioan eta hizkuntzaren didaktikan ondorioak dituztenak. Esaterako, ikas-prozesuaren hasieran trebetasun hartzaileek garrantzi handiagoa izango dute. Mintzatzekoan estrategia batzuk aktibatu beharko dira eta beste batzuk entzuterakoan. Ahozko eta idatzizko erregistroak bereizten ikasi behar du ikasleak. Irakurtzerakoan inferentziak egin beharko dira; eta idazterakoan, esaterako, hartzaileari egokitu beharko zaio...

Trebetasun batetik besterako aldeak kontuan izanik eta komunikazioa egituratzeko eta esplikatzen duten balio-gatik jasotzen dira kurrikulu honetan trebetasunak kategori modura. Aldeak alde, badituzte elkarrekin kidetasunak ere.

Hori nabari da trebetasun batetik bestera ematen diren edukien errepikapenetan.

Badira, bada, arrazoiak edukiak eta helburuak trebetasunka banatzeko eta horrela egin da mailaz maila, hirugarrenean izan ezik; kasu honetan entzumenari eta mintzamenari dagozkion edukiak bateratu egin baitira, batetik, eta irakurmenekoak eta idazmenekoak, bestetik.

Halere, edukiak trebetasunka banatzeak ez gaitzala eraman planteamendu metodologiko atomistara. Izan ere, eguneroko komunikazio "errealean" trebetasunak elkarrekin konbinatuak ematen dira. Kurrikuluaren planteamendua hizkuntzaren erabileraren aldekoa izanik, trebetasunen planteamenduak ere integrazioaren aldekoa izan behar du. Horrela, irakurmena lantzerakoan, honako jarduera hauek bidera daitezke: 1) irakurri aurretik eskemak aktibatzen gaiaren inguruko eztabaida; 2) irakurriko den gaiari buruzko informazioa zabaltzeko grabazioak entzun; 3) irakurtzeko estrategiaren bat landu; esaterako, irakurketa xehea; 4) irakurritako pasartearen inguruko edo antzeko zerbait idatzi.

Hona trebetasunen integrazioaren aldeko zenbait arrazoi: a) ekoizpena eta ulermena txanpon beraren bi aldeak dira, elkarrengandik banandu ezin direnak biak; b) interakzioak esan nahi mezuak igortzea eta jasotzea; c) ahozko eta idatzizko hizkuntza sarritan (ez beti) elkarloturik daude; d) hizkuntzaz baliatuz egiten denari garrantzia emanez, lau trebetasunen integrazioa bultzatzen da; e) trebetasun batek bestea indartzen du: entzundakoa oinarritzat hartuz moldatzen dugu mintzaira, eta irakurritakoaz idazmena.

Trebetasunak, bada, ez dira elementu diskretoak, elkarrekin konbinatuak baizik. Beraz, ez da komeniko konpartimentu itxi bezala kontsideratzea, eta horrela programatzea. Halere, zilegi eta beharrezko izango da trebetasunen batean, are, azpitrebetasunen batean inziditzea, hala dagokionean.

HADE

1. maila

helburuak
eta edukiak

H
E
O
K

1. MAILARAKO HELBURUAK

	ENTZUMENA	MINTZAMENA
Gaitasun komunikatiboa	Ikaslearen eguneroko kontestu ezagunetan gai orokor eta arruntei buruzko kontaketa edo narrazioak ulertzeko gai izango da, baita instrukzio zuzenak jarraitu eta elkarrizketan parte hartzeko ere. Informazio orokorra, alditan xehea, eta zenbait kontestutan (zaratarik eza, abiadura normala, ahoskera garbia, erreduantzia, ikusizko lagungarriak...) ñabardurak jasoko ditu. Hala ere, konpentsazio-estrategietara jotzeko joera izango du.	Ikaslearen eguneroko kontestu ezagunetan eta gai orokor eta arrunten inguruan, ikasleen arteko nahiz jatorrizko hiztunekiko elkarrizketetan parte hartzeko gauza izango da. Baita instrukzioak emateko, pertsonak eta objektuak labur deskribatzeko eta narrazio edo kontaketa laburrak antolatzeke ere.
Gaitasun linguistikoa	Maila honi dagozkion hizketaldiak ulertzeko nahiko baliabide linguistiko izango ditu. Hala ere, erabat bereganatu ez dituzenez, zenbaitetan mezuaren haria eten dezake.	Bere mezua komunikatzeko eskura dauzkan formetara egokitu beharra izango du, hizketaldiaren erritmoa geldo samarra eginez eta zenbaitetan akats lexikal eta gramatikalak eginez. Dena den, ordain-estrategien erabilerrari esker, hizkuntz murriztapenek ez dute komunikazioa ezinezko bihurtuko.
Gaitasun estrategikoa	Mezua ulertu ahal izateko hainbat estrategiez baliatuko da: aurretiko ezagutzaz, hitz gakoez, elementu paralinguistikoez, eta abarrez.	Bere adierazpena burutzeko errepikapenez, isilunez, autozuzenketaz eta noizean behin erdarazko ordainez baliatuko da. Mezua norberaren gaitasunaren neurriera egokituko du, beti ere elkarreraginetik ihes egin gabe.
Gaitasun testuala	Testu-mota nagusienak orokorrean bereiztuko ditu eta horien egitura linealaz jabetuko. Era berean, mezua ulertzeko hitz gako eta erreferenteez baliatuko da.	Elkarrizketa hasi, garatu eta bukatzeko erabiltzen diren ohiko adierazpide arruntez baliatzeko gai izango da. Maila honi dagozkion testuak (solasaldiak, kontaktak, instrukzioak...) ahoz adierazteko gai izango da. Bere jarduna testuaren oinarritzko egiturari, lineala eta argia gehienbat, lotuko zaio. Elkarrizketari sarrera eman, txandak hartu eta utzi, bukaera emateko gai izango da, horretarako ohiko eta oinarritzko kohesio-formaz baliatuz.
Gaitasun soziopragmatikoa	Eguneroko kontestu ezagun eta arruntari dagokion hizkuntz erregistroa eta mezuaren informazio errelebantea bereizteko eta ulertzeko gai izango da.	Maila honetan ikasleak bere jardunean kontestuari erreparatuko dio eta horri egokitzen saiatuko da. Hala ere, hizkuntz erregistroen erabilera mugatua izango du eta formaltasun-mailari dagokionean hutsuneak izan ditzake.

1. MAILARAKO HELBURUAK

IRAKURMENA	IDAZMENA
<p>Ikaslearen eguneroko kontestu ezagunetan eta gai orokor eta arrunten inguruan idatzizko narrazio, kronika eta artikulua laburrak, deskribapenak eta argibideak ulertzeko gai izango da. Irakurketa helburuaren arabera eta irakurgaiaren egituraketa bideratzen duen neurrian (informazioaren antolaketa, kateamendua, zenbatekoa, elementu ikonikoak, hizkuntzaren aberastasuna...) informazio orokorra eta/edo xehea aurkitzeko gai izango da.</p>	<p>Ikaslearen eguneroko kontestu ezagunetan eta gai orokor eta arrunten inguruan esperientziak deskribatzeko, gertaerak kontatzeko, oharrak idazteko gai izango da.</p>
<p>Maila honi dagozkion idatzizko testuak ulertzeko nahiko baliabide linguistiko izango ditu. Hala ere, zenbaitetan testua ulertzeko behin baino gehiagotan irakurri beharko du, egitura arrotzen aurrean saiheste-estrategiak erabiliz.</p>	<p>Bere mezua adierazteko eskura dauzkan formetara egokitu beharra izango du eta, erabat bereganaturik izango ez dituenek, zenbaitetan akats lexikal eta gramatikalak egingo ditu.</p>
<p>Helburuen araberako irakurketa-motaz (gainirakurketa, irakurketa xehea...) baliatuko da; eta mezua ulertu ahal izateko hainbat estrategiaz baliatuko: kontestuz eta aurretikako ezagutzaz, predikzioak egin eta egiaztatuz, irudiei erreparatuz...</p>	<p>Idaz-prozesuari dagozkion pausoak burutu ahal izateko hainbat estrategiaz baliatuko da: zirriborroak eginez, erreplikapen eta perifrasiatara joz, testu ereduak erabiliz...</p>
<p>Testu-mota nagusienak orokorrean bereiztuko ditu eta horien egituraz jabetuko da. Horretarako eta testuaren ulermenerako, elementu ikonikoez eta erreferenteez baliatuko da.</p>	<p>Maila honi dagozkion testuak idazterakoan informazioa argi antolatuko du, testu-motak eskatzen duen egituraren arabera, linealki bederen. Lotura eta kohesio-forma oinarrizkoenak ere erabiltzen hasia izango da.</p>
<p>Testuingurua (nork-nori zuzendua, zertarako, non eta noiz...) bereizten jakingo du.</p>	<p>Ikasleak idazterakoan kontestuari (nori zuzentzen zaion, zertarako, zein egoeratan...) erreparatuko dio eta horri egokitzen saiatuko da. Hala ere, mugak izango ditu bai kontestuak berak eta bai gaitasun linguistikoak ezarritakoak.</p>

1. MAILARAKO EDUKIAK: ENTZUMENA

testua

ELKARRIZKETA / BAKARRIZKETA

Testu-erak

- . Bi pertsonen arteko solasak (galde-erantzunak)
- . Irrati-telebistako iragarkiak
- . Berriak / Kontaketak
- . Kantak
- . Filmak
- ...

Ezaugarriak

- Interakziozkoak
 - . Prestaera (gonbitea...)
 - . Sarrera (agurra)
 - . Gaian sartzeko solaskidea erakarri
 - . Gunea / gaia
 - . Amaiera / ebaluaketa
 - . Azken agurra
- Transakzionalak
 - . Deskribapen edo narraziozkoak: jarraipen lineala, sekuentzia kronologikoa/espazialen araberakoa

Baliabide testualak (ikus 1. eranskina)

kontestua

- Komunikazioaren xedea
 - . Informazioa jaso
 - . Hipotesiak baieztatu/ezeztatu
 - . Jakin-mina asetu
 - . Zalantzak argitu
 - ...
- Komunikazioaren partaideen arteko harremana ez da maila berdinekoetara mugatuko
- Komunikazio-era
 - . Interakziozkoa: ikaslea partaidea izanik, honen ezagutza-mailara egokituz (abiadura, entzuteko baldintza egokiak, zaratarik ez...)
 - . Transakzionalak: txanda laburreko elkarrizketak, nahiz deskribapen eta narrazio laburrak
- Komunikazio-kanala
 - . Zuzenean, aurrez-aurre
 - . Bitartekoak medio (telefonoa, irrati-telebista...)
- Komunikazio-egoera
- Gaia: ezaguna, ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbilekoa, ondoren esango dena aurreikusteko modukoa
- Hizkera: doinuera eta ahoskera euskara estandarretik hurbil izanik ere, herri-hizkuntza baztertu gabe
- Eginkizunak
 - . Instrukzio zehatz batzuek diotena bete
 - . Egindako galderari erantzun
 - . Irudizko euskarria izanik mapa, marrazkia... osatu, ordenatu...

1. MAILARAKO EDUKIAK: ENTZUMENA

adierazpide linguistiko-testualak

Alderdi fonologikoa

- . Euskal fonema bereziak: TZ, TX, TS, Z, S, LL, -K...
- . Asimilazioak eta elipsiak:
 - ez dira [eztia]
 - badator [baator]
 - ez ba [ezpa]
 - ekarri ditu [ekarrittu]
- . Doinuera eta intonazioa

Alderdi morfosintaktikoa

- . Izenordainak: ni, zu, gu, zuek (nik, niri...)
- . Galdetzailak: nor, zer, non, noiz, zein, zenbat (nork, zertaz, nondik, noizko, zeini...)
- . Galderazko perpausak, baiezkak eta ezezkoak
- . Galdegaia aditza bera denean
- . Aditzaren forma arruntak, lehen eta bigarren pertsonetan bereziki

Elementu diskurtsiboak

- . Ez-hitzezko kodeak: irudiak, keinuak, etenak, isiluneak...
- . Interakzioan erabiltzen diren esamoldeak:
 - . Elkarrizketari hasiera emateko (agurrak, gaiaren sarrera...)
 - . Argibideak eskatzeko, zerbait ez dela ulertu adierazteko: "Nola?", "Polikiago esan berriz"...
 - . Elkarrizketari amaiera emateko

...

Adierazpide linguistikoak 1 (ikus 2. eranskina)

azpitrebetasunak / estrategiak

- Mintzaldi/solasaldi-zati bat gogoan hartu
- Xede-hizkuntzaren soinuak bereizi
- Hitzen azentuzioa ezagutu
- Gai jakin batzuen inguruan erabiltzen den ohiko hiztegia atzeman
- Kontestuaz baliatuz hitzen esanahia asmatu
- Entzundakoaren arabera egoera, partaideak eta xedeak (kontestua) atera
- Kontestua (egoera, partaideak, xedea...) ateratzeko aurreko ezagutzaz baliatu: munduari buruzko ezagutza orokorrak, gai jakin horri buruzkoak, testu-motari dagozkionak
- Gertaeren arteko loturak igarri
- Esanahia jasotzeko adierazpide linguistiko, paralinguistiko eta hizkuntzaz kanpokoei arreta jarri, esaterako: doinua, imintzioak, erritmoa, etab.
- Hitzez edo ez-hitzezko baliabidez adierazi ulertu den ala ez, edota argibideak eskatu
- Ulertu berri denetik abiatuz, gero zer entzungo den atzeman
- Lehenbizi gaia orokorrean ulertu eta gero xehetasunetara jo
- Datu zehatzak bilatu, gainerakoa bazter utzita
- Hitz gakoetan oinarritu
- Adi egon hitz gako gehiago noiz atzemango
- Hitzez hitz itzuli gabe esaldien eta enuntziatuen esanahia ulertu
- Berbaldia egituratzen duten adierazpide diskurtsiboei erreparatu
- Testu-motaren, gaiaren eta hizlariaren intentzioaz ezagutzen dena kontuan izanik, entzungo dena igarri

Estrategiak (ikus 6. eranskina)

1. MAILARAKO EDUKIAK: MINTZAMENA

testua

ELKARRIZKETA / BAKARRIZKETA

Testu-erak

- Famili / lagunarteko solasak
- Telefonozko elkarrizketak
- Bat-bateko topaketa...
- Kontaketak
- Argibideak
- Deskribapenak

Ezaugarriak

Interakziozkoak

- . Erantzun laburrak: egitura soiletara mugatzen da. Jakineko esamoldeak gehienetan. Sormenlan gutxikoak
- . Erantzun zabalagoak: galdetzaileak ematen duen informazioaz eta egituraz baliatzen da erantzun osoagoa emateko
- . Sormenezko elkarrekintza: erantzutera mugatu gabe, elkarrizketa osoan parte hartzen denean, honako pausoak emanez:
 - . Prestaera (gonbitea...)
 - . Sarrera: agurra
 - . Gaian sartzeko solaskidea erakarri
 - . Gunea / gaia azaldu eta gidatu
 - . Amaitu (ebaluatuz, laburtuz)
 - . Azken agurra

Transakzionalak

- . Deskribapen edo narrazioaren egitura izango dute gehienetan: jarraipen lineala; sekuentzia, berriz, kronologia nahiz espazioaren arabera.

Baliabide testualak (ikus 1. eranskina)

kontestua

- Komunikazioaren xedea
 - . Informazio berri bat eskatu
 - . Zerbitzu baten berri eskatu
 - . Helbideaz... galdetu
 - . Zalantzaren bat argitu
 - . Zerbait gogorarazi
 - . Iritzia azaldu
 - . Entzundako zurrumurruren berri eman
 - . Bestea oker dagoela adierazi
 - . Doluminak eman
 - . Zorionak eman
 - . Nahiak eta beharrak azaldu
 - . Ikusi, entzun edo irakurritako gertaera, filma... labur-labur kontatu
 - . Irudia aurrean izanik, istorio bat kontatu, leku edo pertsona bat deskribatu
 - . Gauza eta pertsona ezagunen deskribapen soilak egin
 - . Nork bere burua aurkeztu lagun aurrean
 - ...
- Komunikazioaren partaideen arteko harremana gehienbat berdinen artekoa
- Komunikazio-era
 - Interakziozkoa: elkarrengana hasiera batean erantzun soiletara mugatuko da. Geroago, erantzun horiek zabaltzen joango dira. Azkenik, elkarrekintzako galde-erantzunetan parte hartu ahal izango du.
 - Transakzionalak: txanda laburreko elkarrizketak izango dira.
- Komunikazio-kanala
 - Zuzenean, aurrez-aurre (baten/ talde txikiaren aurrean)
 - Bitartekoak medio (telefonoa)
- Komunikazio-egoera
 - Helburuak finkatzerakoan malgua izan, testuak aurrera egiten duen bezala, beharrezko aldaketak sartu ahal izateko
2. Ideiak bildu
 - Beste testu idatziez baliatu
 - Besteekin ideiak trukatu
3. Eraketa
 - Idatzizko baliabideak erabili (papera, marrazkiak, grafikoak...)
 - Ideiak eratzeko teknikak ezagutu (eskemak, zuhaitzak, diagramak...)
 - Ideiak eratzeko teknikez baliatu (eskemak, zuhaitzak, diagramak...)
 - Ideiak ordenatu testuaren egituraren arabera

Testua gauzatzea

- Testua antolatu gaiaren hariari jarraituz
- Idazlanaren eskema burutu: parrafoak edo atalak mugatu idazteari ekin aurretik
- Ideiak esaldi laburretan adierazi parrafoak osatuz
- Zirriborroak egin
- Norberaren hizkuntzara jo , esaterako, ama-hizkuntzako hitza euskaratu, euskarazko hitz jatorra balitz bezala

Berrikusketa

1. Irakurri
 - Idatzitako testua aldeztu aurretik egindako planarekin alderatu
 - Idazlanean adierazitako ideien egokitasunari eta formen zuzentasunari erreparatu
2. Berregin
 - Ez zuzendu azkarregi. Testua bukatutzat eman baino lehen osorik irakurri
 - Testua hobetzeko eta berregiteko teknikak erabili:
 - Edukiari dagokionez, adierazi nahi ziren ideiak garbi agertzen diren aztertuz
 - Formari dagokionez, ortografia eta egiturari erreparatuz
 - Idatzitakoa behin eta berriz irakurri, aldiari-aldian arreta jarritz: edukian, testuaren antolamenduan, gramatikako zuzentasunean, estiloan...
3. Ebaluatu
 - Lehenbiziko zirriborrotik azkeneko idazketarainoko aurrerapena ebaluatu

Estrategiak (ikus 6. eranskina)

HADE

3. maila

helburuak
eta edukiak

H
E
L
B
U
R
U
A
K
E
T
A
E
D
U
K
I
A
K

3 MAILARAKO HELBURUAK

	ENTZUMENA	MINTZAMENA
Gaitasun komunikatiboa	Kultura orokorraren mailako edozein gai eta egoeratan parte hartzeko gai izango da, baita euskara estandarrean nahiz herri-hizkuntzan edozein euskal hizketa (instrukzio, azalpen, narrazio, argudio, elkarrizketa...) ulertzeko ere. Informazio orokorra eta xehea jasoko du, baina gai espezializatuari buruzko azalpenetan, adibidez, xehetasunak ulertzeko zailtasunak izango ditu.	Kultura orokorraren mailako edozein gai eta egoeraren aurrean ikasleen arteko nahiz jatorrizko hiztunekiko elkarrizketetan, euskara estandarrean gutxienez, parte hartzeko gauza izango da. Instrukzioak eta azalpenak emateko, narrazioak eta kontaktak egiteko, iritziak eta argudioak emateko gai izango da, hauek guztiak egokitasunez, zuzentasunez eta aberastasunez egingo dituelarik.
Gaitasun linguistikoa	Jatorrizko hiztunek zein komunikabideek kultura orokorraren mailan eginiko berbaldiak ulertzeko ez du eragozpenik izango, hizketaldi horiek ulertzeko hizkuntz egituren ezagutza ona izango baitu.	Bere mezua komunikatzeko eskura dauzka baliabide linguistikoak. Hala ere, gramatikaren kontrol ona badu ere, akats gutxi batzuk egiten ditzake oraindik, batez ere sintaxia alorrean. Gaiaren eta egoeraren berezitasunengatik hitz egokia erabiltzeko ere zailtasunak izan ditzake, baina ez du inoiz mezuaren haria etengo.
Gaitasun estrategikoa	Era askotako entzumen-estrategiaz baliatzeak bermatuko du maila honetan komunikazioa. Izan ere, sor daitezkeen arazoak, besteak beste, honako hauek erabiliz gaindituko baititu: aurretiko ezagutza, testuingurua, inferentzia, hizkuntzaren azterketa formala eta semantikoa, eta abar.	Gai izango da bere adierazpena era egituratuan, egokian eta naturalean burutzeko. Horretarako hainbat estrategiaz baliatuko da: itzulinguru, bir-formulazio, autozuzenketa, ordezkapen, eta abar. Era berean, solasaldietan txanda hartzeko erraztasun osoa azalduko du eta gai berriei heltzeko edota gai aldaketari erantzuteko gauza izango da.
Gaitasun testuala	Testu-mota nagusienak bereiztuko ditu eta horien egituraz jabetuko. Era berean, garrantzizko eta azaleko ideiak ondo bereiziko ditu eta, gaia espezializatuegirik izan ezean, baita xehetasunak ere. Ideiak lotzeko erabilitako kohesio-formak edo loturak ere aise bereiziko ditu.	Maila honi dagozkion testuak (solasaldiak, kontaktak, azalpenak, argudioak...) ahoz adierazteko gauza izango da. Bere adierazpena ondo garatu eta antolatuko du, garrantzizko eta azaleko ideiak ondo bereiziz eta elkarri ondo lotuz; horretarako, mota guztietako kohesio-formez edo loturaz baliatuko da.
Gaitasun soziopragmatikoa	Kultura orokorraren mailako edozein gai eta egoerari dagokion hizkuntz erregistroa ondo bereizteko eta ulertzeko gai izango da. Era berean, mezuaren informazio errelebantea eta ezkutukoa jasotzeko gai izango da.	Kultura orokorraren mailako edozein gai eta egoeratan jarduteko, kontestuari eta gaiari erreparatuko dio eta horren arabera egokitzapena egingo du. Hala ere, tarteka zailtasunak izango ditu egoerari dagokion hizkuntz erregistroa erabiltzeko.

3. MAILARAKO HELBURUAK

IRAKURMENA	IDAZMENA
<p>Kultura orokorraren mailako prosa-testuak, saiakera arruntak, ipuinak, nobelak, erreportaje eta artikuluak, deskribapenak, iritzi-artikuluak, etab. ulertzeko gai izango da. Irakurketa helburuaren arabera informazio orokorra eta xehea aurkituko du eta gaiaren konplexutasunak nahiz irakurgaiaren egituraketak sor ditzaketen arazoak irakur-estrategiaz baliatuz gaindituko ditu, irakur helburua lortuz.</p>	<p>Kultura orokorraren mailako gaiet buruz idatziz gutunak, artikulu errazak, ipuinak, azalpenak eta antzekoak egiteko gai izango da, hauek egokitasunez, zuzentasunez eta aberastasunez egingo dituelarik.</p>
<p>Hizkuntzaren baliabide linguistikoen jabe izango denez, kultura orokorraren mailako prosa-testuak irakurtzerakoan ez du gramatika-arazorik izango.</p>	<p>Maila honi dagozkion testuak idazterakoan gramatikaren kontrol ona badu ere, akats gutxi batzuk egin ahal izango ditu oraindik, batez ere sintaxia alorrean. Gaiaren eta egoeraren berezitasunengatik hitz egokia erabiltzeko zenbaitetan zailtasunak izan ditzake.</p>
<p>Helburuen arabera irakurketa motaz baliatuko da; eta mezua ulertu ahal izateko hainbat estrategiaz baliatuko: kontestuaz eta aurretikako ezagutzaz, hipotesiak eta predikzioak egin eta egiaztatuz, irudiei eta hitz-gakoei erreparatuz. Hala ere, zenbaitetan zailtasunak izango ditu gaia espezializatua denean.</p>	<p>Idaz prozesuari dagozkion pausuak burutu ahal izateko hainbat estrategiaz baliatuko da: aurretikako plangintza burutuz, zirriborroak eta mapa semantikoak eginez, sinonimoez eta itzulinguruez, birformulazioz, berrikusketak eginez...</p>
<p>Testu-mota nagusienak bereiziko ditu eta horien egituraz jabetuko da. Horretarako, garrantziko eta azaleko ideiak ondo bereiziko ditu, baita hauek lotzeko erabilitako kohesio-formak edo loturak ere. Hala ere, gaia espezializatua denean zailtasunak aurki ditzake.</p>	<p>Kultura orokorraren mailako testuak idazterakoan informazioa testu-motak eskatzen duen egituraren arabera antolatuko du. Horrela, ondo garatu (sarrera, atalak...) eta antolatuko du bere adierazpena, garrantziko eta azaleko ideiak ondo bereiziz eta elkarri ondo lotuz; horretarako mota guztietako kohesio-formez edo loturaz baliatuko da, testuaren estiloa eta testu-mota ere kontuan hartuz.</p>
<p>Kultura orokorraren mailako prosa-testuen testuingurua (nork-nori zuzendua, zertarako, non eta noiz...) antzematen eta bereizten jakingo du.</p>	<p>Ingurunea, komunikazio xedea, komunikazioan parte hartzen dutenen arteko harreman-mota eta formaltasun-maila bereiziz bere adierazpena egokitasunez burutuko du.</p>

3. MAILARAKO EDUKIAK: ENTZUMENA eta MINTZAMENA

testua

ELKARRIZKETA / BAKARRIZKETA

Testu-erak

- Elkarrizketa informal eta formalak
- Berriak / Kronikak
- Eztabaida
- Kantak / Bertsoak (entz.)
- Dokumentala (entz.)
- Dokumentalen laburpenak
- Filmak
- Erreportajeak (entz.)
- Antzezlanak
- Esketak
- Hitzaldiak, mitinak (entz.)
- Aho-korapiloak / Asmakizunak
- Esaera zaharrak
- Debatea
- Mahaingurua
- Kontakizunak, laburpenak: bizitza, bidaiak, kirolak, filmak, pasadizo barregarriak...

Ezaugarriak

Interakziozko testuetan

- . Hasiera edo obertura (*sarrera*)
- . Bideraketa edo orientazioa (*gaiari sartzeko solaskidea erakarri*)
- . Elkarrizketaren muina (*gunea / gaia*)
- . Ondorioztapena (*balorazioa edo ebaluaketa*)
- . Bukaera (*azken agurra*)

Testu transakzionaletan

- . Instrukzioa
 - Sekuentzia lineala denboraren arabera taxutua
 - Arau zuzenak, logikaren ardatzean eratuak
 - Informazioa eta argudioa duten instrukzioak
 - . Narrazioa
 - Oinarrizko egitura:
 - . Aurkezpena (hasierako egoera)
 - . Korapiloa [indar desorekatzailea (arazoa); gertaeren garapena (ekintzak); indar orekatzailea (ondorioa)]
 - . Konponbidea (bukaerako egoera berria)
 - . Gertaeren sekuentziazioa denboraren arabera
 - . Gertaeren sekuentziazio erreala eta testuala
- Kontaktetaren egitura nahasia



kontestua

- Entzuketaren xedea
 - . Gertakarien informazioa ematea eta eskatzea
 - Norbera eta besteak aurkeztea
 - Informazioa eman eta jasotzea
 - Bestek esana zuzentzea
 - Galderak egitea
 - . Adimenezko jarrerak / egoerak adieraztea eta egiaztatzea
 - Adostasuna eta desadostasuna adierazi eta eskatzea
 - Gonbidapenak onartzea eta ez onartzea
 - Gaitasuna eta gaitasun-eza adieraztea
 - Baimenak eskatu eta ematea
 - ...
 - . Hunkipenezko jarrerak / egoerak adieraztea eta egiaztatzea
 - Atsegina, gustua, nahia adieraztea eta galdetzea
 - Ustekabea edo harridura adieraztea
 - Poza, tristura, etsipena, beldurra, kezka... adieraztea
 - Eskerrona adieraztea
 - Beharren eta desiren berri galdetzea
 - Asmoa edo xedea adieraztea
 - Errukia edo sentimendua adieraztea
 - ...
 - . Jarrera moralak adieraztea eta egiaztatzea
 - Aitzakiak jarri eta barkamena eskatzea
 - Norbaitek egina ontzat ematea
 - Norbaitek egina gaitzestea
 - Oniritzia edo gaitzespena eskatzea
 - Estimua adieraztea
 - Damua eta axolagabezia adieraztea
 - ...
 - . Zerbait eginaraztea (pertsuasioa)
 - Iradokizunak egitea
 - Besteak zerbait egitera gonbidatzea
 - Besteei zerbait egiteko aholku ematea
 - ...
 - . Gizarteko harremanak edo kunplimenduak
 - Jendea agurtzeko
 - Arreta erakartzeko
 - Topo egiteko
 - Otorduaren hasieran
 - ...
- Komunikazioaren partaideen arteko harremana ez da maila berdinekoetara mugatuko



3. MAILARAKO EDUKIAK: ENTZUMENA eta MINTZAMENA

adierazpide linguistiko-testualak

Alderdi testuala (ikus 5. eranskina)**ELKARRIZKETA**

Hasiera emateko

Bideratzeko

Elkarrizketaren muina adierazteko

Ondorioztatzeko

Bukaera emateko

INSTRUKZIOA

Agintera eta derrigorrezko perifrasiak: behar izan, -(ar)en beharra

2. pertsonaren erabilera

Zenbatzaileak: kardinalak eta ordinalak

Etorkizuna

Baldintzazko perpausak

Denborazko adberbio-sintagmak

Aditzondoak

Egiteko aginduak

Ez egiteko aginduak

NARRAZIOA

. Ekintza edota argumentua

. Ikuspuntu narratiboa edo fokalizazioa

. Lekua

. Denbora

. Pertsonaiak

. Narrazioetako polifonia

. Sinesgarritasuna

. Narrazioaren adierazleak

DESKRIBAPENA

Espazio-kokapena adierazten duten antolatzaileak

Denborazko antolatzaileak

AZALPENA

Indikatiboaren orainaldia eta geroaldia

Perpaus elkartuak

Kausazkoak

Moduzkoak

Helburuzkoak

Erlatibozkoak (definizioetan)

Nominalizazioak

Lexikoa doia eta abstraktua; baita hitz tekniko eta zientifikoak ere

Baliabide testualak (ikus 1. eranskina)



azpitrebetasunak / estrategiak

ENTZUMENA

- Berbaldian fonema, hitz eta esaldi esanguratsuak bereizi (2. mailakoez gain)

Eredu sintaktiko nagusiak igarriz

Unitate gramatikalen eta esaldien forma eliptikoak igarriz

Esaldiaren osagaiak atzemanaz

Abiadura diferenteetan entzundako berbaldiak ulertuz

- Berbaldiaren mezua norberaren aurretiko ezagutzarekin lotu (2. mailakoez gain)

. hizlariaren jarrera eta enfasia adierazten duten ez-hitzezko baliabideak atzemanaz

. abiadura eta azentua gorabehera, hitzaldiari jarraituz

. ahozko erregistroak bereiziz

. hitzaldi-mota diferenteak (formala, irakurria, ondo egituratua, ez planifikatua...) bereiziz

. informazio-hutsuneak osatuz, zehazki ematen ez den informazioa inferituz

- Kanale diferenteetan emandako solasaldiak ulertu (aurrez aurre, irratiz, telebistaz...)

- Ahozko testu baten esanahi globala ulertu (2. mailakoez gain)

. gaiak eta berbaldiaren egituraketa koherentea identifikatu eta berreraiki, bi edo hiru solaskideren berbalditik abiatuz

. diskurtsoaren koherentziaz jabetu, horretarako ideia nagusiaren eta azpigaien garapena, batasuna eta progresioa, generalizazioa eta exenplifikazioa nola gauzatzen diren aztertuz

. ahozko berbaldian lotura-hitzak atzemanaz

. gaiarekiko hizlariaren (solaskidearen) jarrera atzemanaz

. gertaera eta iritzia bereiziz

. metafora, ironia eta antzeko adierazpideak atzemanaz

- Gai baten inguruan entzundako informazio berezia atera (2. mailakoez gain)

. ideia berri bati sarrera emateko, diskurtso-adierazleak atzemanaz

. kontrako ikuspuntuak adierazteko diskurtso-antolatzaileak atzemanaz

- Testuinguruan erreferentzia hartuz hitzunen iritzi, asmo, umore-puntuu, ironia, etab. interpretatu (2. mailakoez gain)

. geldiuneek, erroreek eta zuzenketek berbaldia ulertzeko sor ditzaketen oztupoak gaintuz

- Testuko ideia nagusiei antzeman (ikus 2. maila)

MINTZAMENA

3 MAILARAKO EDUKIAK: ENTZUMENA eta MINTZAMENA

testua

. Deskribapena
 Ezaugarriak
 Identifikazioa (edo titulua, izendapena)
 Definizioa
 Hedapena (azalpena)
 Deskribapen motak
 Objektu, leku eta pertsonen deskribapen fisikoa
 Deskribapen psikikoak (egoera psikologikoen, izaeren eta sentipenen deskribapena)
 Prozesuen deskribapena:
 -nola egiten den
 -nola funtzionatzen duen
 -nola erabiltzen den
 -nola lortzen den

Deskribapenaren dimentsioak:
 - goitik beherakoa
 - zeharkakoa
 - hirugarren dimentsioa
 - denboraren dimentsioa

Azalpena
 Sarrera
 Garapena
 Ondorioa

Barne-antolamendu posibleak:
 Kausa/ondorio bezala
 Arazo/konponbide bezala
 Deskribapenezko antolaketa bezala
 Antolaketa sekuentzial bezala
 Antolaketa konparatibo bezala

Argudioa
 Hasierako tesia
 Argudioaren gorputza
 Ondorioa

Baliabide testualak (ikus 1. eranskina)

kontestua

- Komunikazio-era
 - . Interakziozkoak: jatorrizko hiztunaren benetako jardunean partaide izanik, elkarreragina adierazpide motz nahiz zabalen bidez
 - . Transakzionalak: txanda luze zein laburreko elkarrizketak, azalpen laburrak, deskribapenak, narrazioak eta argudioak
- Komunikazio-kanala
 - Zuzenean, aurrez-aurre
 - Bitartekoak medio: telefonoa, irrati-telebista, megafonia...
- Gaia: ezaguna/ezezaguna, baina kultura orokorraren mailaren eremukoa
- Hizkera: doinuera eta ahoskera euskara estandarrean nahiz herri-hizkuntzan (entz.)
- Erabilera-esparrua
 - eguneroko harremanetakoa
 - familiartekoa
 - akademikoa
 - personala
 - aisialdikoa
 - lanekoa
 - periodistikoa
 - literarioa (entz.)
 - ...

3. MAILARAKO EDUKIAK: ENTZUMENA eta MINTZAMENA**adierazpide linguistiko-testualak**

Antolatzaileak (barne antolamenduaren arabera):

- Kausa / ondorio bezala
- Deskribapenezko antolaketa.
 - Kontrajartzeak
 - Kausalitatea adieraztekoak
 - Adibideak ematekoak
 - Informazioa gehitzekoak
- Antolaketa sekuentziala
- Antolaketa konparatiboa

ARGUDIOA

Esan, uste, iritzi, argudiatu, erantzun, errefusatu... motako aditzak

Perpauk elkartuak:

- Kausazkoak
- Kontzesiboak
- Kontsekutiboak

Aurkaritza juntadurako juntagailuak

Antolatzaileak

Elementu diskurtsiboak

Ez-hitzezko kodea: keinuak, etenak, isiluneak...

Interakzioan

1.- Erantzun laburrak (ikus 1. maila)

2.- Elkarrekintzak

- . Gonbitea
- . Agurra
- . Gaiaren sarrera
- . Gaia gidatu
- . Amaitu
- . Azken agurra

3.- Hizkuntz funtzioen adierazpideak

- Norbera eta besteak aurkezteko
- Zorionak emateko
- Ukatzeko, desadostasuna adierazteko
- Baimena eskatzeko
- Eskerrak emateko
- Helbidea eskatzeko
- Aholkuak eskatzeko
- Doluminak emateko
- Gaixoren bat bisitatzerakoan
- Gomendatzeko
- Gaitzespena adierazteko
- Barkamena eskatzeko
- Norbaiten lana goraiatzeko
- Iritzia emateko
- Otorduan

Adierazpide linguistikoak 3 (ikus 4. eranskina)
Adierazpide testual eta pragmatikoak (ikus 5. eranskina)

azpitrebetasunak / estrategiak

PROZESUARI DAGOZKIONAK

Plangintza (2. mailakoez gain)

- . Gaia aurreikusi eta prestatu (informazioa, egitura, hizkuntza, etab.)

Diskurtsuaren gidatzea

MINTZAGAIA GIDATU (2. mailakoez gain)

- . Elkarrizketa beste gai batera eraman
- . Gaia desbideratu, gainetik pasa
- . Gai berri bat lehenagoko batekin lotu

INTERAKZIOA GIDATU (2. mailakoez gain)

- . Txanda hartzen jakin:
 - Hasiera eta amaiera markatuz
- . Txanda motz eta luzeetan parte hartu
- . Abiadura, erritmoa eta intonazio-ereduak menperatu
- . Jariokortasun-maila txukuna izan
- . Elkarrizketaren xedeak ezagutu eta negoziatu
- . Elkarrizketarako esamolde eta esaera egokiak erabili

Esanahiaren negoziaketa (2. mailakoez gain)

- . Jardunaren xehetasun-maila egokia aukeratu
- . Solaskideak ulertzen duen ziurtatu

Testuaren ekoizpena (ikus 2. maila)**Estrategiak (ikus 6. eranskina)**

3. MAILARAKO EDUKIAK: IRAKURMENA eta IDAZMENA

testua

INSTRUKZIOA

Testu-erak

- Argibideak (tresna, ekintza...)
- Errezetak
- Joko-arauak
- Araudiak (barne-araudiak, kultur elkarateak...)
- Iragarkiak
- Zirkulazio-kodea (irak.)
- Gonbidapena
- Hitzarmena (irak.)
- Azalpen eta erabilpen gidak
- Legeak (irak.)

Ezaugarriak

- Sekuentzia lineala denboraren arabera taxutuak
- Arau zuzenak, logikaren ardatzean eratuak
- Informazioa eta argudioa duten instrukzioak

NARRAZIOA

Testu-erak

- Telegrama
- Albistea
- Komikia (irak.)
- Ipuinak
- Kronikak
- Erreportajeak
- Pasadizoak (barregarriak, beldurrezkoak...)
- Eleberria (irak.)
- Historia kontakizuna
- Alegia / fabula (irak.)
- Kondaira (irak.)
- Biografia / autobiografia
- Antzerkia (irak.)
- Parabola (irak.)

Ezaugarriak

- Oinarritzko egitura:
 - Aurkezpena (hasierako egoera)
 - Korapiloa [indar desorekatzailea (arazoa); gertaeren garapena (ekintzak); indar orekatzailea (ondorioa)]
 - Konponbidea (bukaerako egoera berria)
 - Gertaeren sequentziarioa denboraren arabera
 - Gertaeren sequentziario erreala eta testuala
 - Kontaktaren egitura nahasia

DESKRIBAPENA

Testu-erak

- Grafikoa
- Ikaskideen lanak
- Eskema
- Katalogoa
- Gurutzegramarako adieraburua
- Hiztegi, testuliburu eta kontsulta-materialetak definizioak (irak.)
- Lan-hitzarmena
- Lan-eskaintza
- Testamentua
- Isuna
- Ziurtagiria

Ezaugarriak

- Identifikazioa (edo titulua, izendapena)
- Definizioa
- Hedapena (azalpena)

Deskribapen-motak

- Objektu, leku eta pertsonen deskribapen fisikoa
- Deskribapen psikikoak (egoera psikologikoen, izaeren eta sentipenen deskribapena)



kontestua

• Irakurketaren xedea

Gertakarien informazioa ematea eta eskatzea

Norbera eta besteak aurkeztea

Informazioa eman eta jasotzea

Bestek esana zuzentzea

Galderak egitea

Adimenezko jarrerak / egoerak adieraztea eta egiaztatzea

Adostasuna eta desadostasuna adierazi eta eskatzea

Gonbidapenak onartzea eta ez onartzea

Gaitasuna eta gaitasun-eza adieraztea

Baimenak eskatu eta ematea

...

Hunkipenezko jarrerak / egoerak adieraztea eta egiaztatzea

Atsegina, gustua, nahia adieraztea eta galdetzea

Ustekabea edo harridura adieraztea

Poza, tristura, etsipena, beldurra, kezka... adieraztea

Eskerrona adieraztea

Beharren eta desiren berri galdetzea

Asmoa edo xedea adieraztea

Errukia edo sentimendua adieraztea

...

Jarrera moralak adieraztea eta egiaztatzea

Aitzakiak jarri eta barkamena eskatzea

Norbaitek egina ontzat ematea

Norbaitek egina gaitzestea

Oniritzia edo gaitzespena eskatzea

Estimua adieraztea

Damua eta axolagabezia adieraztea

...

Zerbait eginaraztea (pertsuasioa)

Iradokizunak egitea

Besteak zerbait egitera gonbidatzea

Besteei zerbait egiteko aholku ematea

...

Gizarteko harremanak edo kunplimenduak

Jendea agurtzeko

Arreta erakartzeko

Topo egiteko

Otorduaren hasieran

...



3. MAILARAKO EDUKIAK: IRAKURMENA eta IDAZMENA

adierazpide linguistiko-testualak

Alderdi testuala (ikus 5. eranskina)

INSTRUKZIOA

Agintera eta derrigorrezko perifrasiak: behar izan, -a(r)en beharra

2. pertsonaren erabilera

Zenbatzaileak: kardinalak eta ordinalak

Etorkizuna

Baldintzazko perpausak

Denborazko adberbio-sintagmak

Aditzondoak

Egiteko aginduak

Ez egiteko aginduak

NARRAZIOA

. Ekintza edota argumentua

. Ikuspuntu narratiboa edo fokalizazioa

. Lekua

. Denbora

. Pertsonaiak

. Narrazioetako polifonia

. Sinesgarritasuna

. Narrazioaren adierazleak

DESKRIBAPENA

Espazio-kokapena adierazten duten antolatzaileak

Denborazko antolatzaileak

AZALPENAK

Indikatiboaren orainaldia eta geroaldia

Kausazkoak

Moduzkoak

Helburuzkoak

Erlatibozkoak (definizioetan)

Nominalizazioak

Lexiko doia eta abstraktua; baita hitz tekniko eta zientifikoak ere

Baliabide testualak (ikus 1. eranskina)



azpitrebetasunak / estrategiak

IRAKURMENA

- Irakur-estrategiak irakur xedeari egokitu
- Irakurtzeko abiadura xedearen arabera antolatu
- Testuaren itxura gainbegiratu letra-mota, formatoa eta banaketa aztertuz (2. mailakoez gain)
 - Testuaren makroegitura atzeman
- Gaia gainbegiratu hitz gakoak eta zenbait informazio eskuratuz (2. mailakoez gain)
 - Testua gainirakurri gertaerak, datuak, iritziak eta zurrumurruak atzemateko
 - Helburu jakin baterako informazio errelebantea aurkitu
 - Testua irakurri aurretik formulatutako hipotesiak egiaztatu
- Testuaren informazio orokorra aurkitu (2. mailakoez gain)
 - Irakurritakoaz baliatu falta den informazioa inferitzeko
 - Esaldi edo diskurtso-mailako kontestuz baliatu hitz ezezagunen esanahia asmatzeko
- Testuaren informazio xehea jaso (2. mailakoez gain)
 - Hitz batek har ditzakeen formen arteko lotura atzeman (deklinabidea, eratorpena, konposaketa...)
 - Erreferente anaforikoak eta kataforikoak identifikatu
 - Irakurritako testuaren funtzioa aurkitu (informatu, argudiatu, agindu, leziatu...)
 - Lerroartean irakurtzen jakin, espreski azaldu ez diren ideiez jabetzeko
- Irakurri osteko eginkizunaz aldeztu aurretik jabetu eta aztertu



3. MAILARAKO EDUKIAK: IRAKURMENA eta IDAZMENA

testua

Prozesuen deskribapena:

- nola egiten den
- nola funtzionatzen duen
- nola erabiltzen den
- nola lortzen den

Deskribapenaren dimentsioak:

- goitik beherakoa
- zeharkakoa
- hirugarren dimentsioa
- denboraren dimentsioa

AZALPENA

Testu-erak

- Administrazioko idazkiak: erreklamazioak, eskaintzak, eskariak, errekursoak (irak.)...
- Egunkari eta aldizkarietako erreportajeak (dibulgaziozkoak)
- Egunkari eta aldizkarietako artikulua (dibulgaziozkoak)
- Entziklopedietako azalpenak
- Laneko txostenak
- Aktak
- Lan-egitasmoak

Ezaugarriak

- Sarrera
- Garapena
- Ondorioa
- Barne-antolamendu posibleak:
 - Kausa/ondorio bezala
 - Arazo/konponbide bezala
 - Deskribapenezko antolaketa bezala
 - Antolaketa sekuentzial bezala
 - Antolaketa konparatibo bezala

ARGUDIOA

Testu-erak

- Administrazioko idazkiak: erreklamazioak, eskaintzak, eskariak, errekursoa (irak.)...
- Iruzkina
- Kritikak (liburu-, zine-kritika)
- Editoriala
- Iritzi-artikuluak
- Publizitatea
- Txostena
- Kontratuak (irak.)
- Komunikazioa (irak.)
- Iradozikuna

Ezaugarriak

- Hasierako tesia
- Argudioaren gorputza
- Ondorioa

Argudio-motak

- . Frogatzailea. Egituraketa sendoa eta progresio logikoa. Antolatzaile ugari. Tesia garbi uzten duten estrategiak.
- . Azaltzailea. Estrategia askoz neutroagoa, azalpenezko testuetatik hurbil. Antolatzailearen azterketa baino informazioaren ugaritasuna da interesgarriagoa.
- . Dialogikoa. Aurrez aurreko elkarrizketa bizia (ukapenak, ironia, amore emateak...)

Argudiaketa-estrategiak

- Argudio logikoa
- Argudio pragmatikoa
- Autoritate-argudioa
- Talde-argudioa
- Adibide-argudioa
- Analogia-argudioa
- Bereizketa-argudioa
- Erdibidearen argudioa

Baliabide testualak (ikus 1. eranskina)

kontestua

...

- Igorle-hartzaile harremana
 - publikoa / pribatua
 - urruntasunezkoa / gertutasunezkoa
 - hierarkikoa / solidarioa
 - formala / informala
- Komunikazio-kanala
 - Eskuz bat-batean idatziak, egunkaria, inprimakiak, foiletoak, liburuak, menuak, mapak, txostenak, aldizkariak..
- Komunikazio-era
 - Irakurgai erreala / Irakurgai pedagogikoa
 - Euskaraz sortua / Itzulpena
- Erabilera-esparrua
 - eguneroko harremanetakoa
 - familiartekoa
 - akademikoa
 - pertsonala
 - aisialdikoa
 - lanekoa
 - periodistikoa (irak.)
 - literarioa (irak.)
- Gaia: ezaguna/ezezaguna, baina kultura orokorraren mailaren eremukoa

3. MAILARAKO EDUKIAK: IRAKURMENA eta IDAZMENA**adierazpide linguistiko-testualak**

Antolatzaileak (barne-antolamenduaren arabera):

Kausa / ondorio bezala

Deskribapenezko antolaketa

Kontrajartzeak

Kausalitatea adieraztekoak

Adibideak ematekoak

Informazioa gehitzekoak

Antolaketa sekuentziala

Antolaketa konparatiboa

ARGUDIOA

Esan, uste, iritzi, argudiatu, erantzun, errefusatu... motako aditzak

Perpau elkartuak

Kausazkoak

Kontzesiboak

Kontsekutiboak

Aurkaritza juntadurako juntagailuak

Antolatzaileak

Adierazpide linguistikoak 3 (ikus 4. eranskina)

azpitrebetasunak / estrategiak

IDAZMENA

Prozesuari dagozkionak

Plangintza

1. Helburuen zehaztapena (2. mailakoez gain)

Zehaztu nolako testua izango den (luze-zabalera, tankera, eitea...)

Zehaztu zein den idazle-irakurle harremana (erregistroen tratamendua)

2. Ideiak bildu (2. mailakoez gain)

Helburu espezifikoetarako ideiak bildu

Hainbat informazio-iturri kontsultatu

3. Eraketa (ikus 2. maila)

Testua gauzatzea (2. mailakoez gain)

Irakurleari testua ulertzen lagunduko dioten baliabideak erabili (testu-adierazleak, izenburuak, laburpenak...)

Berrikusketa

1. Irakurri (2. mailakoez gain)

Hainbat modutara irakurri irakurmeneko azpitrebetasunez baliatuz

2. Berregin (2. mailakoez gain)

Akatsak sailkatzen jakin lehentasunaren arabera, arazo orokorrak edo sakonak eta azalekoak edo puntualak bereiziz

Zuzentzeko teknika egokia aukeratu, akatsaren ezaugarriara egokituz

3. Ebaluatu (ikus 2. maila)

Lehenbiziko zirriborrotik azkeneko idazketarainoko aurrerapena ebaluatu

Estrategiak (ikus 6. eranskina)

HADE

H
E
O
K

4. maila

helburuak

4. MAILARAKO HELBURUAK

	ENTZUMENA	MINTZAMENA
Gaitasun komunikatiboa	Hizkuntza estandarrean edozein diskurtso (kultura-maila zabalekoak, norbere interesekoak edo espezialitatekoak) bere osotasunean ulertzeko gai izango da. Euskalkietako berbaldia ere ez zaio arrotza egingo eta mezua bere funtsean jasoko du.	Kultura-maila goreneko eta norbere espezialitateko gaien inguruan elkarrizketa mantentzeko, iritziak emateko, edota beharbada, jendaurrean azalpena egiteko gai izango da.
Gaitasun linguistikoa	Lexiko aldetik eta hizkuntz egituren aldetik ez du eragozpenik izango edozein berbaldi ulertzeko. Gainera, hiztunaren zuzentasunez ohartuko da.	Hizkuntz egiturak ondo menperatzen baditu ere, zailtasunak izan ditzake kontzeptu zailen bat azaltzerakoan, batez ere perpaus luzeetan.
Gaitasun estrategikoa	Hizkuntza kolokialaren ñabarduretara, kontestu zehatzetara hurbiltzeko gai izango da. Bat-batean gertatzen diren hutsuneak, testuinguruaren bidez osatuko ditu.	Bere jardunean gaitasunen baten faltaz sor daitezkeen egoerei "buelta" ematen jakingo du, itzulinguruz, berformulazioz... baliatuz.
Gaitasun testuala	Berbaldiaren egitura, ordena eta joskeraz jabetuko da, eta testu-motak ezagutu eta bereiziko ditu.	Interakzioetan diskurtsoaren hariari jarraituko dio; bere iritzia eman eta argudiatzeko gai izango da. Azalpenak ordena logikoz egituratuko ditu. Berbaldia koherentea izango da, hari logikoari lotua eta kohesio-formez dotore josia.
Gaitasun soziopragmatikoa	Entzundako testuaren arabera kontestua asma dezake. Berbaldiak bere kontestuan ulertuko ditu.	Mintzatzerakoan, kontuan izango ditu nori, zergatik eta zein egoeratan zuzentzen zaion. Eta hauei egokituriko funtzio komunikatiboz, estilo eta erregistroz baliatuz mintzatuko da.

4. MAILARAKO HELBURUAK

IRAKURMENA	IDAZMENA
<p>Batuan zein euskalkitan idatziriko kultura-maila goreneko testuak eta testu espezialduak emandako informazioa jasotzeko gai izango da.</p>	<p>Kultura-maila orokorreko nahiz goragoko gai sozial ala espezialduz gain, hizkuntza formalean nahiz informalean egoerari egokitzuz eta arrakasta lortzeko moduan, hainbat motatako testuak zuzen, zehatz eta jator idazteko gai izango da.</p>
<p>Gramatika-arazorik ez du izango irakurtzerakoan. Oso gutxitan jo beharko du hiztegira hitz teknikoaren esanahia edo hitz arrunten esparru semantiko zehatza aurkitzera.</p>	<p>Gramatika orohar menperatzen du, baita esaldi konplexuak ere. Oharkabeko akatsen bat izango du. Hitz zehatzak aukeratzekoan hiztegira joko du. Maileguzko hitzen idazkeran ere zalantza izango ditu.</p>
<p>Behar duen informazioa azkar eskuratzeko baliabideen jabe izango da. Ulermen-hutsuneak berehala konponduko ditu, horretarako estrategia aipatuz.</p>	<p>Maila honi dagozkion idazlanak burutzeko estrategia egokiak erabiliko ditu, bai testua planifikatzerakoan, gauzatzean eta ebaluatzerakoan, idazlan koherenteak, zehatzak eta egokiak sortuz.</p>
<p>Idea nagusia eta xehetasunak bereiziko ditu. Testuaren egitura eta berezitasunaz jabetuko da. Kohesio-formak bereiziko ditu.</p>	<p>Iritziak, baieztapenak, definizioak, argudioak, arrazoibideak garbi, zehatz eta eraginkor azalduko ditu. Esaldien arteko loturak testuari dagokion logikaz erabiliko ditu. Egituraketa egokia, ordena, informazioaren mailaketa, adierazpen argia eta zehaztasuna izango dira idazlanaren berezitasun batzuk.</p>
<p>Irakurgaiak bere kontestuan ulertuko ditu eta egoera jakinei dagozkien funtzio komunikatibo, erregistro eta estilo bereziaz ere jabetuko da.</p>	<p>Egoerari, hartzaileari eta zergatiari dagokion idazki-mota burutuko du, funtzio komunikatiboa eta erregistroak kontuan hartuz.</p>

HADE

metodologia

HADE
E
O
K

Kurrikuluaren diseinuaren barruan ahaztezinezkoa da metodologiaren azterketa; izan ere, berau da ikaskuntzako bitartekorik nagusietakoa. Metodologia programarekin estu loturik dago, baina ez dute isomorfoak izan beharrik (Larsen-Freeman 1988); alegia, halako programari ez dagokio ezinbestez honako metodologia. Horrela, programa ustez kaskarra metodologi bide arrakastatsu bihurtu daiteke, eta emaitza onak eman.

Alderantziz, planteamendu metodologiko oker batek gainbehera bota dezake programarik onena. Horrek ez du esan nahi, alabaina, programa bigarren mailako kontua denik. Programak, helmugak markatzen dituen neurrian, norabidea argitu ez ezik, ikasesperientzien eitea diseinatzen ere lagun dezakeelako.

Metodologiaren alorrean murgildu orduko, berehala atzematen da aukera metodologikoen ugartasuna (Larsen-Freeman 1986). Planteamenduak ugariak bezain ezberdinak dira, antza. Aritu zenbaiten ustez, ordea, aniztasun hori ez da hainbesterako. Martonek (1991), esaterako, lau kategoriatan biltzen ditu bide metodologiko ugari horiek.

Horrenbeste alternatiba izatea nahasgarri gerta dakioke irakasleari, ziurtasunik eza eta egonezina sortuz. Hala ere, aniztasuna indargarri ere bada; "zeren eta, modu zuzen bakarrean ari garela irakasten jakiteak nolabaiteko segurtasuna ematen badu ere, aldi berean askatasunik ezaren sentipen itogarria ere ematen baitu" (Larsen-Freeman 1988).

Ugartasuna, bestalde, psikolinguistikaren egoera beraren ondorio da. Hizkuntz irakaskuntzaren zientzia ez da iritsi metodologia onena zein den frogatzera, ezta iritsiko ere agian. Ez dago metodorik onenik; euskararen eskurapena bideratzen duten neurrian izango dira egokiak. Irakasleari dagokio aukeraketa egitea, hainbat baldintzaren arabera (Marton 1991); izan ere, egoera, ikasleak eta beren buruak sakon ezagutzen dituztenek bakarrik egin ditzakete aukeraketak.

Irakaslana zientzia eta artearen konbinazioa da: "zientziak lagundu egiten digu informaturik egoten, irakaskuntza eta hizkuntza ulertzen laguntzen baitigu; baina irakaslanaren alderdi artistikoa da informazio zientifikoa era berezian interpretatu eta aplikatzea eskatzen diguna, dauden aukerabide metodologikoen artean jakin baterako aukeraketak eginez" (Larsen-Freeman 1988).

Ondoren, oinarri metodologiko nagusi batzuk aipatzen dira; ez guztiak, noski; asko baitira. Horregatik, aukera metodologikoak egiterakoan nagusiki aintzat hartu beharko liratekeenak ematen dira soilik. Ondoren, prozedura metodologikoak izango dira aztergai, hauen artean ere hiruzpalau prozedura nagusi aipatuko direlarik.

METODOLOGIAREN OINARRIAK

OINARRI PSIKOLOGIKOAK

Prozedura metodologikoak berauek eragiten dituzten adimen-operazioen ildotik azter daitezke. Eta funtsezkoa da horiei erreparatzea, ikasprozesua ikasleen ikasestrategiei egokituko bazaie. Metodologia orekatuak, gainera, aipatu adimen-operazio horiek jorrazteko aukera eman beharko luke.

Analisisa/sintesia

Hainbat jarduera metodologikok sintesia hobesten dute, hala nola, ikasi beharreko hizkuntz korpusa xehetuz eta banan-banan landuz, ezari-ezarian eta denboraren poderioz ikasleek sintetizatu eta integratuko dituztelakoan. Bide horretatik abiatu dira hizkuntz formetan ez ezik hizkuntz nozio eta funtzioetan ere oinarritu diren programak. Testuak oinarri dituztenei, berriz, gutxitan eman zaie tratamendu hori, gurean behintzat.

Beste jarduera metodologiko batzuek analisiaren aldeko apustua egin dute, ikaslea hizkuntzaren input ulergarri bezain aberatsari aurkeztatuz, honen mezu eta formaren (elementu linguistiko eta diskurtsiboak, testuen egitura...) analisisa buru dezan.

Bi planteamendu hauek ez dira elkarren aurkako, osagarri baizik. Alditan printzipio sintetikoak hobetsiko dira eta bestetan analitikoak.

Baldintzapena/desbaldintzapena/erabilera

Batzuek baldintzapenaren eta erabilerearen inguruan ardazten dute beren jarduera metodologikoa. Baldintzapen-unean ikasleari esanahi jakin bat adierazten duen elementu linguistikoa ematen zaio, behar bezala aurkeztuz eta landuz, norberegianatu ondoren beste egoeretan erabiliko duelakoan.

Jarduera hori hankamotz geratzen da; alde batetik, "ikasitako" zenbait elementu ikasleak ez du erabiltzen; eta, bestetik, gaizki erabiliaz, akatsak fosilizatzeko arriskua du. Horrexegatik, eta erabilera unearen garrantzia ahaztu gabe, behar-beharrezkoa da desbaldintzapena, arestian aipatu gabeziak gaindituko badira.

Desbaldintzapen-unean irakasleak esanahia eskaintzen dio ikasleari egoera baten bidez, hori adieraziko duen forma egokia aukera eta adieraz dezan, baina ez edozein, irakasleak gogoan duena baizik.

Irakasleak ez luke pentsatu behar ikasleek komunikamena berez hobetzeko joera dutenik; fosilizatzeko joera handiagoa baitute, seguraski.

Ulermena/ekoizpena

Ama-hizkuntzan handiagoa izaten da ulermena, idatzizkoarena nahiz ahozkoarena, adierazpena baino. Eta hori normala da, ez baitira berdinak bi prozesuotan ematen diren adimen-ekintzak; bigarrenekoak askoz konplexuagoak dira. Bai ulermenak, bai adierazpenak garapen progresiboa dute, baina beti egongo da asimetria bi prozesuen artean. Aldi berean, ekoizpen-mailako adierazpenak ulermenezkoak baino murrizagoak izango dira, ulermen mailako hainbat elementu maiztasun gutxikoak edo hizkuntzaz baliatzeko beharrezkoak ez direlako. Horrela, ba, xede-hizkuntza ikasterakoan kontuan hartzekoa da aipatu fenomeno hori.

Ildo honetatik, zenbait planteamendu metodologikok ulermenaren garapena dute oinarri (Marton 1991; Krashen eta Terrell 1983); eta batzuek ahozko adierazpena atzeratzearen aldekoak dira.

Ulermenetik ekoizpenerako bidea prozesu naturala da. Ulermena ekoizpena baino lehenagoko pausoa da, baina ezin da ekoizpena erabat azkenerako utzi. Badago hizkuntzaren ikaskuntzaren hasieratik bertatik ekoizpena bultzatzerik, hala nola, hizkuntza soziala deiturikoan, hau da, gela barruko eguneroko bizitzan ematen diren elkarrekintzetan: agurtu, baimena eta argibideak eskatu...

Ulermenetik ekoizpenerako prozesuak denbora eskatzen du; tarte horretan isiluneak gertatzen dira. Hala ere, badago prozesu hori azkartzerik; esaterako, lehen aipaturiko desbaldintzapenez eta berreraiketa-estrategiaz baliatuz.

Azpimarratzekoa da, halaber, ekoizpena funtsezkoa dela ikasprozesuaren garapenean. Eta ikasleari eragin behar zaio bere hizkuntz gaitasuna erabil dezan, gaitasun hori murrizta bada ere.

Tarteko hizkuntza eta erroreak

Bigarren hizkuntza ikasterakoan, psikologiaren aldetik, berezko gertaera da tarteko hizkuntza, ondo aztertua izan den fenomenoa (Corder; Selinker; Norrich 1989). Hau "bigarren hizkuntza edo hizkuntza arrotza ikasten ari denak erabiltzen duen hizkuntza da. Ikaslearen lehen hizkuntzaren eta ikasten ari denaren arteko sistema baten itxura du. Ikasleak aurreratu ahala, tarteko hizkuntza, ikasi beharreko hizkuntzaren gero eta antz handiagoko bilakatzen da. Hala ere, ikasleak oraindik ere erabiltzen ditu tarteko hizkuntzaren elementuak, ez lehen hizkuntzarekin, ez ikasten ari denarekin zuzenean loturik daudenak", (UZEI 1987: 100).

Ikasleek egiten dituzten erroreak tarteko hizkuntzaren ildotik ikusi behar dira, hizkuntza berriaren sistema barneratzen ari diren adierazpen gisa, eta ez ikaskuntza ezaren adierazle. Errore batzuk performantzi errore dira eta besteak egiturazkoak, konpetentzia ezaren adierazle. Erroreekiko jarrerak ezberdinak dira. Batzuk elkarren kontrajarriak, gainera (Marton 1991). Horien artean honako hauek hobets daitezke:

- Ezin da espero zuzenketa puntualek berehalako konponketa ekarriko dutenik (Lightbown 1983); ezta ere berez konponduko direnik. (Aintzakotzat hartu beharrekoa da lehentxoago desbaldintzapenez esandakoa eta geroxeago hizkuntzaren ezaugarri formalei buruz esango dena.)
- Erroreen zuzenketak denbora, patxada eta pazientzia eskatzen ditu. Ezin da nolana hikoia izan, selektiboa baizik. Irakasleak erabaki beharko du noiz eta nola egin zuzenketa, beti ere helburuen arabera.
- Zuzenketak, bestalde, ziklikoa izan behar du; eta ez behin eginda gero bere horretan utzi, arazoa konpondu delakoan.
- Ikaslearen sentsibilizazioa ere behar-beharrezkoa da, egoeraren jabe izanik, erroreei aurre egin ahal izateko.

OINARRI LINGUISTIKOAK

Benetakotasuna edo jatorritasuna

Hizkuntzaren irakaskuntzan gero eta gehiago azpimarratzen da alderdi pragmatikoa (Ruiz de Mendoza 1992), alegia, jatorrizko hitzunik hizkuntzarekin benetan egiten duena. Ildo horretatik jo du gehienbat planteamendu komunikatiboak (Marton 1991), aukeratzen den inputa eta diseinatzen diren atazak benetako erabileraren bidetik planteatuz. Aitortu behar da ekarpen hau onuragarria izan dela, beti ere ikasprozesuaren helmuga present izatea funtsezkoa delako.

Hori horrela izanik, ikuspegi hori azken muturreraino eraman izan da, oinarri linguistiko eta psikologikoen artean gatazkak sortuz (ikaslearen hizkuntza beharren aldetik printzipio pragmatikoak berez egokiagoak izan arren, ikaskuntzaren aldetik, esaterako programa gramatikalak, egokiak gerta baitaitezke zenbaitetan). Ez da ahaztu behar pragmatika hizkuntzaren izari nagusienetako bat dela (Larsen-Freeman 1988); ahaztu behar ez den bezala, halaber, benetakotasuna kontzeptu erlatiboa dela. Esaterako, gurasoen hizkuntza benetakoa da haurrentzat, baina ez besteentzat; eta gauza bera esan daiteke arrotz-hizkuntza eta irakasle-hizkuntzari buruz ere, ikaslea berezko hiztuna ez delako (HABE 1988: 73).

Erlatibotasun horren haritik onargarri dira testu egokituak, zein ikasleari begira propio sortutakoak, edota ikasteko baliagarri den edozein teknika, ikuspegi pragmatikotik onuragarri ez izan arren, berreraiketa-estrategiak kasu.

Hizkuntzaren ezaugarri formalak

Hizkuntzaren ezaugarri formalei erreparatzean edo baztertzean datza metodologiak bereizteko ezaugarriak nagusienetakoa (Marton 1991). Eduki eta mezuan jarri behar dela arreta diote batzuek; bestek, aldiz, ezaugarri formalei ere erreparatu behar zaiela (Larsen-Freeman; Hutchinson), forma hizkuntzaren ezaugarri nagusienetakoa delako, fosilizioa saihesteko eta komunikamena ahalbideratzeko. Ezaugarri formalak esatean ez dira kontuan hartzen gramatikazko formak bakarrik, baita testuari dagozkionak ere, hala testuaren egitura eta loturak, nola esamolde, etab.

ONARRI AFEKTIBO-BOLITIBOAK

Ezin da ahaztu alderdi afektibo-bolitiboek ikas-prozesuan duten garrantzia. Eta arlo honi dagokionez, metodologiak badu zer esanik, andragogikoa den neurrian; ikasleen satisfazio-maila eta ikasteko gogoia areagotuko baititu. Andragogikoa esatean, zera esan nahi da: ikasleen ikas-estiloetara egokitzea; ikas-esperientziak beraien interes, behar, kezka eta munduarekiko ezagutzara moldatzea (Piper 1984); autoadierazpena bideratzea eta harreman-sare humanistikoak eraikitzea.

ONDORIOA

Hasieran emandako baieztapena izan daiteke atal honen ondorio: "ez dago metodo onenik". Eta metodologia eta metodoaren kontzeptu beraien azalpena izan daiteke horren argigarri.

Irakas/ikas-prozesuaren barruan irakasleak erabiltzen dituen ariketek, atazek eta ikas-esperientziek zeratzen dute metodologia. Irakaslearen honako oinarriok ditu ardatz:

- Hizkuntza eta ikaskuntzari buruzko ikuspegia.
- Irakaslea eta ikasleen rolei buruzkoa.
- Ikas-ariketa eta ikas-materialei buruzkoa.

Ikuspegi horiek dira, hain zuzen, unean uneko irakas-prozesuan zehar propio edo oharkabean hartu beharreko erabakien oinarri. Beraz, metodologia ez da zerbait finkoa, ezta irakasleak ezinbestez betebeharreko printzipio eta prozedura multzoa ere, prozesu dinamiko, sortzaile eta arakatzailerak baizik; irakaslea ikas-taldearen aurrean aurkitzen den bakoitzean martxan jartzen den prozesua, hain zuzen.

Metodoek, aldiz, honako ezaugarriok dituzte elkarrekin batera: ikasleek zein irakasleek ikasgelan bete beharreko

agindu-multzoa (irakasleak zer, noiz eta nola irakatsi behar duen; ikasleek nola burutu behar duten ikaskuntza). Beraz, ikasle, irakasle eta ikas-materialen rol jakinak ezartzen dira. Irakasleen esku dago bere eta ikasleen ikas-estiloak metodora egokitzea. Metodoa, ba, jarraitu beharreko eredia da.

PROZEDURA METODOLOGIKOAK

Atal honetan hizkuntz irakaskuntzari buruzko eredu metodologiko zenbaiten aipamena egiten da. Ez dira guztiak ezinbestez kontrajarriak, elkarren osagarriak baizik.

AURKEZPENA/ PRAKTIKA KONTROLATUA/PRAKTIKA ASKEA (APP)

Hau dugu hizkuntz irakaskuntzaren jardueran eredurik zabalduenetakoa. Eredu honen arabera, ikasleei hizkuntz zati laburrak (hizkuntz forma, hizkuntz funtzioen adierazpide zenbait, hitz-multzo...) isolatu eta aurkezten zaizkie. Aurkezpen honetan hizkuntza berez erabil daitekeeneko egoera aukeratzen da eta esaldi-eredua(k) aurkezten, beti ere egoera eta honen azpian dauden kontzeptuak ulertzen diren kontuan hartuz.

Ondoren praktika kontrolatuaren unea dator, hasiera batean irakaslearen kontrol estupean. Etapa hau askotan eredia errepikatzen mugatzen da, eta bertan zuzenketa ugari egiten dira. Gauzak bide onetik joanez gero, ezari-ezarian kontrola jaisten joango da, honelako teknikez baliatuz: ordezkapen-drillak, binakako lana, rol-jokoak eta elkarrizketa-eraketa.

Praktika askeak ikasleak hizkuntza askatasunez erabiltzera bultzatzen ditu, ikasitako hizkuntza egoera berri batean ekoiztea helburu duenari. Zuzentasunetik jariatutasunerara jotzen da, irakaslearen kontrol estutik kontrol gutxiagora, entzumenetik mintzamen, irakurmen eta idazmenara.

Eredu honi "Input-output" eta "Irakatsi-testatu" izena eman izan zaio zenbaitetan eta zehazki aztertua izan da (Bergara 1989; Willis 1996), baita kritikatu ere (Scrivener 1996; Willis 1994).

LAU HELBURUKO EREDUA

C. Lovelock-ek (1996) APPren eredia zabaltzen du lau kategoriako eredia proposatuz:

- Testuinguruan jartzea (T): APPren aurkezpena baino zabalagoa da, ikasleei ez baitaie esaten euren arreta hizkuntz item zehatzetara mugatzeko, testuko edozein arlotara zabalik egoteko baizik.
- Arretagunea bereiztea (A): Hizkuntzaren osagaiak izan daitezke arretagune, baita kultur gaiak ere, edota ikasestrategiak...
- Praktika (P): Jarduera-multzo zabala hartzen du, guztiz mekaniko eta errepikakorrak diren drilletatik bukatu askoz ere irekiagoak dauzkan jardunetara.
- Erabilera (E): Helburu nagusia komunikazioa da; beraz, E jarduerak ahalik eta itxuririk benetako edo erre-alistenarekin aurkeztu beharko litzaizkieke ikasleei.

BENETAKO ERABILERA/ERABILERA MUGATUA/ARGIBIDEAK (BEA)

Scrivener-ek (1996) aitortzen du APP oso eredu erakargarria dela, komentzigarria eta bere dotorean sinplea, baina arazo asko sortzen dituela. Berak beste eredu bat proposatzen du, aurrekoa bezain sinplea, baina deskribatzailea, klasean egin ohi diren jarduerak nolabait biltzen eta deskribatzen dituena.

Eredu honek hiru osagai nagusi eskaintzen ditu:

- Benetako erabilera (B): ikaslearen hizkuntzak ez du inongo mugarik ulertzeko edo erabiltzeko orduan.
- Erabilpen mugatua (E): ikaslearen hizkuntzari nolabaiteko mugak ezartzen zaizkio ulertzeko edo erabiltzeko orduan.
- Argibideak (A): ikasleek arreta berezia jartzen dute hizkuntz item batean, erreparatu, hausnartu eta hobeto ulertzeko.

Hiru osakin horiek era batera edo bestera konbinatuz, ikasgai-mota ugari sor daitezke. Adibidez, AEEB ikasgaia argibideak emanez hasiko da, erabilera mugatuzko bi ariketekin jarraituko du eta benetako erabilerekin bukatu. Eredu-mota hau, funtsean, aurreko atalean deskribatutako APP ereduaren antzekoa da.

Beste era askotako konbinaketak ere osa daitezke (EAE, BAB, EAB, BEA, etab.), horrela ikasgai-ereduak ugaltuz.

ATAZETAN OINARRITUTAKO IKASKUNTZA (AOI)

Atazetan oinarritutako prozedura metodologikoak azken urteotan gero eta jarraitzaile gehiago ditu eta honen inguruan azalpen ugari plazaratu dira (Prabhu 1987; Nunan 1989; Estaire eta Zanon 1990; Willis 1996; Skehan 1997). Hemen Estaire & Zanon eta Willis-en eredia eta Skehan-en markoa azalduko dira.

Ataza helburu batera bideratutako eragiketa da, hizkuntzaz baliatuz benetako zerbait lortzearren; ikasleak beren hizkuntz ezagupen guztiez balia daitezke problema konpontzeko, esperientzia elkartrukatzeko, jokoan aritzeko etab.

Estaire eta Zanon-en eredia

Sei urrats bereizten dituzte:

- Gaia edo interesgunea aukeratu.
- Azken ataza (bizitza errealean hizkuntzaz baliatuz egiten denaren antzekoa) zein izango den planifikatu.
- Unitatearen helburuak zehaztu.
- Azken ataza burutzeko beharrezko izango diren edukiak (tematikoak, linguistikoak, bestelakoak) zehaztu.
- Prozesua planifikatu: azken ataza burutzeko prozedurak eta ataza bideragarriak zehaztu; horretarako material egokiak aukeratu, egokitu, sortu; atazak egituratu eta hurrenkeratu.
- Prozesua eta produktua ebaluatzeko tresnak planifikatu.

Skehan-en AOI-rako markoa

Skehan-ek (1997) AOI gauzatzeko markoa eskaintzen digu. Bere ustez, bigarren hizkuntzaren eskurapenari buruzko ikerketak eta irakaskuntza komunikatiboa batera doaz eta atazetan oinarritutako planteamenduen aldeko jarrera bultzatzen dute. Halere, eta planteamendu hau gaur egun oso zabaldua dagoen arren, behar bezala ez planteatzeak eta kontuz ez ibiltzeak sor ditzakeen arriskuaz ohartarazten gaitu. Izan ere, esangurarekiko joerek (nola-hala komunikatu beharrak), denbora errealeko prozesamendu-arazoez (denboraren presiopean komunikazioa lexikoan oinarrituago egotera pasa daiteke), eta estrategiak erabiltzeko erraztasunek (komunikazio-oztopoak gainditzeko ulermen- eta ekoizpen-estategiak) formatik aldentzeko joera bultzatzen dute.

AOIren planteamendu efektiborik egingo bada, hiru helburu izango dira kontuan:

- 1) Berregituratzea. Ikasleek hizkuntz sistema, barneratu ahala, etengabe eboluzionatzen jarraitu behar dute, hipotesi berriak formulatuz, hipotesi zahar eta okerrak baztertuz eta fosilizazioaren arriskuak saihestuz. Hau da, daukaten tarteko hizkuntzaren sistema berregituratzeko aukera izan behar dute.
- 2) Zuzentasuna. Zuzentasuna ez da automatikoki etortzen, landu egin behar da. Garrantzitsua da ikasleak, edozein mailatan dagoela, hizkuntza zuzen erabiltzea eta zuzentasuna helburu hartzea.
- 3) Jarioa. Jarioa hizkuntza erabiltzeko abiadura naturalarekin lotuta dago. Ikasleak sistema hain ondo ezagutzen du, abiadura naturalarekin erabiltzen baitu prozesatzeko bide lexikoa eta sintaktikoa konbinatuz.

Hiru helburuok nahiko erraz eskuratzen dira banan-banan. Arazoak sortzen dira hirurak batera lortu behar direnean; elkarren arteko tentsioak sortzen baitira: 1) berregituratzearen eta jarioaren artean, 2) zuzentasunaren eta jarioaren artean eta 3) berregituratzearen eta zuzentasunaren artean.

Hiru helburuok nola eskuratu AOIren bidetik? Skehan-ek honako etapa metodologikoak proposatzen ditu:

1. Atazaurrea: Ataza burutzeko beharrezkoa den hizkuntza irakastea du helburu, modu tradizionalen edo antzeko atazak emanez.
2. Ataza: Jariotasuna eta zuzentasuna garatzeko aukera ematea du helburu, atazaren zailtasuna kontuan izanez.
3. Ataza-ostea: Jariotasunari, zuzentasunari eta hizkuntz sistemaren berregituratzeari erreparatzea du helburu: a) performantzia denen aurrean eginez (saioa grabatu, hizkuntzaren analisisa egin) eta b) antzeko ataza errepikatuz.

Willisen eredua

Willisek honako urrats hauek proposatzen ditu:

- Gaiaren eta atazaren aurkezpena: Irakasleak atazaren helburuak ulertzen laguntzen die ikasleei, ideia-jasaren bidez (irudiak, mimoa eta norberaren esperientzia erabiliz) edota ataza ereduaren grabaketa edo testu labur bat erabiliz.
- Ataza: Ikasleek binaka edo taldean ataza burutzen dute, beren hizkuntz ezagupen guztiez baliatuz. Irakasleak ikasleak bultzatuko ditu bortxatu gabe eta zuzenketarik egin gabe. Beraz, jariotasuna eta konfiantza lortzean jartzen da arreta berezia.
- Plangintza: Hurrengo fasea prestatzeko, han ikasleek ataza nola egin duten azalduko baitute, irakaslea taldez talde ibiliko da, hizkuntzaren inguruko behar besteko laguntza eskainiz: zuzendu, esamoldeak irakatsi... Lan honetan jendaurreko azalpenak eskatzen duen argitasunari, eraketari eta zuzentasunari erreparatzen zaio bereziki.
Ikasleek, beren aldetik, hizkuntz item jakin batzuei buruzko galderak egiten dituzte.
- Azalpena: Irakasleak bikote edo talde batzuei azalpena egiteko eskatzen die, emaitzak aldera ditzaten. (Entzuteko arrazoiren bat izan behar dute.) Irakasleak fase honetan taldeak aurkeztu, iruzkinen bat egin eta zer-bait birformulatuko du agian, baina ez du zuzenketarik egingo.

Orain arte azaldutako urratsek bide hauek eskaintzen dizkie ikasleei: hizkuntza erabili esan nahi dutena adierazteko; trebatu txanda hartzen, elkarrekintzaren kontrolean eta bat-bateko elkarrekintzan; azalpena zirriborratu eta boro-bildu. Inputaren iturria irakaslea eta ikasleak dira. Hizkuntzaren izari formalei berez jartzen zaie arreta, gero jendaurrean hitz egin behar dutelako.

Azken bi urratsen osagaiek hizkuntzari aurkeztatua izateko parada zabalagoa eskaintzen dute, alde batetik, eta

hizkuntz izari formalean arreta gehiago jartzekoa, bestetik.

- Inputa: Antzeko ataza egin duten jario handiko protagonisten jardunaren grabazioa entzungo dute edota gaiaren inguruko testua irakurri. Irakasleak lagundu egiten die ikasleei oinarrizko puntuak identifikatzen eta esanahiak ondorioztatzen (input-une hau atazaren aurkezpenaren ostean ere txerta liteke).
- Hizkuntz analisia/berrikusketa eta praktika: Irakasleak hizkuntz formetara zuzendutako ariketak ematen dizkie ikasleei binaka egiteko. Gelan zehar ibiliko da laguntza eskainiz. Talde handian, irakasleak analisia berrikusiko du eta, beharrezko denean, praktika-ariketak gidatuko ditu.

Aurreko deskribapenean ikusten denez, eredu horrek hizkuntzaren benetako erabilera jorratzeko aukera ematen die ikasleei, hizkuntz xehetasunak aztertu baino lehen. Alde honetatik APP ereduaren alderantzizkoa da.

AMAITZEKO

Aurreko atalaren amaieran aipatu denez, ezin da esan metodo hau edo hura dela onena. Metodoen aroa gainbehera doa eta gaur egun eklektizismoa aldarrikatzen da, edota, nahiago bada, integrazioa. Metodo guztiek dituzte beren alde onak eta ez hain onak. Kontua da zer nahi den eta zertarako nahi den garbi izatea, eklektizismoaren ize-nean ez baita zilegi edozer gauza onartzea. Barne-koherentzia izan behar da, irekia eta malgua bada ere. Koherentzia hori, azken batean, printzipio zenbaiten ildoei jarraiki bermatzen da. Oraingo honetan kurrikuluak bereganatzen dituen ildo metodologiko batzuek bildu nahi ditugu, aurreko orrialdeetan era batera edo bestera aipatu direnak.

Ikaslea ardatz. Lehengo metodoetan, eskuratu beharreko hizkuntza zen irakaskuntzaren planteamenduaren ardatza; ardatz estua eta zorrotza, gainera. Oraingoan, ordea, ikaslea da ardatz nagusia; bera baita, ikas-prozesuaren partaide ez ezik, aktore nagusia, protagonista ere. Ikastea prozesu aktiboa da. Ikastea ez da irakasleak aurkeztutakoaren edo erabilitako materialaren emaitza; irakasleak berak aurkezten zaion informazioari tratamendu berezia ematen baitio. Ikaslea, bada, bere ikas-prozesuaz jabetzen den heinean, zergatik eta zertarako ikasten duen, nora iritsi nahi duen jakitun den heinean, arrakastatsuagoa izango da bere ikasprozesua, are bere ikasestrategiak aktibatzen laguntzen bazaio.

Bestalde, azken urteotako ikerketek erakutsi digutenez, irakasleek irakatsitakoa ez da ezinbestean ikasleek ikasten dutena. Ikasleek ez dute irakasleek irakatsitako guztia ezta irakatsitako ordenan eskuratzen ere. Gelatik kanpo ere ikasten du. Honek guztiak gatazka sortzen du irakasleak, euskaltegiak edo beste erakundeak aldez aurretik ezarritako betekizunak (programa) eta ikaslearen ikas-prozesuaren erritmoaren, ikasteko eraren eta komunikazio-beharren artean. Ondorioz, ezingo da, bete-bete behintzat, progresio lexikala eta gramatikala aldez aurretik ezarri. Jakina oinarrizko baliabide linguistikoak beharko dituela ikasleak, horiek gabe ezin baitu ezer adierazi; baina oinarri hori izanik, lexikoa eta egitura gramatikalak beharren arabera lantzen joango dira, edota benetako dokumentuetan agertzen diren heinean.

Planteamendu honek irakaslearen zeregina birplanteatzea eskatzen du. Hasteko, kurrikulu honen planteamenduak irakasle aplikatzaile hutsetik irakasle autonomo, sortzaile, edota gutxienez, aplikatzaile printzipiodunaren aldeko apustua egiten du. Irakasleak unean uneko prozesuaren norabidearen aurrean erabakiak hartzeko gai izan behar du. Kontuan izango dira, halaber, irakasleen egoera laborala, prestakuntza-maila..., beti ere jomuga argi izanik. Alde horretatik, kurrikuluaren planteamendu metodologikoak asko eskatzen dio irakasleari.

Arestian esan dugu irakasleek edo ikasleek ezin dutela aldez aurretik erabaki zer eskuratuko den. Halere, hizkuntza eskuratzean bada garapen-sekuentzia natural bat eta irakasleak, intuizioz bederen, ezagutzen du ikasleek egin ohi duten bidea eta bere esperientzian oinarrituko da input ulergarria eskaintzeko. Garapen-sekuentzia natural horren arabera, ikas-prozesuan zehar hiru jarduera metodologiko nagusi landu beharko dira: kurrikuluari dagokionez,

1. mailaren hasieran metodologia hartzailea izango litzateke nagusi, gerora metodologia berreraikitzailea; eta bigarren eta hirugarren mailetan komunikatiboa. Bata une batean nagusi izateak ez du esan nahi besteak landu behar ez direnik, indarrak non jarri behar diren baizik.

Ikas-prozesuaren hasieran, bada, etapa hartzailea beharrezkoa da, hau da, outputa sortu aurretik ikasleak, estrategia hartzailea erabiliz, input ulergarria jaso beharko luke. Hizkuntza ikasteko funtsezkoa da input ulergarri nahikoa eta aberatsa eskaintzea eta ez bakarrik etapa hartzailean, baita beste mailetan ere. Input hori, gainera, ikaslearen tarteko hizkuntzaren maila baino pitin bat zailagoa izango da (I+1).

Ahal dela, benetako hizkuntza (testuinguru erreal batean ematen dena) irakatsi behar da. Benetako dokumentuek mundu errealearekin, ingurune soziokulturalarekin lotzeko aukera eskaintzen diete ikasleei. Horrela ematen den progresioa ez da hain zurruna, hiztegia eta egiturak naturalki eta kontestu barruan sartzen baitira.

Ikasleek hizkuntza, diskurtsoaren mailan, hau da, esaldiaren maila gainditzen duten eran landu behar dute. Barne-lotura eta kohesioa landu behar dituzte, horien bidez esaldiak eta berbaldiak elkarlotuz.

Input ulergarria ez da nahikoa hizkuntza eskuratzeko. Ikasleak ekoizpena bultzatu behar dira, beren tarteko hizkuntzaren maila hobetzeko ikaskideekin eta irakaslearekin elkarreraginean. Esanahia negoziatu behar dute, elkar ulertzera iritsi, norberaren pentsamenduak, ideiak, asmoak azalduz eta argituz eta ulertaraziz. Negoziazioak bideratzen du nolabait hizkuntz formen eskurapena.

Halaber, ikasleek zailtasunak izango dituzte hizkuntzaren oinarriko egituretan, formari begirako instrukzio-rik/irakaskuntzarik eman ez den programak jarraitzen badituzte. Izan ere, hizkuntz formak modu egokian erabiltzen ikastea komunikazio-gaitasunaren alderdi garrantzitsu eta ahaztezina da. Horretarako, aurkikuntzaren bidetik jo daiteke; hau da, testuaren corpus-ean agertzen diren fenomeno linguistikoen behaketak, hausnarketak eta analisiak erabiltzen dute ikaslea hizkuntzaren funtzionamendua argitzera. Bestetik, irakasleak ere eskura diezazkioke ikasleari, honek behar dituen informazio eta argibideak. Bi bideak konbina daitezke, beti ere lehenengoa aktiboagoa eta arrakastatsuagoa dela jakinik.

Azken batean, hizkuntzaren irakaskuntzan forma eta edukiaren arteko oreka lortzean dago arrakasta, eta bi horiek bateratzen ahalegintzen da hizkuntzak irakasteko bide komunikatiboa. Ez da bide erraza, ez baita erraz jakiten zer den lehenago, eginkizun komunikatiboa ala forma, zein den helburu eta zein bitarteko, sarritan helburu bezala jartzen den eginkizun komunikatiboa forma lantzeko aitzakia besterik ez baita. Skehan (1996) ohartu da arazo honetaz eta ematen duen aholkua, bere xumean, aintzat hartzekoa da: "Oraingoz badirudi atazetan oinarritutako ikaskuntzak ongien egingo duela bere bidea, baldin eta atazen eta egituren arteko harremanak "malgutasunez" ikusten baditugu. Ikaskuntza naturalistaz gehiago jakin ahala, zeozer zehatzagoa esaten ahalko dugu harreman horietaz". Beraz, ziurtasunik ezean malgutasuna, eta hizkuntzen ikas/irakaskuntzan, are euskararen ikas/irakaskuntzan, ziurtasunak ez dira larregi.

HADE

ebaluazioa

HE
OK

Ebaluazioaren atalak bi tarte ditu dokumentu honetan. Ebaluazio-irizpideak (mailaz maila eta trebetasunez trebetasun zedarrantutako helburuak jomuga harturik, ikaslearen gaitasun komunikatiboa epaitzeko irizpideak, hain zuzen), batetik, eta ebaluazioaren aribide nagusiak, bestetik. Bigarren tarte honi eskainiko dizkiogu ondoren datozen lerroak.

Ebaluazioa jardun bateratzaile bat da, eguneroko jardunean sortzen den informazioa bilduz eta landuz, alde zuzenaren zuzenaren helburuak betetzen diren ala ez egiaztatu eta hobeto bete daitezkeen egin beharreko aldaketak erabakitzen lagunduko duena. Beraz, ebaluazioa ez da ikas- irakas-prozesuaren amaieran edo une jakinetan kokatzen den urratsa, ikas-irakasbidean ikasle eta irakasleek eskuetan etengabe darabilten tresna emankorra baizik. Hori dela eta, ebaluazioaren ikuskera honek kurrikuluaren dokumentuaren atal guztien elkarreragile bihurtzen du ebaluazioa bera, eta prozesu bizi eta oparo izatera bultzatzen.

Agerikoa den bezala, ikaslearen hizkuntz performantziaren ebaluaziotik harantzagoko ikuskeraren aldeko apustua egin du kurrikuluak. Irakasleak, ikaslearen hizkuntz emaitza ez ezik, ikasbidean emandako urratsak ere aztertu, baloratu eta aldaketak eragingo dituzten erabakiak hartuko ditu. Hori dela eta, jarrerak, ikasestrategiak, ikasgelako giroa, eskolorduen zenbatekoa, irakaslearen irakas-estiloa eta abar luzeari erreparatu beharko zaio, ebaluazio eraginkor bat egin nahi bada. Gogoan har, ikas- irakas-prozesuan esku hartzen duen oro dela ebaluagai, dena hobegarri den neurrian; horregatik, hobe beharrez urratuko den bidea dela ebaluazioarena.

Bi funtzio bereizi zituen Scriven-ek ebaluaziorako: formatiboa eta sumatiboa. Lehenengoa unez une gertatzen denari begira ibilian dagoena hobetzeko burutzen da, eta ikas-prozesuaren barruan dago txertaturik erabat. Bigarrena, berriz, bidea amaitu ondorengoa da; eta, funtzio formatiboa gauzatutakoan helburuak noraino lortu diren zehaztuz, urraspide batzuk besteekin alderatu eta horien arteko batzuk hobetsi eta beste batzuk baztertzeko balio du.

Funtzio formatiboa prozesuari dagokio. Funtzio sumatiboa, berriz, produktuari. Ez dute elkar baztertzen. Aitzitik, elkarren osagarri dira, eta bata besteari etengabe eragiten dio. Bide batetik zein bestetik bildutako datuen izaria ere, jeneralean, desberdina izaten da. Produktuaren ebaluazioa zenbakien eremukoa izan ohi da: ebaluazio-frogei emaitzak, estatistikak... Prozesuaren azterketetatik eratorritako datuak, ordea, hitz lauz jasotakoak izan ohi dira, hala nola, jarraipen-kuadernoan idatzitako iruzkinak, behaketa-txostenak... Jakina, datuak biltzeko erabiliko diren tresnak ere banaketa honen arabera izango dira. Esan liteke, esan ere, tresnak nolako, datuak halako izan ohi direla.

Ebaluazio sumatiboa egiteko frogak komunikatiboak diseinatu behar dira. Ikasleen gaitasun komunikatiboaren muestra nola neurtu prozedura objektiboez baliatuz izango da lan-asmu garrantzitsuetako bat. Froga hauek elkarreaginean oinarrituta beharko lukete, bat-batekotasuna eta benekotasuna azaldu, eginkizun esanguratsua eskatu, premia komunikatiboa sustatu, motibazioa eragin, testuingurua aintzat hartu eta teknika ezagunaz baliatu. (PCIC-MEC, 1994)

Ebaluazio formatiboa ahalbideratzeko tresnak ere ugari dira. Aurrekoekin konparatuta oso bestelakoak: elkarriketak, galdeketak, behaketak, egunkaria, karpeta, jarraipen-kuadernoak, audio-grabazioak, bideo-grabazioak... Lanabes hauen ezaugarriak, balioak eta aplikazio-uneak oso diferenteak dira batetik bestera.

Ikasleari berari ere bere jarduna ebaluatzeko aukerak eskaini behar zaizkio. Ikaslea bere ikas-prozesuaren jabe eta erantzule bihurtuko badugu, bide hori aztertu eta hobetzeko tresnak eman behar dizkiogu. Hausnarketa horrek izugarriko mesedea egingo dio bere ikas-gaitasunaz (ikas-estrategien balorazioa eginez...), ikas-mailaz... gehiago jakiteko. Horretarako autoebaluazio-orriak, besteak beste, izango dira daturik esanguratsuenak biltzeko baliabideak: Ikastunitate baten amaieran, esaterako, zer ikasi dut? Zer egin dut? Nolako izan da nire hizkuntz performantzia?... Horrelako galderak egiteko tarteak eskaini behar dira. Baina, nekez bideratuko ditugu geure ikasleak autoebaluazioaren teknikaz baliatzera, aukeratutako metodologiak, ikas-materialak, taldeko dinamikak, irakaslearen rola... laguntzen ez badute. Prozesuko atal guztiak dira elkarren osagarri. Batek huts eginez gero, besteak esanahirik gabe gera daitezke.

Irakasleen jardunaren ebaluazioa dela eta, beste hainbeste azpimarratuko dugu. On ustez aritzea ez da nahikoa izango. Irakas-prozesuan urratu beharrekoak ondo urratzeko ezinbestekoa da hausnarketari tarte eskaintzea. Horretarako, hausnarketa ongi bideratu eta planifikatzeko, behaketa, postprogramazioa, egunkaria, galdeketa, grabazioak eta beste zenbait teknikaz baliatzea komenigarria da. Talde-lana sustatzen duen ala ez, ikasleen ikas-

prozesua autonomo egiten duten ekintzak eskaintzen dituen ala ez, ikasleekin lan-asmoak negoziatzen dituen ala ez, errorearen aurrean zein rol hartzen duen, instrukzioak nola ematen dituen ikustea eta aztertzea... Askok eta asko dira hausnarbidean jar daitezkeen gaiak.

Eta noiz egin behar da ebaluazioa? Ba al du une jakinik? Esan bezala, ebaluazioa eraginkorra izango bada, etenik gabea, sistematikoa eta ongi planifikatutakoa behar du izan: nork, zer, nola eta zertarakoak ongi definitzeak izango du lehentasuna, datu-bilketa antzua izan ez dadin. Baina baita noiz egin behar den erabakitzea ere. Ebaluazioa prozesu bat da; hala ere, baditu unean uneko ezaugarriak. Horien arabera hiru ebalualdi bereiztea komeni da: 1.- hasierako ebaluazioa; 2.- bitartekoa, jarraia; 3.- amaierako ebaluazioa.

HASIERAKOARI dagokionez, azpimarratu behar dugu ikas- irakas-prozesuari ekin aurretik ezinbestez bideratu behar dena dela, jarduna behar hainbateko eraginkortasunez antolatu nahi badugu, bederen. Ikasleen usteak eta espektatibak zeintzuk diren, jarrerak, motibazioa... ebaluatzeko unea da. Elkarrizketak, behaketak, galdeketak, mailaketa-frogak... baliatuko ditugu. Jasotako informazioak irakasleak programatuta zeuzkan hainbat ikas-tunitateetan aldaketa eragingo ditu: beharren arabera egokitu, alegia.

BITARTEKOA prozesuan zehar burutzen da. Taldearen zein ikasle bakoitzaren urraspideak berbideratzeko balio du, ebaluazioaren funtzio formatiboak berebiziko karga hartuz. Informazioa biltzetik erabakiak hartzerainoko prozesua oso epe motzean burutzen da ebalualdi honetan: errorearen behaketa, prozesuko korapilo-uneak, motibazioaren gorabeherak atzematea... izango da eginkizuna. Galdeketak (trebetasunaren, ikas-estrategien, ekoizpenaren inguruak...), egunkariak, autoebaluazio-orriak, zirriborroak, aurretestuak, ekoizpena berrikusi eta berreraikitze-prozedurak... baliatuko ditugu. Ikas-tunitatearen sekuentziazioan, hainbat alderdi metodologikoren antolaketan, esaterako, egokitzapenak eragingo ditu.

BUKAERAKO EBALUAZIOAK hasierakoa eta bitartekoa ditu nolabait bere baitan. Horien sintesia da, eta helburuak zenbateraino eskuratu diren adieraztera dator. Ikasitakoaren gainean hausnarketa eta jarraitutako urratzen balorazioa bideratuko duten tresnak erabiliko ditugu. Baita hasieran erabakitako helburuak bete diren ala ez ikusteko balio dutenak ere. Azken hauek dira ezagunenak. Ikasleen hizkuntz performantzia neurtzeko frogak biltzen dira hemen: mailaketa-frogak, gaitasun-frogak..., kanpo nahiz barreneko aztertzaileen eskutik egin daitezkeenak.

LABURBILDUZ

- Ikas- irakas-prozesuak hobebidean ipiniko dituen prozesu elkarreragilea da ebaluazioa.
- Ebaluazioa jardunean aldeketak eragingo dituen hausnarketa eta barneraketa prozesua da, eta ez da emaitzak saritzeko edo penalizatzeko soilik balio duen balorazio hutsala.
- Ebaluazioa, irakaslearena ez ezik, ikaslearen egitasmo ere bada. Izan ere, berak emango dio bere ikas-prozesuaren jabe nola izan daitekeen jakiteko informazioa.
- Izaera kuantitatiboa nahiz kualitatiboa duten datuak jaso behar dira. Biak baitira beharrezko ikuspegi erabatekoa izateko.
- Tresnak nolako, datuak halako.
- Ebaluazio-irizpide bateratuak erabili behar dira ebaluazio sumatiboan.

HADE

H
E
O
K

ebaluazio-

-irizpideak

Trebetasunez trebetasun datoz hiru mailetako ebaluazio-irizpideak. Trebetasun guztietan ez dira kategoriatuak jarri; are, entzumenean eta irakurmenean ez dago kategori banaketarik, trebetasunen izariak hala eskatzen duelako. Gainera, irizpideen deskribapenak maila eta trebetasun guztietan batetik bestera sailkatuak eta zenbatuak daude. Bostak gaitasun-mailarik altuena adierazten du; bata, aldiz, eskasena. Ez dira, halere, inongo azpimailaren adierazle, beti ere dagokion mailari egiten baitiote erreferentzia. Hirua da, berez, maila gaitasuneko gutxienekoa; besteak maila hori goitik eta behetik zehazten eta mugatzen lagungarri izango direlakoan jarri dira.

1. MAILARAKO EBALUAZIO-IRIZPIDEAK: ENTZUMENA

5 Ez du inolako eragozpenik izango ahoz emandako instrukzio arruntak aurrenekoan ulertu eta jarraitzeko. Bere kidekoekin hitz egiteko ez du ulermen aldetik bat ere zailtasunik izango. Eta ongi moldatuko da bere ingurune euskal hitzuneekin hitz egiteko. Solaseko gaia aldatzean ere aise jarraituko dio hariari. Besteen solasak (ezaguna duen eta gertukoa zaion gaiaren ingurukoak, erritmo eta abiadura egokikoak) bere osotasunean ulertuko ditu. Elkarrizketa hasteko, hitza hartzeko nahiz uzteko edota gaiaz aldatzeko erabiltzen diren esapideak ondo ezagutzen dituzenez, berehala jabetzen da solasaren nondik norakoaz. Diskurtsoa antolatzeko eraren eta kontestuaren laguntzaz aise baliatuko da esanahiak inferitzeko, erregistroak bereizteko, eta komunikazioan parte hartzen dutenen elementu afektiboen berri izateko.

4 Ahoz emandako instrukzio arruntak aurrenekoan ulertu eta jarraitzeko gai izango da, inolako errepikapenik eta aurkezpenik gabe. Bere kidekoekin solasean aritzeko ulermen-maila ona du eta solasaren hariari erraz jarraituko dio. Bere inguruan bizi diren jatorrizko hitzuneekin aritzeko, ordea, zenbait arazo izan ditzakeen arren, horiek saihesteko hainbat estrategiaz baliatuko da. Gai bakar bati lotzen zaion solasari jarraitzea errazago egingo bazaio ere, gaia aldatzeak ez dio aparteko zailtasunik gehituko. Besteen solasak (ezaguna duen eta gertukoa zaion gaiaren ingurukoak, erritmo eta abiadura egokikoak) ulertzeko zailtasunik ez du. Elkarrizketa hasteko, hitza hartzeko nahiz uzteko, edota gaiaz aldatzeko erabiltzen diren esapideak ondo bereizten ditu. Intonazioak eta solasa antolatzeak erak bide emango dio zenbait elementu afektibo atzemateko (serio, txantxetan, haserre, ironiaz... ari diren), gaiaren ildo nagusia atzemateko ere gauza izango da. Erregistro nagusiak eta bakoitzarekiko tratamendua bereiziko ditu (kolokiala/formala, konfidantzakoa/ezezagunen artekoa...). Entzundakoaren arabera kontestua inferituko du eta kontestuz baliatuz elkarrizketa aurreikusiko.

3 Ahoz emandako instrukzio arruntak aurrenekoan ulertu eta jarraitzeko gai izango da. Ez du errepikapenik eskatu beharrik izango. Entzun aurretik nahikoa izango du gaiaren aurkezpen orokorra. Bere kidekoekin solasean aritzeko behar adinako ulermen-maila du eta solasaren hariari jarraituko dio. Bere inguruan bizi diren jatorrizko hitzuneekin aritzean, ordea, hauek moldatu egingo dute erritmoa, lasaiago eta argiago ahoskatu agian, edo zerbait errepikatu. Errazago egingo zaio gai bakar bati lotzen zaion solasari jarraitzea. Gaia aldatzerakoan zailtasunik izango ditu jarraitzeko. Besteen solasak (ezaguna duen eta gertukoa zaion gaiaren ingurukoak, erritmo eta abiadura egokikoak) entzuterakoan, hari nagusiari jarraituko dio. Elkarrizketa hasteko esapide ohizkoenak bereiziko ditu. Hitza hartzeko edo uzteko erabiltzen diren lokailuak ezagutuko ditu. Gaia noiz aldatzen den atzemango dio. Intonazioaren laguntzaz zenbait elementu afektiboren berri jasoko du (serio, txantxetan, haserre... ari diren), baita agian gaiarekiko lehen hurbilpen bat egin ere. Erregistro nagusiak bereiziko ditu (kolokiala/formala, konfidantzakoa/ezezagunen artekoa...). Entzundakoaren arabera kontestua inferituko du.

2 Ahoz emandako instrukzio arruntak ez ditu aurrenekoan ulertuko eta errepikatzeko eskatuko du. Bere kidekoen solasari jarraitzeko zailtasunik ditu ulermen-mailan. Bere inguruan bizi diren jatorrizko hitzuneekin aritzean, areagotu egingo dira zailtasunak. Ulertu ezaren keinuak egingo ditu, polikiago aritzeko eta errepikatzeko eskatuz. Uler ditzakeen solasak, ia erabat, gai bakar bati lotuak egongo dira. Gaia aldatzerakoan, haria galtzeko arriskuan egon daiteke. Besteen solasak (ezaguna duen eta gertukoa zaion gaiaren ingurukoak, erritmo eta abiadura egokikoak) entzuterakoan, hari nagusiari nekez jarraituko dio. Elkarrizketa hasteko, hitza hartzeko nahiz uzteko, edota gaiaz aldatzeko erabiltzen diren esapide ohikoenetako batzuk ezagutuko ditu. Intonazioari, elementu afektiboak edota erregistroari erreparatzen lanak izango ditu, baita entzundakoaren arabera kontestua inferitzeko ere.

1 Ahoz emandako instrukzio arruntak ulertzeko behin eta berriz errepikatu beharko zaizkio. Bere kidekoen solasari nekez jarraituko dio. Behin eta berriz eskatuko ditu errepikapenak. Bere inguruan bizi diren jatorrizko hitzuneek ezin ulertzeak komunikazioa etenarazi dezake. Uler ditzakeen solasak gai bakar baten ingurukoak ez badira, haria galdu egingo du. Besteen solasak (oso ezaguna duen eta gertukoa zaion gaiaren ingurukoak, erritmo eta abiadura erabat egokitutakoak) entzuterakoan, hari nagusiak ihes egingo dio tarteka. Elkarrizketa hasteko, hitza hartzeko edo uzteko erabiltzen diren esapide banaka batzuk besterik ez ditu ezagutuko. Gaia noiz aldatzen den nekez atzemango dio. Intonazioari, elementu afektiboak edota erregistroari ez dio erreparatuko, hain dago lotua zer entzungo duenari.

1. MAILARAKO EBALUAZIO-IRIZPIDEAK: IRAKURMENA

5 Ez du inolako arazorik maila honi dagozkion testu-motak (instrukzioak, narrazioak, deskribapenak) eta testu-erak (oharrak, eskutitzak, inprimakiak...) bereizteko. Aise bereizten ditu, era berean, testuaren ideia nagusiak eta lagungarriak, eta kolpetik irakurrita jabetzen da testuaren nondik norakoaz, eta baita informazio xeheaz ere, noiz edo noiz ñabarduren bati erreparatzeko behin baino gehiagotan irakurri behar izaten badu ere. Maila honetako adierazpide linguistiko-testualak oztoporik gabe menderatzen dituzenez, ez dira horiek testua ulertzeko inolako traba. Jardunaren hizkuntz erregistroak aise bereizten ditu.

4 Badaki bereizten maila honi dagozkion testu-motak (instrukzioak, narrazioak, deskribapenak), eta testu-erak (oharrak, eskutitzak, inprimakiak...). Bereizi egiten ditu, era berean, testuaren ideia nagusiak eta lagungarriak, eta jabetu egiten da kolpetik irakurrita testuaren nondik norakoaz eta baita informazio xehe ugariaz ere. Noizbehinka izan dezake testua behin baino gehiagotan irakurtzeko edota testuinguruari erreparatzeko beharra, informazio xehea edota ñabardurak jasotzeko, ideia nagusiak ondo jasoak dituelarik. Jardunaren hizkuntz erregistroak bereizten badaki.

3 Badaki bereizten maila honi dagozkion testu-motak (instrukzioak, narrazioak, deskribapenak) eta testu-erak (oharrak, eskutitzak, inprimakiak...). Bereizi egiten ditu, era berean, testuaren ideia nagusiak eta lagungarriak, eta jabetu egiten da, oro har, kolpetik irakurrita testuaren nondik norakoaz. Informazio xehea eskuratzeko, berriz, behin baino gehiagotan irakurri eta testuinguruari erreparatu beharra izaten du. Maila honetako adierazpide linguistiko-testual guztiak oraindik ere erabat menderatzen ez dituzenez eta dituen gabeziak ez testuinguruaz ezta hainbat estrategiaz baliaturik ere ezin konpentsa ditzakeenez, ñabardura batzuk eta oso noizbehinka ideia nagusiren bat ere gal dezake. Jardunaren hizkuntz erregistroak gehienetan bereizten ditu.

2 Badaki, oro har, bereizten maila honi dagozkion testu-motak (instrukzioak, narrazioak, deskribapenak) eta testu-erak (oharrak, eskutitzak, inprimakiak...). Arazoak ditu testuaren ideia nagusiak eta lagungarriak bereizteko, eta gutxitan jabetzen da testuaren nondik norakoaz kolpetik irakurrita. Askotan galtzen du informazio xehea, behin baino gehiagotan irakurri eta testuinguruari erreparatzen ahalegindu arren. Maila honetako adierazpide linguistiko-testualak behar beste menderatzen ez dituzenez, testuaren mezu-ñabardurak ez ezik ideia nagusiak ere askotan galtzen ditu.

1 Maila honi dagozkion testu-motak eta testu-erak bereiz baditzake ere, arazo handiak ditu testuaren ideia nagusiak eta lagungarriak bereizteko. Gutxitan jabetzen da testuaren nondik norakoaz, behin baino gehiagotan irakurri arren. Ez du ia inoiz informazio xehea jasotzen. Maila honetako adierazpide linguistiko-testualak ez ditu menderatzen eta ez ditu testuaren ideia nagusiak jasotzen. Ez du, oro har, testua ulertzen.

1. MAILARAKO EBALUAZIO-IRIZPIDEAK:

	ZUZENTASUNA	EGOKITASUNA	DISKURTSOAREN
5	Ez du inolako eragozpenik eguneroko kontestu ezagunetan gai orokor eta arruntez era zuzenean hitz egiteko.	Ez du eragozpenik bere jarduna eguneroko kontestu ezagunetan egokitasunez burutzeko	Elkarrizketa arruntak eragozpenik gabe gidatu eta jarraituko ditu, oinarritzko kohesio-formak zuzen erabiliz. Diskurtsoa, oraindik ere, lineala izango bada ere kateamenduaren lehen adierak azalduko dira.
4	Ez du eragozpenik eguneroko kontestu ezagunetan gai orokor eta arruntez zuzen hitz egiteko. Noizbehinka egiten dituen hutsegiteak ez dira sistematikoak eta erdarakadak jatorrizko hitzunik onartzeko modukoak dira.	Elkarreraginezko kontestu orokorretan jakingo du zein erregistro-mota nagusi, nolako doinuera, intonazioa... erabili. Aldika kosta egingo zaio egoera guztietara egokitzen, "artifizial" gertatuko delarik. Oro har, gaiari erantzuten dio eta informazioa testu-motak eta zereginak eskatzen duenera egokituko du. Bestalde, noizbehinka zailtasunak izango ditu bere hiztegia kontestuari egokitzen.	Elkarrizketa arruntak jarraitzen eta gidatzen dakiela frogatuko du. Dena den, oraindik ere, zailtasunak izango ditu gaiak aldatu nahi duenean eta, diskurtsoaren haria eteten ez bada ere, isiluneak sor daitezke.
3	Maila morfosintaktikoan oinarritzko egiturak ezagunak dituen arren, noizbehinka akatsen bat edo beste egiten du. Dena den, hutsegiteek ez dute esanahia eragozten. Aditz-sistemak, ergatiboa, erlatiboa, nominalizazioa eta konpletiboa ondo erabiltzen ditu, nahiz eta hitz egin aurretik pentsatu behar izan eta zenbaitetan oker erabili. Oro har, egiten dituen akatsak koiunturalak dira. Ahoskera eta intonazioari dagokionean, zenbaitetan erdal kutsua antzemango zaion arren, ulergarria izango da. Hiztegiaren ezagutza bere kontestu ezagunetara mugatzen da, ñabardurak azaldu behar dituen erdarakadak eta bestelako ordainak erabiliz.	Elkarreraginezko kontestu orokorretan, nori zuzentzen zaion, zertarako, gaiaren nolakoa... kontuan izanik jakingo du zein erregistro-mota nagusi, nolako doinuera, intonazioa... erabili. Hala ere kosta egingo zaio egoera guztietara bere jarduna egokitzen eta zenbaitetan arrotz eta "artifizial" gertatuko da. Gaiari inoiz ihes egingo dion arren, harira itzultzen da gehienetan. Informazioa testu-motak eta zereginak eskatzen duenera egokituko du, alditan alferrikako informazioa emango badu ere. Eta zailtasunak izango ditu bere hiztegia kontestuari egokitzen, hitzen balio semantiko murrizta duelako.	Elkarrizketa arruntak jarraitzen eta gidatzen dakiela frogatuko du: hasiera noiz eman, nola jarraitu, nola bukatu, baita gaiak aldatzerakoan jarraitzen ere. Horretarako, hainbat esapidez baliatuko da, oinarritzko kohesio-formak erabiliz. Kateamendua nahikoa lineala izango da eta moztua. Zerbait kontatu edo deskribatzerakoan, diskurtsoa hari nagusi baten inguruan (denbora,
2	Maila morfosintaktikoan, fonetikoan eta semantikoan egiten dituen akatsen zenbatekoak eta nolakoak, erabat ez eten arren, oztopatu egingo du komunikazioa. Zenbaitetan erdarara jo behar izango du.	Zailtasun nabarmenak ditu kontestuari egokitzen. Gehiago erreparatuko dio zer esanari, nori, noiz, non eta zertarakoari baino. Bere hizkera sarritan arrotza izango da.	Elkarrizketa arruntak jarraitzeko gai bada ere, zenbaitetan arazoak izan ditzake hasiera emateko, jarraitzeko edota bukatzeko. Oinarritzko kohesio-formak ere oker erabiltzen ditu eta
1	Hainbeste akatsek eta diren bezalakoak izateak komunikazioa eten egiten du maiz. Erabiltzen dituen egiturak desegokiak dira egoera arruntenetan ere, erdarara jo behar izango duelarik.	Apenas kontestuari erreparatzen dion. Zer- -esanak baldintzatzen du ia erabat bere jarduna; eta, nahiz eta kontestua aldatu, bere diskurtsoa ez da egoera berrietara egokitzen. Askotan hiztegia kontestutik kanpo erabiliko du.	Zailtasun handiak izango ditu zerbait kontatu edo deskribatzerakoan, ideiak nahasiak emango baititu, garapen eta loturarik gabe. Elkarrizketa arruntenetan

MINTZAMENA

EN ANTOLAKETA	ABERASTASUNA	JARIOTASUNA
<p>Kontatu eta deskribatzerakoan, diskurtsoa ondo antolatua, koherentea eta josia izango da eta ez du zailtasunik ideia nagusiez gain konplexuak ere adierazteko.</p>	<p>Maila honi dagozkion testu-mota guztiak sortzeko gai da. Testu zabal eta aberatsak egiten ausartzen da eta arrakastaz lortzen. Errepikapenez, itzulinguruz, parafraasiak eta abarrez baliatuko da ideiak azaldu eta garatzeko.</p>	<p>Eguneroko kontestu ezagunetan erritmo naturalez arituko da. Ez du eragozpenik izango bere jardunaren erritmoa jarraia eta suelta, makulurik gabekoa, izan dadin eta diskurtso osoan erritmo bera mantenduko du.</p>
<p>Zerbait kontatu edo deskribatzerakoan ez du aparteko eragozpenik, ideia konplexuren bat azaltzerakoan izan ezik.</p>	<p>Maila honi dagozkion testu-mota guztiak, oro har, sortzeko gai bada ere, ez dira testu luzeak izango eta kontestu berrietan egituren eta hiztegiaren aberastasuna besteetan baino murriztagoa izango da, zenbaitetan akatsak eginez. Ideiak garatzerakoan zailtasunak izango ditu adierak era askotan egiten.</p>	<p>Eguneroko kontestu ezagunetan gai orokor eta arruntei buruzko jardunetan, noizbehinka segurtasunik eza nabaritzen bazaio ere, ez du arazorik erritmo jarraia eusteko. Geldiuneak sortuz gero, badaki errepikaz, itzulinguruz... baliatzen.</p>
<p>espazioa, prozesua...) antolatuko du, nahiz eta erabat ondo josia ez izan. Oro har, bere jarduna koherentea izango da. Egin ditzake, bai, zenbait nahasketa, atzera-, aurrerapausu eta zuzenketa, baina entzuleak ez du jarraitzeko eragozpen handirik izango.</p>	<p>Maila honi dagozkion testu-motak sortzeko gai izango da. Elkarrizketetan ez da erantzun laburretara mugatuko. Testu zabalxeagoak, hainbat egitura diferente eta hiztegi aberatsa erabiltzen ausartuko da. Arrisku horrek berak, ordea, akatsak egitera bultzatuko du.</p> <p>Ideiak behin eta molde bakarrean adierazteko joera du. Ez du esandakoa berriro bildu eta beste era batera adierazten, hurrengoarekin lotuz.</p>	<p>Kontestu oso ezagunetan eta ongi bereganatu dituenetan jarduna jarraia, suelta izango da. Kontestu berri eta arrotzagoetan, berriz, moteldu egingo da diskurtsoa eta geldialdiak egingo ditu, adiera eta egitura egokien bila, zuzentzeko... Geldiune horiek betelan--hitzez (errepikapenez; mm, eh, zera, ba formaz) estaliko ditu zenbaitetan.</p>
<p>diskurtsoaren haria behin baino gehiagotan eten dezake, komunikazioa oztopatuz.</p>	<p>Arazoak izan ditzake maila honi dagozkion testu-motak sortzeko. Elkarrizketetan, erantzun laburretara mugatuko da. Hala ere, kontestu oso ezagunetan erantzun zabalagoak emango ditu. Egitura eta hiztegiaren ezagutza urria izango da, zenbaitetan erdarara joko duelarik ordainaren bila, eta ideiak, beti, molde bakarrean adieraziko ditu.</p>	<p>Ekoizpen-erritmoa aldakorra da; kontestu oso ezagunetan eta ongi bereganatuetan jarduna jarraia den bitartean, berri eta arrotzetan motela izaten baita. Zailtasun handiak ditu geldialdiak nolabait betelan-hitzez, errepikapenez eta abarrez estaltzeko. Jatorrizko hitzunik nekez jasaten du erdarara jo gabe, kortesiazko elkarrekintza sinpleenetan izan ezik.</p>
<p>onartze-, ukatze-erantzunetara mugatuko da bere jarduna.</p>	<p>Zailtasun nabarmenak ditu testuak sortzeko. Bere jarduna erantzutera mugatzen da eta erantzun horiek bai/ezkoak dira gehienbat, tarteka esaldi motzak erabiltzen baditu ere. Egitura eta hiztegiaren ezagutza oso murrizta da, erdararako joera areagotuz eta komunikazioa oztopatuz.</p>	<p>Bere jarduna ez da jarraia eta sortzen diren isiluneek komunikazioa oztopatzen dute. Jatorrizko hitzunik erdarara joko du.</p>

1. MAILARAKO EBALUAZIO-IRIZPIDEAK:

	ZUZENTASUNA	EGOKITASUNA
5	Zuzen erabiltzen ditu maila honetako egiturak. Erabilitako erdarazko hitzak jatorrizko hiztunak onartzeko modukoak dira. Ortografiak eta puntuazio-markez ere zuzen baliatzen da.	Ez dio gaiari inoiz ihes egiten. Ondo daki erregistroak bereizten. Naturaltasunez eta autonomia osoz idazten du. Testuinguruaren arabera hitzek har ditzaketen balio semantikorik gehienak menderatzen ditu eta ironiaz eta umorez idazteko gaitasuna ere ageri du zenbaitetan.
4	Zuzen erabiltzen ditu, oro har, maila honetako egiturak. Noizbehinka ageri zaizkion hutsegiteak ez dira sistematikoak. Noiz edo noiz erderakadaren batez balia daiteke. Zuzen erabiltzen ditu, oro har, ortografia eta puntuazio-markak.	Ez dio, oro har, gaiari ihes egiten. Badaki bereizten erregistro-motak: nori eta zein xedez zuzentzen zaion, zein testu-mota eta testu-era den... Ez du eredu finkorik erabiltzen, erabateko autonomiarik ez badu ere. Hainbat hitzek testuinguruaren arabera har ditzaketen balio semantikorik gehienak menderatzen dituzenez, nekez hutsegiten du.
3	Maila morfosintaktikoan egindako hutsegiteek ez dute esanahia eragozten. Egitura konplexuetan (erlatibozkoetan...) hutsegite koiunturalez gain, oraindik ere, soma liteke hutsegite sistematikoren baten edo besteren aztarna. Ikaslearen eguneroko kontestu ezagunetara mugatzen den hiztegiaren ezagutzak termino orokor eta arruntez (jende, gauza...) eta erdarakadez baliatzera bultzatuko du ñabardurak adierazteko unean. Zuzen erabiltzen ditu ortografia eta puntuazio-markak, batzuetan hutsegiteren bat egin badezake ere. Hutsegiteak, oro har, koiunturalak izango dira, eta ez dute esanahia ilunduko.	Gaiari noiz edo noiz ihes egin badieziaioke ere harira itzultzen da gehienetan. Badaki, oro har, bereizten erregistro-mota nagusiak: formala eta informala. Hala ere, batzuetan naturaltasuna apurtzen duten eredu finkoen erabilera atzemango da. Hainbat hitzek testuinguruaren arabera har ditzaketen balio semantiko guztiak menderatzen ez dituzenez, desegoki erabil ditzake batzuetan.
2	Maila morfosintaktikoan, hiztegian eta ortografian ageri zaizkion hutsegiteen zenbatekoak eta nolakoak idazlanari erabateko kaosaren itxura ematen ez badiote ere, ugariak izango dira hutsegite koiunturalak eta, halaber, sistematikoak, baita egitura sinpleenetan ere. Oker erabiltzen ditu ortografia eta puntuazio- markak.	Askotan egiten dio ihes gaiari. Zailtasun haundiak ditu erregistroak bereizteko. Oker aukeratutako erduei jarraitzen die askotan. Hainbat hitzek testuinguruaren arabera har ditzaketen balio semantikoak menderatzen ez dituzenez, askotan desegoki erabiltzen ditu.
1	Maila morfosintaktikoan, hiztegian eta ortografian ageri zaizkion hutsegiteen zenbatekoak eta nolakoak zeharo iluntzen dute esanahia. Idazketa kaotikoa.	Gaiari ihes egiten dio. Ez du erregistrorik bereizten. Ereduak lekuz kanpo erabiltzen ditu eta hitzen balio semantikorik ohikoenak ere ez ditu menderatzen. Idazketa erabat da desegokia.

IDAZMENA

DISKURTSOAREN ANTOLAKETA	ABERASTASUNA
<p>Diskurtoaren egitura eta pasarteen antolaketa erabat lotzen zaizkie testu-motari eta testu-erari. Jarraitzeko erraza da, irakurleak kolpetik irakurrita uler dezakeelarik. Ez du diskurtoaren haria eteten. Unean uneko kohesio-forma aukeratzen eta erabiltzen badaki. Ideia konplexuak adierazteko ere ez du aparteko zailtasunik.</p>	<p>Maila honetan zehaztutako testu-mota eta testu-era guztiak idazteko gauza da. Testuak aberatsak dira, ideien nahiz egitura edota hiztegiaren ugaritasuna dela bide. Apenas duen erdal kutsurik.</p>
<p>Diskurtoaren egitura eta pasarteen antolaketa, gehienetan, lotzen zaizkie testu-motari eta testu-erari. Ez du, oro har, testuaren haria eteten. Ia kohesio-forma gehienez baliatzen dakiela atzematen zaio. Ez du zailtasunik, ideia konplexuren bat edo beste azaltzerakoan ezik.</p>	<p>Maila honetan zehaztutako testu-mota eta testu-erak, oro har, idazteko gauza da. Testuak aberatsak dira ideien nahiz egitura edota hiztegiaren ugaritasuna dela bide, noiz edo noiz testuinguruak gehiago garatzeko aukera eman badezake ere. Erdal kutsua noizbait soma liteke.</p>
<p>Diskurtoaren egitura eta pasarteen antolaketa egokitu egiten zaizkie, nolabait, testu-motari eta testu-erari, zailtasunak baditu ere. Ideia nagusiak eta azalekoak bereizten eta lotzen badaki gehienetan, oinarriko kohesio-formak eta esaldi motzak erabiliz. Oraindik ere nahasia izan daiteke noizbait diskurtoaren haria; horrek, hala ere, ez du irakurketa jasangaitz bihurtzen. Testuari hari logiko baten aztarnak ageri zaizkio.</p>	<p>Maila honetako testu-mota eta testu-era gehienak, oro har, idazten badaki. Hala ere, molde bereko jostekuz baliatzeko joera erakutsiko du batzuetan eta ideien nahiz egitura edota hiztegiaren zenbatekoa ikusita antzeman egiten zaio oraindik ere badituela zailtasunak testua dagokion neurrian osatzeko. Nabaria da, oraindik ere, erdal kutsua, testua zuzena izan badaiteke ere.</p>
<p>Diskurtoaren egitura eta pasarteen antolaketa ez zaizkie testu-motari eta testu-erari lotzen. Ideiarik nagusienak batzuetan kanpoan geratzen dira. Oinarriko kohesio-formak ere oker erabiltzen ditu eta diskurtoaren haria behin baino gehiagotan eten dezake.</p>	<p>Arazoak ditu maila honetako testu-mota eta testu-erak garatzeko. Eta ez ditu eskatzen duten neurrian idazten, ideia nahiz egitura eta hiztegiari dagokienean. Oso nabaria da erdal kutsua.</p>
<p>Ez du loturarik. Ideiak nahasian azaltzen dira: ez dago ez garapenik, ez katearik. Esanahia zeharo ilunduta ageri da.</p>	<p>Arazo handiak ditu testuak eskatzen duen hedadura emateko. Oso esaldi motzak erabiltzen ditu. Ideien zenbatekoaren eta egitura nahiz hiztegiaren pobrezia eta erdal kutsua erabatekoak dira.</p>

2. MAILARAKO EBALUAZIO-IRIZPIDEAK: ENTZUMENA

- 5** Ez du inolako eragozpenik izango ahoz emandako instrukzio, azalpen eta argudioak aurrenekoan ulertu eta jarraitzeko, ezta gai ezagun/ezezagunen inguruko narrazio eta deskribapenak ulertzeko ere. Bere kidekoekin nahiz jatorrizko hiztunekin ohiko gaiei buruzko solasaldi eta jardunetan ez du benetako partaide izateko arazorik izango, eta solaseko gaia aldatzean ere aise jarraituko dio hariari. Erabilera-esparru desberdinetan ematen diren besteen solasak bere osotasunean ulertuko ditu, nahiz eta zenbait kontestutan eta hiztunaren hizketa oso kolokialetan ñabardurak jasotzeko zailtasunak izango dituen. Hala ere, komunikazioa ez da apurtuko, entzumen-estrategiez baliatuko baita.
- 4** Ahoz emandako instrukzio, azalpen eta argudioak ulertu eta jarraitzeko gai izango da, baita narrazio eta deskribapenak ulertzeko ere. Ez du errepikapenik eskatu beharrik izango. Bere kidekoekin nahiz jatorrizko hiztunekin ohiko gaiei buruzko solasaldi eta jardunetan ez du ulermen-arazorik izango eta solaseko gaia aldatzeak ez dio inolako zailtasunik sortuko. Erabilera-esparru desberdinetan ematen diren solasak ulertuko ditu; baina, hiztunaren hizketa oso kolokialean eta gaia hain ezaguna ez denean, zailtasunak izango ditu ulertzeko. Edozein kasutan, haria edo ildo nagusia atzemateko gauza izango da.
- 3** Ahoz emandako instrukzio, azalpen eta argudioak ulertu eta jarraitzeko gai izango da, baita narrazio eta deskribapenak ulertzeko ere. Bere kidekoekin nahiz jatorrizko hiztunekin ohiko gaiei buruzko solasaldi eta jardunetan aritzeko behar adinako ulermen-maila izango du, eta orokorrean hariari jarraituko dio; baina, hiztunaren hizketa oso kolokiala denean eta gaia ez hain ezaguna, hiztunen aldetik azalpen eta errepikapen gehiago eskatuko ditu. Edonola ere, ez da komunikazioa etengo.
- 2** Ahoz emandako instrukzio, azalpen eta argudioak ez ditu aurrenekoan ulertuko eta jarraitu ahal izateko errepikatze eskatuko du. Berdin gertatuko zaio narrazio eta deskribapenak ulertzeko garaian. Bere kidekoekin nahiz jatorrizko hiztunekin ohiko gaiei buruzko solasaldi eta jardunetan aritzeko ulermen-zailtasunak ditu, jatorrizko hiztunekin areagotuko direlarik. Etenak eta errepikapenak maizago gertatuko dira eta komunikazioa zaildu egingo da.
- 1** Behin baino gehiagotan entzun beharko ditu ahozko instrukzio, azalpen eta argudioak ulertu ahal izateko. Berdin gertatuko zaio narrazio edo deskribapenak ulertzeko garaian. Ohiko gaiei buruzko solasaldi eta jardunetan bere kidekoekin baino zailtasun handiagoak izango ditu jatorrizko hiztunekin, ezin ulertuak sortuz eta, beraz, komunikazioa oztopatuz.

2. MAILARAKO EBALUAZIO-IRIZPIDEAK: IRAKURMENA

5 Ez du inolako arazorik maila honi dagozkion kontestu ezagunetan eta ohiko gaien ingurukoak diren testu--motak bereizteko. Era berean ia beti informazio orokorra nahiz xehea aurkituko du, nahiz eta irakurgaiaren egituraketak zaildu dezakeen ulermena. Horrelakoetan, irakur-estrategiez baliatuko da zailtasunak gainditzeko. Maila honetako adierazpide linguistiko-testualak arazorik gabe menderatzen dituzenez, ez dira horiek testua ulertzeko inolako traba. Ez du oztoporik jardunaren hizkuntz erregistroak erraz bereizteko.

4 Badaki maila honi dagozkion kontestu ezagunetan eta ohiko gaien inguruko testu-motak bereizten. Testuaren nondik norakoaz berehala jabetzen da eta ez du oztoporik informazio xehea ere ateratzeko. Hala ere, tarteka, ñabardurez jabetzeko izan dezake testua behin baino gehiagotan irakurtzeko premia, baina orokorrean ideia nagusiak ondo jasota izango ditu. Badaki jardunaren hizkuntz erregistroak bereizten.

3 Badaki maila honi dagozkion kontestu ezagunetan eta ohiko gaien inguruko testu-motak bereizten. Testuaren nondik norakoaz berehala jabetzen da eta ez du, oro har, oztoporik informazio xehea ere ateratzeko. Maila honetako adierazpide linguistiko-testual guztiak ez ditu oraindik ere erabat menperatzen eta horregatik, tarteka, xehetasunez eta, batez ere, ñabardurez jabetzeko izan dezake testua behin baino gehiagotan irakurtzeko premia; hala ere, batzuk gal ditzake. Jardunaren hizkuntz erregistroak bereizten ditu gehienetan.

2 Gehienetan badaki maila honi dagozkion kontestu ezagunetan eta ohiko gaien inguruko testu-motak bereizten. Testuaren nondik norakoaz, berriz, ez da lehenengo kolpetik jabetuko eta arazoak izango ditu informazio xehea ateratzeko. Maila honetako adierazpide linguistiko-testual guztiak ez ditu oraindik ere erabat menperatzen eta, horregatik, ñabardurak eta zenbait ideia nagusi galduko ditu.

1 Maila honi dagozkion testu-motak eta testu-erak bereizi arren, arazo handiak ditu informazio orokorra eta xehea aurkitzeko. Testuaren nondik norakoaz gutxitan ohartuko da, nahiz eta behin baino gehiagotan irakurri; etaaldi berean, maila honetako adierazpide linguistiko-testualak menperatzen ez dituzenez, nekez jasoko ditu testuaren ideia nagusiak, eta are gutxiago informazio xehea.

2. MAILARAKO EBALUAZIO-IRIZPIDEAK:

	ZUZENTASUNA	EGOKITASUNA	DISKURTSOAREN
5	Ez du inolako eragozpenik kontestu ezagunetan gai ezagun nahiz ezezagun baina bere interesetik hurbilekoen inguruan, ikasleen arteko nahiz jatorrizko hiztunekin zuzentasunez hitz egiteko.	Ez du inolako arazorik bere jarduna kontestu ezagunetan gai ezagun nahiz ezezagun baina bere interesetik hurbilekoen inguruan, ikasleen arteko nahiz jatorrizko hiztunekin egokitasunez hitz egiteko.	Elkarrizketetan erantzun zabalak emateko gauza izango da. Ez da diskurtso linealera mugatuko, kateamendua nabarmena izanik. Kontatu, deskribatu, azaldu eta instrukzioak emateko garaian,
4	Ez du eragozpenik kontestu ezagunetan gai ezagunen inguruan ikasleen arteko nahiz jatorrizko hiztunekin zuzen hitz egiteko. Oso gutxitan egingo ditu akats lexikal eta gramatikalak eta hauek, gaiaren konplexutasun eta zailtasunak eragindakoak badira ere, koiunturalak izango dira.	Elkarreraginezko kontestu orokorretan jakingo du zein erregistro-mota nagusi, nolako doinuera, intonazioa... erabili, horren arabera egokitzapena eginez.	Elkarrizketetan erantzun laburrak nahiz zabalak emango ditu. Gainontzeko testu-motetan, berriz, bere diskurtsoa ondo
3	Maila morfosintaktikoan oinarrizko egiturak ezagutzen ditu eta orokorrean zuzen erabiltzen ditu bere ahozko adierazpenean. Dena den, gaiaren konplexutasunaren arabera batez ere, akatsen bat edo beste egin dezake eta erdal kutsua, oraindik ere, antzemango zaio ahoskera eta intonazioan. Lexikoaren ezagutza zabalak du, ulermenean batez ere; horregatik, hitz egitean erdarakadatarak jo behar izango du, hitz egokiena aurkitzeko denbora faltan.	Elkarreraginezko kontestu orokorretan ez du arazorik izango gaia, nori zuzentzen zaion, zertarako, eta abar jakinda erregistroa aukeratzeko eta egokitzeko. Hala ere, kosta egingo zaio bere jarduna egokitzen, gaia oso ezaguna ez duenean eta jatorrizko hiztunekin aritu behar duenean.	Bere erabilera-esparruko elkarrizketetan parte hartzen dakiela frogatuko du: hasiera nola eman, nola jarraitu, nola bukatu, gaiaz aldatzerakoan nola jarraitu. Horretarako erabiliko dituen esaldiak ez dira laburrak izango, txanda laburreko adierazpenak egingo ditu eta diskurtsoaren hariari erreparatzeko ez da oztoporik sortuko. Hala ere, izan ditzake zenbait
2	Maila morfosintaktikoan, fonetikoan eta semantikoan egiten dituen akatsek ez dute komunikazioa etengo, baina neurri handi batean zaildu egingo dute berau.	Gaia bere mundutik eta bere interesetik hurbilekoa bada ere, zailtasunak izango ditu kontestuari egokitzen. Gehiago erreparatuko dio zeresanari, noiz, nori, non eta zertarakoari baino.	Elkarrizketetan parte hartzeko gai bada ere, arazoak izan ditzake txanda luzeetako adierazpenak egiteko. Kohesio-forma eta antolatzaileak ez ditu zuzen
1	Oinarrizko egitura eta formen inguruan hainbat eta hainbat akats egiten ditu. Hainbeste akatsek eta diren bezalakoak izateak akats sistematikoak direla adierazten dute. Zenbaitetan komunikazioa etetera ere iristen dira eta erdarara jotzeko ohitura ere antzematen zaio.	Zailtasun nabarmenak ditu kontestuari egokitzen. Jatorrizko hiztuna zein beste ikasleekin hitz egiteko garaian erregistro egokiaren bila ibiliko da.	Zailtasun handiak izango ditu zerbait kontatu eta deskribatzerakoan, azalpenak egiterakoan, eta abar ideiak ez baititu ondo garatuko.

MINTZAMENA

EN ANTOLAKETA	ABERASTASUNA	JARIOTASUNA
<p>diskurtsoa ondo antolatuta, koherentea eta logikoa izango da. Ideiak garatzeko antolatzaileak eta lotzeko kohesio-formak modu egokian erabiliz.</p>	<p>Maila honi dagozkion testu-mota guztiak sortzeko gai da. Arrakastaz lortzen du testu luze eta konplexuak antolatzea.</p>	<p>Kontestu ezagunetan eta bere mundu ezagutzatik hurbileko gaien inguruan ikasleen artean nahiz jatorrizko hitzuneekin erritmo naturalez, suelto aritzeko gauza izango da, eta diskurtso osoan erritmo bera mantenduko du.</p>
<p>antolatua eta kateatua izango da eta ez du aparteko eragozpenik izango ideiak azaltzeko.</p>	<p>Maila honi dagozkion testu-mota guztiak sortzeko gauza bada ere, egituren eta lexikoaren aberastasuna mugatuagoa izango da gaia ezezaguna gertatzen zaionean, testu laburragoak sortuz.</p>	<p>Kontestua ezaguna duenean eta beste ikasleekin ari denean, oso jardun naturala izango du. Gai ezezagunen inguruan jatorrizko hitzuneekin, berriz, noizbehinka segurtasun eza nabarituko zaio. Hala ere, jakingo du isiluneak itzulinguruz, klitxez eta abarrez betetzen.</p>
<p>hutsune eta atzera-aurrera ibili beharra izango du zenbaitetan, baina entzuleak ez du orokorrean jarraitzeko arazorik izango.</p>	<p>Maila honi dagozkion testu-motak sortzeko gai izango da eta lexiko aberatsa erabiltzen saiatuko da. Baina zenbaitetan akatsak egingo ditu, batez ere adierazpen luzea egiten saiatzen denean, jatorrizko hitzun batekin hitz egin behar duenean eta gaia gehiegi ezagutzen ez duenean. Horrelakoetan, kosta egingo zaio esandakoa beste era batean adierazten.</p>	<p>Kontestua ezaguna duenean eta beste ikasleekin ari denean, jarduna naturala izango da. Jatorrizko hitzuneekin eta gai ezezagunen aurrean, berriz, motelago hitz egingo du, pentsatu beharra izango baitu. Dena dela, nahiz eta polikiago aritu, hutsuneak betetzeko gai izango da.</p>
<p>erabiliko diskurtsoaren haria behin baino gehiagotan etenda geldituko delarik eta, aldi berean, ez ulertuak sortuz.</p>	<p>Kosta egingo zaio maila honi dagozkion testu-motak sortzea. Deskribapenak oso sinpleak izango dira, lexiko urria erakutsiz; instrukzio eta azalpenetan ere galduta ibiliko da eta egiten dituen kontaktak ere nahiko sinpleak izango dira.</p>	<p>Kontestua eta gaia ezagunak izan edo beste ikasleekin aritu behar duenean, bere jarduna nahiko naturala izango da. Gaia arrotza eta jatorrizko hitzuna izanik, berriz, asko kostatuko zaio aurrera egitea eta zenbaitetan isilik geratuko da, zer esan ez dakiela.</p>
<p>Elkarrizketetan ere erantzun laburrak eta bai/ezkoak ematera mugatuko da.</p>	<p>Zailtasun nabarmenak ditu maila honi dagozkion testuak sortzeko, egitura eta lexikoaren aldetik oso testu sinpleak egingo baititu.</p>	<p>Bere jarduna jarraia egiteko arazoak izango ditu eta testuak sortzean oso ekoizpen urria adieraziko du.</p>

2. MAILARAKO EBALUAZIO-IRIZPIDEAK:

	ZUZENTASUNA	EGOKITASUNA
5	<p>Maila honetako testu-motak sortzean alderdi morfosintaktikoaren erabilera zuzena egingo du. Ortografia eta puntuazio-markez ere zuzen baliatzen da eta lexiko handia izateaz gain beronen erabilera egokia egiten du.</p>	<p>Erabilera-esparruaren arabera (familiar-tekoa, akademikoa, eguneroko harremanetako, ...) badaki erregistro egokia aukeratzen, baita xedearen arabera egokitasunak egiten ere. Umorea, ironia, poza, eta abar adierazteko gaitasuna ageri du.</p>
4	<p>Zuzen erabiltzen ditu, oro har, maila honetako egiturak. Ideia konplexuren bat adierazi nahi duenean bakarrik egiten ditu hutsegiteak. Gehienetan zuzen erabiltzen ditu ortografia eta puntuazio-markak.</p>	<p>Erabilera-esparruaren arabera (familiar-tekoa, akademikoa, eguneroko harremanetako, ...) testuari dagokion erregistroa aukeratzeko ez du arazorik. Ez da ereduaren menpeko izango eta idatziaren antolaketan eta egokitasunean gutxitan huts egiten du.</p>
3	<p>Testua luzea denean eta egitura konplexuak erabiltzean maila morfosintaktikoan egiten dituen hutsegiteek ez dute esanahia eragotziko.</p> <p>Bere mundu-ezagutzatik hurbileko gaien inguruko lexikoaren ezagutza zabala du; hala ere, zenbaitetan erdarazko hitza euskaratu egiten du eta euskarazko hitz jatorra balitz bezala erabiltzen.</p> <p>Zuzen erabiltzen ditu ortografia eta puntuazio-markak, zenbaitetan hutsegiteren bat egin badezake ere.</p>	<p>Gaia bere mundu-ezagutzatik eta bere interesetik hurbilekoa denean ez du arazorik bere adierazpena egokitasunez egiteko. Nori zuzentzen zaion, zertarako, eta abar... kontuan izanik idatzizko testuak behar duen formaltasun-mailaz egingo ditu. Hala ere, zenbait idatzitan ereduaren erreferentzia atzemango zaio, idatziak artifizial kutsua izango duelarik.</p>
2	<p>Nahiz eta gaia ezaguna izan, akatsak izango ditu maila morfosintaktikoan zein lexiko eta ortografian. Orokorrean ulertuko da idazlanaren haria, baina ideia eta egitura konplexuak ez dira behar bezala islatuta egongo.</p>	<p>Gaia ezaguna eta bere interesetik hurbilekoa bada ere zailtasunak izango ditu erregistroa aukeratu eta egokitzeke, eta zenbait eredu modu desegokian erabiliko ditu.</p>
1	<p>Maila desberdinetako akats ugari egiten ditu eta egitura sinpleetan ere hutsuneak nabaritzen zaizkio. Oso nekez eta oztopo handi eta ugariak gairak ondoren ulertuko da idatzia bere osotasunean.</p>	<p>Kontestuari ez dio gehiegi erreparatzen; zer idatzi nola idatzi baino gehiago kezkatzen du eta. Nekez asmatuko du erregistroarekin eta buruz ikasita dituen hainbat egitura lekuz kanpo erabiliko ditu.</p>

IDAZMENA

DISKURTSOAREN ANTOLAKETA	ABERASTASUNA
<p>Diskurtsoareen egitura eta pasartearen antolaketa egokitu egiten zaizkie testu-motari eta testu-erari. Irakurterraza suertatzen da ideiak elkarren artean ondo uztartuta daudelako, kohesio-forma egokiak erabiliz. Testu luze samarrak eta ideia konplexuak adierazteko gauza da.</p>	<p>Maila honi dagozkion testu-mota guztiak sortzeko gai da. Arrakastaz lortzen du testu luze eta konplexuak antolatzea. Horretarako errepikapenak, itzulinguruak, berformulazioak, autozuzenketak, hizkuntz klitxeak eta abar erabiliko ditu. Lexikoa eta egituraren aldetik aberatsak izango dira eta ez dute erdal kutsurik izango.</p>
<p>Diskurtsoareen egitura eta pasartearen antolaketa egokitu egiten zaizkie testu-motari eta testu-erari. Ideia nagusiak eta xehetasunak bereizten ditu eta diskurtsoareen haria ez du eteten, testuari osotasuna eta batasuna emango dioten loturak egoki erabiltzen baititu. Ideia konplexuren bat adieraztean zailtasunen bat ager daiteke, baina irakurgarritasuna bermatua egongo da.</p>	<p>Maila honi dagozkion testu-mota guztiak idazteko gauza bada ere, egituren eta lexikoaren aberastasuna mugatuagoa izango du gaia ezezaguna gertatzen zaionean, testu laburragoak sortuz.</p>
<p>Diskurtsoareen egitura eta pasartearen antolaketa egokitu egiten zaizkie, gehienetan, testu-motari eta testu-erari. Ideia nagusiak eta azalekoak bereizten eta lotzen badaki eta gaiak eskatzen dituen xehetasunak ematen ere saiatzen da; horretarako, orokorrean, antolatzaile, kohesio-forma, eta abar egokiak erabiltzen ditu.</p> <p>Hala ere, zenbait testu-motatan, azalpenean kasu, nahasia izan daiteke diskurtsoareen haria; baina testua oztopo handirik gabe irakurri ahal izango da.</p>	<p>Maila honi dagozkion testuak idazteko ez du aparteko oztoporik izango. Hala ere, gaia oso ezaguna ez duenean era edo molde bereko egitura, esapide eta hitzak erabiltzera mugatuko da. Erdal kutsua ere har dezakete kasu hauetan eta idazlanak sinpleak eta pobre-itxura dutenak gerta daitezke.</p>
<p>Maila honetako testu-motetako diskurtsoa hari nagusi baten inguruan antolatuko du soil-soilik; eta, hala ere, izan ditzake nahasketa sortuko duten zenbait hutsune; baina testuaren irakurketa oztopo handirik gabe egiterik izango da.</p>	<p>Arazoak ditu maila honetako testu-mota eta testu-erak garatzeko. Deskribapenak oso sinpleak izango dira, lexiko urria erakutsiz; instrukzio eta kontaketeetan ere ez du trebetasun handirik erakutsiko eta azalpenak ez ditu testu-motak eskatzen duen neurrian idatziko.</p>
<p>Zailtasun handiak izango ditu maila honi dagozkion testu-motak antolatzeko garaian, ez baitu jakingo prozesuen deskribapen egokirik egiten, denboraren arabera taxututako kontaketak behar bezala egiten, instrukzioak sekuentzia logiko baten barruan ematen edo azalpenak behar bezalako egituraz idazten.</p>	<p>Arazo handiak ditu testuek eskatzen duten hedadura emateko. Testuak laburrak eta sinpleak egingo ditu eta lexikoa oso urria izango du.</p>

3. MAILARAKO EBALUAZIO-IRIZPIDEAK: ENTZUMENA

5 Ez du inolako eragozpenik izango ahoz kultura orokorraren mailan eginiko edozein euskal hizketa ulertzeko, ezta hiztunaren hizkera oso kolokiala bada ere. Informazio orokorra eta xehea arazorik gabe jasoko ditu. Dena den, zailtasunak izan ditzake zenbait gai espezializaturen inguruan edota goi-mailako erregistroan (erregistro oso formalean) eginiko hizketaldietan xehetasunak jasotzeko.

4 Ez du inolako eragozpenik izango ahoz kultura orokorraren mailan eginiko edozein euskal hizketa ulertzeko, ezta hiztunaren hizkera kolokiala bada ere. Informazio orokorra eta xehea arazorik gabe jasoko ditu. Dena den, eragozpenak ditu zenbait gai espezializaturen inguruan edota goi-mailako erregistroan eginiko hizketaldietan garrantzizko eta azaleko ideiak bereizteko, baita xehetasunak jasotzeko ere.

3 Kultura orokorraren mailan ahoz eginiko edozein euskal hizketa erraz ulertuko du. Gaiaren inguruko informazio orokorra eta xehea arazorik gabe jasoko ditu. Dena den, zenbaitetan arazoak izan ditzake hizkera kolokialean eginiko hizketaldiko ñabardurak jasotzeko, eta eragozpenak gainditzeko errepikatzea eskatuko du.

2 Oro har, kultura orokorraren mailan eginiko edozein euskal hizketaren garrantzizko ideiak jasoko ditu, baina zailtasunak izango ditu xehetasunak jasotzeko; are gehiago, gaia ezezaguna bazaio, edota egoera formalegia bada. Behin baino gehiagotan entzun behar izango du ulertuko badu.

1 Zailtasun handiak ditu kultura orokorraren mailan eginiko hizketaldien garrantzizko eta azaleko ideiak bereizteko, nahiz eta behin baino gehiagotan entzun hizketaldia. Hizkera kolokialean eginiko hizketaldia jarraitzeko arazoak ditu.

3. MAILARAKO EBALUAZIO-IRIZPIDEAK: IRAKURMENA

5 Ez du inolako eragozpenik kultura orokorraren mailako prosa-testuak, saiakera arruntak, ipuinak, nobelak, erreportaje eta artikuluak jasotzeko eta ulertzeko. Informazio orokorra nahiz xehea erraz ateratzen du, nahiz eta egitura korapilotsua izan. Dena den, zailtasunak ditu gaia espezializatua denean informazio xehea jasotzeko.

4 Ez du inolako eragozpenik kultura orokorraren mailako prosa-testuak, saiakera arruntak, ipuinak, nobelak, erreportaje eta artikuluak, iritzi-artikuluak jasotzeko eta ulertzeko. Informazio orokorra eta xehea atzematen du. Dena den, zailtasunak ditu gaia espezializatua denean informazio orokorra nahiz xehea ateratzeko.

3 Badaki kultura orokorraren mailan sortzen diren testu-motak bereizten, baita hauek duten egitura ere. Testuari kohesioa eta koherentzia emango dioten adierazpide linguistiko--testualak ere bereizten ditu. Ideia garrantzitsuenak eta azalekoak arazorik gabe atzematen ditu eta testuinguruaz ere jabetzeko gai da. Dena den, testuaren egitura korapilotsuegia suertatzen zaionean, behin baino gehiagotan irakurri behar izaten du, eta zenbaitetan xehetasunen bat edo beste galtzen du. Bestalde, ñabardurei erreparatzeko testuinguruaz eta hainbat estrategiaz baliatuko bada ere, noiz edo noiz, gaiaren zailtasun-maila kontuan izanik, eragozpenak izan ditzake.

2 Badaki bereizten kultura orokorraren mailari dagozkion testu-motak eta testu-erak; testuaren nondik norakoaz ere jabetzen da, nahiz eta behin baino gehiagotan irakurri behar izan. Dena den, zailtasunak ditu testuaren xehetasunak atzemateko, besteak beste, adierazpide linguistiko zein testualak ez dituelako behar bezala menderatzen.

1 Badaki bereizten maila honi dagozkion testu-motak eta testu-erak, baina arazoak ditu testuaren ideia garrantzitsuak eta azalekoak bereizteko, baita testuaren xehetasunak atzemateko ere. Nahiz eta behin eta berriz irakurri, askotan ez du testua behar bezala ulertzen; ez da testuaren nondik norakoaz jabetzen, besteak beste, adierazpide linguistiko zein testualak ez dituelako behar bezala menderatzen.

3. MAILARAKO EBALUAZIO-IRIZPIDEAK:

	ZUZENTASUNA	EGOKITASUNA	DISKURTSOAREN
5	<p>Ez du inolako arazorik izango kultura orokorreko edozein gairen inguruan zuzen hitz egiteko. Alderdi morfosintaktikoari dagozkion egiturak zuzentasunez erabiltzeko gauza da; alderdi fonologikoan ere ez du eragozpenik izango. Gainera, lexikoaren ezagutza zabala duenez, jakingo du hitz zehatza aukeratzeko, baita xehetasunak eta ñabardurak eman behar dituen ere.</p>	<p>Ez du inolako arazorik izango kultura orokorreko edozein gairen inguruan erregistro-mota aukeratu eta erabiltzeko. Azalpen eta argudioetan, kultura orokorreko gaia izanik ere, maila jasoko hizkera erabiltzen saiatuko da, beti ere, nori zuzentzen zaion, zertarako, gaiaren nolakoa kontuan hartuz informazioa egokitasunez adieraziz. Lexikoa ere egoki erabiliko du hitzen balio semantikoa ondo menperatzen duelako.</p>	<p>Kultura orokorreko edozein gai izanik ere, testu-motaren arabera diskurtsoa oso ondo antolatzen du. Elkarrizketetako partaidetza jatorrizko hiztunaren pareko izango da, bai elkarrizketa gidatzean baita jarraipena</p>
4	<p>Ez du eragozpenik izango kultura orokorreko gaien inguruan akatsik gabe hitz egiteko, mailari dagozkion egitura eta formak ezagutzen baititu. Euskal fonemak ere zuzen erabiliko ditu; baina izan ditzake zenbait arazo ongi intonatzeko, ulermena eragotziko ez badute ere. Lexikoaren ezagutza zabala du eta xehetasunak eta ñabardurak ere hitz zehatzaren bidez ematen saiatzen da.</p>	<p>Kultura orokorreko gaien inguruan jakingo du bere jarduna egoerari nahiz entzuleari egokitzen. Hala ere, gaia ezezaguna denean izan ditzake erregistro-mota aukeratzeko zenbait arazo, baina honek ez du esan nahi adierazpen egokia izango ez denik.</p>	<p>Kultura orokorreko gaien inguruan ondo antolatuko du bere diskurtsoa eta ez du eragozpenik izango testuak eskatzen dituen</p>
3	<p>Alderdi morfosintaktikoari dagozkion formak eta egiturak ezagunak baditu ere, bere ahozko adierazpenean akats gutxi batzuk izan ditzake. Akats horiek guztiz koiunturalak izango dira: bat-batekotasunak eta jardunaren nondik norakoak sortutakoak, hain zuzen ere.</p> <p>Alderdi fonologikoari dagokionez, euskal fonemen (fonemen ahoskera, hitz-barneko aldaketak, hitz-kateak) erabilera zuzena egingo du; intonazioari dagokionean, aldiz, zenbait arazo izan ditzake, baina arazo horiek ez dute hizketaren ulergarritasuna eragotziko.</p> <p>Bestalde, lexikoaren ezagutza zabala izango du. Hala ere, xehetasunak eta ñabardurak ematerakoan hitz zehatza aurkitu ezean hainbat estrategiaz baliatuko da: berformulazioa, itzulgingurua, etab.</p>	<p>Ahozko adierazpenean nori zuzentzen zaion, zertarako, gaiaren nolakoa... kontuan izanik ez du eragozpenik izango erregistro-mota aukeratu eta erabiltzeko. Azalpen eta argudioetan batik bat eta gaia ez badu oso ezaguna, informazioa testu-mota horien egiturara eta zereginetara egokitze zailtasunak aurki ditzake.</p>	<p>Kultura orokorraren mailako elkarrizketak gidatzen eta jarraitzen dakiela frogatuko du: hasiera noiz eman, nola jarraitu, nola bukatu, gaiak aldatzerakoan erantzuten, etab. Horretarako adierazpen bakoitzari dagokion esapide, antolatzaile, kohesio-forma, eta abarrez baliatuko da.</p> <p>Zerbait kontatu edo deskribatzerakoan, azaldu eta argudiatzerakoan diskurtsoa ondo antolatua eta josia izango da, bere jarduna koherentea izango delarik.</p> <p>Hala ere, izan ditzake</p>
2	<p>Egiten dituen akatsek hainbat egitura eta forma ez dituela ondo menperatzen adieraziko dute. Sortzen zaizkion hutsune eta gabeziei aurre egiteko ez da gai izango, egiturak, formak eta hitzak nahasi eta tokiz kanpo erabiliko dituelarik.</p>	<p>Zailtasunak izango ditu kultura orokorreko zenbait gairen inguruan, eta azalpen eta argudioetan batez ere, informazioa modu egokian ematen. Ez du askotan hizkuntz erregistro egokia erabiliko, ez baitu berau egokitzen jakingo egoerak nahiz testu-motek eskatzen dioten zereginetara.</p>	<p>Kultura orokorraren mailako elkarrizketetan parte hartzeko gai bada ere, arazoak izan ditzake jatorrizko hiztunekin ari denean. Narrazio eta deskribapenetan eta, batez</p>
1	<p>Alderdi morfosintaktikoan, fonologikoan eta lexikoan dituen akatsak ez dira koiunturalak, egitura eta formak ongi ikasi gabe dituela adierazten baitute. Akats hauek behin eta berriro egiten dituenek, nekez lortuko du modu naturalean jardutea, eta jatorrizko hiztunari oso arrotza eta artifiziala gertatuko zaio bere hizkera.</p>	<p>Kultura orokorreko edozein gai eta testu-mota izanik ere, ez du jakingo bere jarduna egoera eta entzuleari egokitzen; hori dela eta, hainbat hitz eta egitura lekuz kanpo erabiliko ditu, solaskidearengan harridura sortuz.</p>	<p>Zailtasun handiak izango ditu maila honetako edozein testu-mota sortzeko. Elkarrizketetan ez du erantzun luzeak egiten asmatuko, bai/ezkoetara mugatuz;</p>

MINTZAMENA

EN ANTOLAKETA	ABERASTASUNA	JARIOTASUNA
ematean ere. Testu transakzioaletan, berriz, ondo antolatu eta egituratutako adierazpenak egingo ditu, beharrezko dituen kohesio-forma, antolatzaile, esapide eta abarrez baliatuz.	Maila honi dagozkion testu-mota guztiak sortzeko gai da. Bere adierazpena aberatsa da oso; hau da, erabiltzen duen lexikoa ugaria eta zabala da, iturri askotatik hartutakoa. Egiturei dagokionez, asko eta era askotakoak dira erabiltzen dituen elementu linguistikoak, eta guzti horrek testuaren luze-laburrean eragina izango du.	Kultura orokorraren mailan edozein euskal hizketaren inguruan jatorrizko hiztunaren parekoaren erritmo eta naturaltasunaz arituko da eta diskurtso osoan erritmo bera mantenduko du.
antolatzaile, kohesio-forma eta loturaz baliatzeko.	Maila honi dagozkion testuak ahoz sortzeko gai da. Hizkuntzaren ezagutza zabala eta ona izanik, guztia erabiltzera arriskatuko da, baina zenbaitetan akatsak egingo ditu.	Elkarreraginezko kontestu ezagunetan jarduna jarraia eta naturala izango du. Diskurtso transakzioaletan ere naturaltasunez eta erritmo egokiz arituko da; baina zenbaitetan, gaiaren konplexutasunagatik edo, naturaltasuna gal dezake.
zenbait zalantza eta izango du zenbaitetan atzera-, aurrera--pauso eta zuzenketak egin beharra, herri--hizkera erabiltzen duen solaskidearekin ari denean edo gaia ezezaguna edota espezializatua baldin bada, batez ere.	Maila honi dagozkion testuak (elkarrizketak, narrazioak, deskribapenak, azalpenak, argudioak,...) ahoz sortzeko gai izango da, baina testuaren luze-laburra beti ere egoerari, hartzaileari, gaiaren ezagutzari lotuko zaizkio. Alderdi morfosintaktikoaren ezagutza zabala eta lexiko aberatsa izango duenez, guztia erabiltzera arriskatuko da eta arriskatzeak berak zenbait akats egitera bultzatuko du. Idea nagusiak eta baita zehaztasunak ere behin baino gehiagotan esango ditu, esandakoa bilduz eta beste era batean adieraziz eta aldi berean hurren esango duenarekin lotura eginez.	Elkarreraginezko kontestu ezagunetan (familiarreko, aisialdiko, lagunarteko... esparrutan) jarduna jarraia eta naturala izango du. Gai ezezagunen inguruan bere iritzia edota azalpena egin behar duenean, berriz, moteldu egingo da diskurtsoa ahalik eta egitura, forma, esapide edota adierazpiderik egokienaren bila, berau aurkitu arte. Geldiune hauek betelan-hitzez estaltzeko gai izango da, aipatu geldiuneak ia nabarmenduko ez direlarik.
ere, azalpen eta argudioetan diskurtso antolatu eta josia egiteko arazoak izan ditzake, testuaren osotasun eta batasunaren kaltetan.	Kosta egingo zaio maila honi dagozkion testuak sortzea. Azalpen eta argudioetan, batez ere, galduta ibiliko da, ez baitu adierazpide nahikorik izango; eta oso egitura simplea duten adierazpenak egingo ditu.	Kontestu eta gai ezagunak izanik, bere adierazpena motel eta geldiunez betea gerta daiteke eta horiek saihesteko estrategiarik erabili ezean komunikazioa etenda gera daiteke.
testu transakzioaletan, berriz, egituraren aztarnarik ez zaio antzemango, testu inkoherente eta loturarik gabekoak eginez.	Zailtasun nabarmenak ditu kultura orokorraren mailako gaien inguruan testuak osatzeko, berauek osatzeko behar izango dituen hizkuntz tresnarik izango ez duelako.	Bere jarduna jarraia eta naturala egiteko arazoak izango ditu eta testuak sortzean oso ekoizpen urria adieraziko du.

3. MAILARAKO EBALUAZIO-IRIZPIDEAK:

	ZUZENTASUNA	EGOKITASUNA
5	<p>Ez du inolako arazorik izango kultura orokorreko edozein gai, baita bere ezagutza-mundutik hurbileko gai espezializatuak ere, zuzen adierazteko.</p> <p>Alderdi morfosintaktiko, lexiko eta ortografia eta puntuazio-marken erabilera zuzena eta zehatza egingo du.</p>	<p>Ez du inolako arazorik izango kultura orokorreko edozein gairen inguruan eta edozein esparrutan erregistro egokia aukeratzen.</p>
4	<p>Zuzen erabiltzen ditu maila honetako egiturak, alderdi morfosintaktikoaren ezagutza ona erakutsiz. Ortografia eta puntuazio-markez ere zuzen baliatzen da eta gaiari dagokion lexiko zehatzaren erabilera zuzena egiten du.</p>	<p>Ez du eragozpenik kultura orokorraren mailan kontestuaren arabera testuari eta gaiari dagokion erregistroa aukeratzeko. Hala ere, gaia ezezaguna denean arazoak izan ditzake, baina adierazpen egokia izaten jarraituko du.</p>
3	<p>Maila honi dagozkion testuak idazterakoan ez du alderdi morfosintaktikoan aparteko arazorik izango, zenbaitetan adierazi beharrekoaren konplexutasunagatik edo, sintaxiaren arloko akatsen bat egiten badu ere. Dena den, ez du akats sistematikorik egingo. Lexiko aberatsa du erabiliko dituen sinonimo eta berformulazio eta abarretan ikusi ahal izango denez, eta ez du ortografia eta puntuazio-marken erabileran oztoporik. Gertatzen diren hutsegite bakan horiek gaiaren eta egoeraren berezitasunei zor zaie.</p>	<p>Gaia kultura orokorraren mailaren eremukoa izanik, bere mundu-ezagutzatik eta interesetik urrunekoa bada, zenbaitetan arazoak izaten ditu adierazi nahi duena egokitasunez adierazteko: alferrikako informazioa emango du eta baita hitz desegokiak erabili ere, besteak beste, gaia guztiz menperatzen ez duelako. Bestelakoetan ez du aparteko arazorik izango kontestuari dagokion erregistro-mota aukeratzeko.</p>
2	<p>Maila morfosintaktikoan zein lexiko eta ortografian egingo dituen akatsek hainbat egitura eta forma ez dituela ondo menperatzen adieraziko dute. Idazlanaren haria ulertu ahal izateko ahalegin berezia egin behar izango da eta birritan-edo irakurri.</p>	<p>Zailtasunak izango ditu kultura orokorreko zenbait gairen inguruan erregistroa aukeratu eta egokitzeko eta zenbaitetan ereductara jo behar izango du, idatzia ondo burutuko badu.</p>
1	<p>Maila desberdinetako akatsak sistematikoki azalduko dira bere idatzietan, idatzia ulergaitza eginez.</p>	<p>Nekez asmatuko du gaiak, kontestuak eta abar eskatzen duen erregistroarekin. Buruz ikasitako egitura eta klitxeetara joko du besterik ezean.</p>

IDAZMENA

DISKURTSOAREN ANTOLAKETA	ABERASTASUNA
<p>Kultura orokorreko edozein gai izanik ere, testu-motaren arabera diskurtsoa oso ondo antolatu, egituratu eta garatzen du. Nahiz eta gaia konplexua izan eta baita zenbait gai espezializatuetan ere, irakurterraza suertatuko da idatzia, ondo erabiltzen baititu antolatzaileak eta ideia nagusiak eta bigarren mailakoak ondo bereiziko dituelako.</p>	<p>Kultura orokorreko edozein gairen inguruan testuak sortzeko gai da. Arrakastaz lortzen du testu luze eta konplexuak antolatzea eta bere mundu-ezagutzatik hurbileko gai espezializatuetan ere nabari da lexikoaren eta egituren aberastasuna.</p>
<p>Kultura orokorreko gaien inguruan sortuko dituen idatzizko testuak ondo egituratuta eta antolatuta egongo dira eta ez du eragozpenik izango testu-motak eskatzen dituen antolatzaile, kohesio-forma eta abarrez baliatzeko. Gai espezializatu baten adierazpenean zailtasunik sor daiteke, baina irakurgarritasuna bermatua egongo da.</p>	<p>Maila honi dagozkion testu-mota guztiak idazteko gauza bada ere, elementu linguistikoen eta lexikoaren aberastasuna mugatuagoa izango du gai espezializatuaren denean, testu laburragoak sortuz.</p>
<p>Maila honetan testuak (gutunak, gai baten inguruko azalpenak, argudioak, ipuinak...) idazterakoan hauen egitura eta pasarteetan antolaketa egokitu egiten zaizkio testu-motari. Ideia garrantzitsuak, azalekoak eta xehetasunak ondo bereiziko ditu eta bata bestearenganako loturak ondo egingo ditu testu-mota, kontestua eta abar kontuan hartuz.</p> <p>Testua lehen irakurketan ulertzeko ez da inongo oztoporik izango.</p>	<p>Maila honi dagozkion testuak idazteko gai izango da eta hauek osatzeko erabiliko dituen ideia, egitura edota lexikoaren zenbaterakoak eta nolakoak hizkuntzaren ezagutza ona duela adieraziko dute.</p>
<p>Kultura orokorraren mailako narrazio eta deskribapenetan eta, batez ere, azalpen eta argudioetan diskurtso antolatu eta josia egiteko arazoak izan ditzake. Ideia nagusiak adieraziko ditu, baina xehetasunak eta ñabardurak azaltzeko zailtasunak izango ditu.</p>	<p>Kosta egingo zaio maila honi dagozkion testuak sortzea. Azalpen eta argudioetan, batez ere, ez da gai izango esan nahi duena esateko ez baitu adierazpide nahikorik izango eta aipatu testu horiek ez ditu testu-motak eskatzen duen neurrian idatziko.</p>
<p>Zailtasun handiak izango ditu maila honetako edozein testu idatziz sortzeko. Egituraren aztarnarik ez zaio antzemango, testu inkoherente eta loturarik gabekoak eginez.</p>	<p>Arazo handiak ditu maila honetako testuek eskatzen duten hedadura emateko, hizkuntzaren ezagutza-maila eskasa delako.</p>

HADE

eranskinak

HE
OK

1. eranskina BALIABIDE TESTUALAK

❶ Deiktikoak

- pertsonalak
- espazialak
- denborazkoak
- testualak

❷ Errepikapenezkoak

2.1 erreferentziak

- anafora
- katafora

2.2 ordezkapen lexikala

- sinonimia
- antonimia
- hiperonimia
- hiponimia

2.3 elipsia

2.4 definizazioa (mugatzailak)

❸ Loturazkoak

3.1 lokailuak

- emendiozkoak
- hautakariak
- aurkaritzakoak
- ondoriozkoak
- kausazkoak

3.2 testu-antolatzaileak

- aldi-antolatzaileak
- denbora-adierazleak
- ordena-adierazleak
- kausa/ondoriozkoak
- kontrajartzeak
- kausaltatea adieraztekoak
- adibideak ematekoak
- informazioa gehitzeak
- arrazoiak gehitzeak
- konklusiorako

...

❹ Hitzen ordenari dagozkionak

4.1 edukiaren eta helburuaren adierazpen eta interpretazio antolatua (edukiaren eskema)

4.2 aurrerabide tematikoa (mintzagaia eta iruzkina)

- lineala
- jarraia
- eratorria

4.3 informazio zahar eta berriaren antolamendua

4.4 egitura proposizionalak eta beroriek antolatzeko ordena (denborazkoak, espazialak, kausa-ondorioa, baldintza-emaitza, etab.)

4.5 denbora (jarraipena/jauzia)

2. eranskina ADIERAZPIDE LINGUISTIKOAK

Alderdi fonologiko eta ortografikoa

Euskal fonema bereziak: tz, tx, ts, z, x, s, il >[ll], in >[ñ], -k...

Asimilazioak eta elipsiak:

- ez dira [ɛztia]
- badator [baator]
- ez ba [ɛzpa]
- ekarri ditu [ekarrittu]

Doinuera: euskal azentua eta intonazioa

Alderdi morfosintaktikoa

IZEN-SINTAGMA

Deklinabidea

	SING.	PL.	MUGG.
Absolutua	x	x	x
Ergatiboa	x	x	x
Datiboa	x	x	x
Inesiboa	x	x	x
Genitibo edutezkoa	x	x	x
Adlatiboa	x	x	x
Ablatiboa	x	x	x
Soziatiboa	x	x	x
Genitibo leku-denborazkoa	x	x	x
Destinatiboa	x	x	x
Motibatiboa	x	x	x
Instrumentala			
Partitiboa			

Izenak izen propioak / izen arruntak
bizigabeak / bizidunak

Galdetzaileak

- nola, nolakoa
- nor (nork, nori, noren, norekin, norengan...)
- zer (zerk, zertaz, zergatik, zertan, zeri buruz, zer ordutan, zertarako, zer ordutatik zer ordutara...)
- non (nongoa, nora, nondik...)
- noiz (noizko, noiztik, noiz arte...)
- zein (zeinek, zeini...)
- zenbat (zenbatek, zenbat ordutan...)
- zeren aldeko, zerren kontrako, zeri buruzko, zein egunetako...

Izenordainak

- Pertsona-izenordainak: ni, zu, gu, zuek (nik, niri, nire...)
- Izenordain mugagabeak: edozein (edozeinek...), inor ez, ezer ez, norbait, zerbait

Determinatzaileak

- erakusleak (hau, hori, hura; honek, horrek, hark...)
- zenbatzaileak:
 - zenbatzaile zehaztuak: kardinalak
 - zenbatzaileak eta neurriak (bi urteko umea; litro bat esne; baso bat ur eta ur baso bat; orduak; data; telefono-zenbakiak)
- ordinalak: -garren
- banatzaileak: zenbatzaile zehaztugabeak: batzuk, asko, gutxi, nahiko, aski, oso, erdi, guzti, hainbeste, apur bat, piska bat, makina bat, ugari

Adjektiboak

- gradu-markak: -ago, -egi, -en, ahalik eta ...-en, gero eta ...-ago,
- zenbat eta ...-ago, orduan eta ...-ago,
- askoz ...-ago
- graduatzaleak: atzizki graduatzaleak: -txo (txikigarria), -tzar (handigarria)

Adberbioak

Leku-adberbioak: hemen, hor, han (hemengo ...; honela...)
 Aditzaren graduatzaileak: erabat, zeharo, batere, guztiz, izugarri, ikaragarri...
 Iritzi-adberbioak: agian, beharbada, dudarik gabe, itxuraz, badaezpada, noski, jakina...
 Modu-adberbioak: gaizki, txarto, ondo, poliki...

Posposizioak

Aurre, atze, azpi, gain, barru, pare, ondo, arte, alde, aurka, kontra, inguru, esker, menpe, orde

Hitz sortzaileak

Atzizkiak: -tzaile, -le, -gile, -tar, -ari, -garri, -tegi, -dun, -gailu, -ti, -ka, -keria, -tasun, -garren, -men/pen, -tsu
 Hitz-elkartuak: toki, aldi, gabe, gura, zain

ADITZA**Indikatiboko orainaldia**

NOR: Izan, Egon, Joan, Ibili, Etorri,
 NOR-NORK: Ukan, Eduki, Jakin, Eraman, Ekarri, Esan (diot...), Iruditu
 NOR-NORI
 ZER-NORI-NORK

Indikatiboko lehenaldia

NOR: Izan, Egon, Joan, Ibili
 NOR-NORK: Ukan (nuen...), Eduki, Jakin
 NOR-NORI
 ZER-NORI-NORK

Indikatiboko baldintzazkoak

NOR: Izan, Egon (balego, legoke)
 NOR-NORK: Ukan, Jakin (baneki)

Aditz-lokuzioak

NOR: Bizi izan, Ari izan
 NOR-NORK: Nahi izan, Balio izan, Behar izan, Ahal/Ezin izan

Aspektua (orainaldia, lehenaldia)

NOR/NOR-NORK: ez-burutu puntukaria, burutua, ez-burutua, gertakizuna

Aditz-lokuzioen aspektua**Agintera**

NOR: Izan (zaitez, zaitezte), Joan (zoaz), Etorri (zatoz)
 NOR-NORK: Ukan (ezazu, itzazu, ezazue, itzazue)
 ZER-NORI-NORK [jezadazu(e), iezaiozu(e)]

Ahalezko orainaldia

NOR: Izan
 NOR-NORK: Ukan

Forma inperpersonalak**SINTAXIA****JOSKERA**

Galdegaia aditzaren baietza eta ezetza denean

PERPAUSA**PERPAUS BAKUNA**

Baiezkoak. Galdegaia baiezko perpausetan
 Ezezkoak. Galdegaia ezezko perpausetan
 Galdezkoak. Galdegaia galdezko perpausetan
 Harridura perpausak: bai... -(e)la!, zein... -(e)n!, a zer-nolako... -(e)n!
 Aginte perpausak

PERPAUS ELKARTUA

Juntadura

Juntagailuz egindako juntadura

Emendiozkoak: eta

Hautakariak: ala, edo

Aurkaritzakoak: baina, baizik

Banatzailleak: bai...bai, ez...ez, (alde); batetik...bestetik

Menperakuntza edo txertakuntza

Izen-funtziozko menderakuntza

Konpletiboak:: -(e)la, -(e)nik, -t(z)ea, -t(z)eak, -t(z)eko

Zehar galdera: -(e)n

Izenlagun-funtziozko menderakuntza

Erlatibozkoak: -(e)n (erreferenteduna, erreferente gabea, erreferentedun deklinatua, erreferente gabea deklinatua)

Aditzlagun-funtziozko menderakuntza

Denborazkoak: -(e)nean, eta gero, ondoren, baino lehen, aurretik, -t(z)ean, arte, bezain laster, bitartean, -(e)n bitartean, -(e)n bakoitzean, -(e)n guztietan, -(e)n gehienetan

Moduzkoak: -(e)n moduan, -(e)n bezala

-(e)z, -t(z)en, -ta/-(r)ik

Konparaziozkoak: baino...-ago, baino gutxiago / gehiago

bezala / bezalako

bezain, beste

Helburuzkoak: -t(z)era, -t(z)eko

Kausazkoak: -(e)lako, ...eta, bait-...

Baldintzazkoak: (baldin) ba-

Kontzesiboak: nahiz eta

Lokailuak

Emendiozkoak: ere (baita ere, ezta ere)

Hautakariak: bestela

Aurkaritzakoak: ordea, hala ere, dena dela

Ondoriozkoak: bada, beraz, orduan

3. eranskina ADIERAZPIDE LINGUISTIKOAK 2

Alderdi fonologiko eta ortografikoa

Euskal fonema bereziak: idazkera eta ahoskera

Asimilazio eta elipsiak

Doinuera: euskal azentua eta intonazioa

Alderdi morfosintaktikoa

IZEN-SINTAGMA

Deklinabidea

	SING.	PL.	MUGG.
Absolutua	x	x	x
Ergatiboa	x	x	x
Datiboa	x	x	x
Inesiboa	x	x	x
Genitibo edutezkoa	x	x	x
Adlatiboa	x	x	x
Adlatibo bukatuzkoa (-raino)			
Ablatiboa	x	x	x
Soziatiboa	x	x	x
Genitibo leku-denborazkoa	x	x	x
Destinatiboa	x	x	x
Motibatiboa	x	x	x
Instrumentala	x	x	x
Partitiboa			
Prolatiboa			

Izenak:

izen propioak / izen arruntak

bizigabeak / bizidunak

[plural hurbila -ok](#)[X eta biok](#)

Galdetzaileak

nola, nolakoa

nor (nork, nori, noren, norekin, norengan...)

zer (zerk, zertaz, zergatik, zertan, zeri buruz, zer ordutan, zertarako, zer ordutatik zer ordutara...)

non (nongoa, nora, nondik...)

noiz (noizko, noiztik, noiz arte...)

zein (zeinek, zeini...)

zenbat (zenbatek, zenbat ordutan...)

zeren aldeko, zerren kontrako, zeri buruzko, zein egunetako...

[norentzako, norainoko, norenganako, zenbateko...](#)[norengeatik, zeregeatik](#)

Izenordainak

Pertsona izenordainak:

ni, zu; gu, zuek (nik, niri, nire...)

[forma indartuak: neu, zeu, geu, zeuek...](#)

Izenordain mugagabeak:

edozein (edozeinek...), inor (ez), ezer (ez), norbait, zerbait, [edonor, edozer, norbera, nor bere, nor edo nor, zer edo zer](#)

Determinatzaileak

erakusleak (hau, hori, hura; honek, horrek, hark...)

[erakusle indartuak: hauxe, horixe, huraxe... / "ber", bera-ren erabilera](#)

zenbatzaileak:

zenbatzaile zehaztuak: kardinalak

zenbatzaileak eta neurriak (bi urteko umea; litro bat esne; baso bat ur eta ur baso bat; orduak; data; telefono-zenbakiak)

ordinalak: -garren

banatzaileak: -na, -naka, -ko

zenbatzaile zehaztugabeak: zenbait, batzuk, asko, gutxi, nahiko, aski, [dexente](#), [samar](#), [anitz](#), hainbeste, apur bat, piska bat, makina bat, ugari...
oso, [dena](#), [guz\(t\)ia](#)

Adjektiboak

-ko, [izenlagunak sortzeko baliabidea](#)

gradu-markak: -ago, -egi, -en, ahalik eta ...-en, gero eta ...-ago,

zenbat eta ...-ago, orduan eta ...-ago,

askoz ...-ago

graduatzailak: [nahiko](#), [oso](#), [erabat](#), [zeharo](#); atziki graduatzailak: [-kote](#), [-tzar](#) (handigarriak); [-txo](#) (txikigarria)

Adberbioak

Leku-adberbioak:

hemen, hor, han (hemengo ...; honela...)

[hementxe](#), [hortxe](#), [hantxe](#)

[bertan](#) ([hementxe bertan](#), [bihar bertan](#))

Aditzaren graduatzailak: [erabat](#), [zeharo](#), [batere](#), [gutziz](#), [izugarri](#), [ikaragarri](#)...

Iritzi-adberbioak: [agian](#), [beharbada](#), [dudarik gabe](#), [itxuraz](#), [badaezpada](#), [noski](#), [jakina](#), [antza \(denez\)](#), [nonbait](#), [dirudie-nez](#)

Modu-adberbioak: [gaizki](#), [txarto](#), [ondo](#), [poliki](#)...

[ederto](#), [ederki](#)

Posposizioak

